

**EUSKADIKO
GASTRONOMIA ETA
ELIKADURAREN
PLAN ESTRATEGIKOA**

2020

HERRI ESTRATEGIA

AURKIBIDEA

1. Planaren aurkezpena	4
2. Euskadi gastronomiaren eta elikaduraren arloan tokiko eta nazioarteko erreferente bihurtzeko plan bat	5
2.1. Elikadura eta gastronomia, aukerarako lurraldea eta herri-estrategia	5
2.2. Estrategiak bateratzea helburu komun baterako	6
2.3. Elkarlanaren eta lankidetzaren emaitza	6
2.4. Anbizio handiko helburuak posible egitea	7
3. Aurrekariak eta testuingurua	8
3.1. Euskadiko egoera sozioekonomikoa eta kontsumo-joera globalak	8
Egoera ekonomikoa	8
Euskadik izandako aldaketa sozialak eta demografikoak	8
Garapen jasangarria	9
Aldaketak kontsumo-ohituretan	9
Berrikuntzak Euskadin dituen nondik-norakoak	10
3.2. Esparru instituzionala eta arau-esparrua	12
4. Elikaduraren Balio Katea	14
4.1. Elikaduraren Balio Katearen eta beste arlo batzuen arteko erlazioak	16
Elikadura – Osasuna	16
Elikadura – Kultura	16
Elikadura – Ingurumena	17
5. Hausnarketa-prozesu parte-hartzailea eta integratzailea	18
5.1. Euskadiko gastronomiaren eta elikaduraren erronkak	20
6. Gastronomia eta Elikaduraren Plan Estrategikoa	28
6.1. Planaren misioa eta irismena	28
6.2. Ikuspegia	29
6.3. Planaren printzipioak	29
Balio-kate egituratu eta transbertsala bultzatzea	29
Industria lehiakorraren aldeko apustua	29
Agente askoren arteko lankidetzak	30
Pertsonak jomugan	30
Lurraldearen garapen jasangarriaren aldeko apustua	30
Pertsonentzako irtenbide osasungarriak sortzea	30
Arintasuna eta malgutasuna	30
Ahaleginak bideratzea eta emaitzak jomugatzat hartzea	30
6.4. Helburu estrategikoak	30
6.5. Ardatz estrategikoak eta jarduera-ildoak	31
6.5.1. Enpresa txiki eta ertainei negozioa sortzen laguntzea	32
6.5.2. Nazioarteratzea eta merkatuak garatzea	33
6.5.3. Teknologiak eta ezagutza, balio erantsiko negozioetarako	35
6.5.4. Pertsonak, kultura eta trebakuntza. Kalitateko enplegua	37
6.5.5. Proiektu estrategikoak eta eraldatzaileak	39
6.5.6. Lehiakortasunerako testuingurua	40
6.6. Elikadura osasungarria: Euskadik duen ongizate eta bizi-kalitateko goi-mailako estandarra	42

7. Gobernantza-eredua, jarraipena eta aurrekontu-esparrua	44
7.1. Gobernantza-eredua	44
Sailen arteko koordinazioa	45
Erakunde arteko koordinazioa	45
Gaikako mahaiak eta sektore artekoak	45
7.2. Jarraipen- eta ebaluazio-sistema	45
Aginte-taula	46
7.3. Ekonomia- eta aurrekontu-esparrua	47
I. eranskina	49
II. eranskina	51
1. Lehen sektorea	51
2. Elikagaien eta edarien industria	55
3. Merkataritza eta banaketa	63
4. Horeca	67
5. Garraioa	69
6. Turismoa	71
7. Kontsumoa	75
III. eranskina	81
1. Testuinguru globala FAOren arabera	81
1.1 Munduko joerak	82
Hazkunde demografikoa, urbanizazioa eta zahartzea	82
Munduko hazkunde ekonomikoa, inbertsioak, merkataritza eta elikagaien prezioa	82
Natura-baliabideak lortzeko lehia handitzea	83
Klima-aldaketa	84
Nekazaritza-produktibitatea eta berrikuntza	85
Mugaz gaindiko izurriteak eta gaixotasunak	85
Gatazkak, krisiak eta hondamendi naturalak	86
Pobrezia, desberdintasuna eta elikagaien segurtasunik eza	86
Nutrizioa eta osasuna	88
Egitura-aldaketak eta enplegua	88
Migrazioak eta nekazaritzaren feminizazioa	89
Elikadura-sistemen aldaketak	90
Elikagaiak hondatzea eta alferrik galtzea	91
Elikagai-segurtasunerako eta nutriziorako gobernantza	91
Garapenerako finantzaketa	92
1.2. Aurre egin beharreko 10 erronkak (FAO)	92
ELIKADURA-EGONKORTASUNERAKO ETA ELIKAGAIK ESKURA IZATEKO ERRONKAK	93
ELIKAGAIK ESKURATZEKO ETA ERABILTZEKO DAUDEN ZAILTASUNAK	93
ERRONKA SISTEMIKOAK	93

I. PLANAREN AURKEZPENA

Gero eta globalizatuagoa da gure mundu hau; inoiz baino azkarrago aldatzen ari da, eta aurrerapen zientifikoak eta teknologikoak iraultza eragiten ari dira ekoizpen- eta komunikazio-moduetan. **Euskadin ezinbestekoa bihurtu da gastronomiaren eta elikaduraren arloko estrategia** zehaztea; premiazkoa baita espeziearen etorkizuna arriskuan jartzen ari diren erroka globalei erantzuteko (berotze globala; elikagaien gero eta eskari handiagoa eta ekoizpen-sistema sostengaezina; baliabide berriztaezinak agortzea; hondakin-kantitate handiak; eta malnutrizioa); halaxe egiten ari dira, gainera, beste autonomia-erkidego batzuetan eta hazkunde-tasa handiko beste herrialde batzuetan. Horretarako, elikaduraren eta gastronomiaren kontzeptuak berrikusi dira, batetik datozen aldaketa-garaietara egokitzeko kontzeptu horien esanahia eta helburua, eta, bestetik, konponbideak pentsamendu sistemikoko eta diziplina anitzeko ikuspegi batetik bilatzeko.

Gure ibilbideak hala bermatzen du, ukaezina baita Euskadi lurralde pribilegiatua dela gastronomiaren eta elikaduraren arloan. Ongi jatea eta edatea kulturaren baitakoa da gurean, gure nortasunaren ikur, eta, ageriko izaera soziala izateaz gain, tradizio aldaezinaren eta izaera berritzailearen arteko nahasketa bitxia da. Hain zuzen ere, izaera berritzaile horrek eragin du lurralde txiki-txiki honetako sukaldaritzak mundu osoan arrakasta lortzea, joeren finkatzaile eta munduko goi-sukaldaritzako beste eredu batzuen inspirazio-iturri bilakatuta.

Gure gastronomiak are aitorpen-maila handiagoa izateko ahalegin horretan, Gastronomía eta Elikaduraren Plan Estrategikoaren helburua **Euskadiko elikaduraren eta gastronomiaren urrezko lau arauak (segurua, osasungarria, berezia eta iraunkorra, sozialki, kulturalki, ekonomikoki eta ingurumenaren aldetik)** lantzen jarraitzea eta garatzea da, gaur egungo eta etorkizuneko belaunaldiek ondore horren berri izan dezaten eta gastronomiaren arloan gure balioak transmititzen jarrai dezaten. Izan ere, gure gastronomiaren ezaugarriak dira — eta, beraz, baita elikadurarenak ere— hurbileko produktuarekiko errespetua, sasoi bakoitzean zer jan behar den jakitea, jakintza teknikoa, sormena eta berrikuntza, tradizioaren eta abangoardiaren arteko nahasketa perfektua, eta, jakina, lankidetzak eta elkarlana.

Helburu hori lortzeko, beharrezkoa da Euskadiko gastronomia eta elikadura bultzatu, sustatu eta garatzea, nekazaritzako elikagaien industria eta gastronomia garatuz, betiere oinarri hauetan bermatuta: tokiko produktu kalitatekoa eta osasungarria sustatzea; jasangarritasuna bermatzea, aparteko balio turistikoko proposamen bat sortzea, kultura-, paisaia- eta gastronomia-ondarearen kontserbazioa bultzatzea, eta, jakina, munduan are aitorpen handiagoa lortzea. Hori guztia, baina, ikuspegi berri batetik egin behar da, Elikaduraren Balio Katearen paradigmatik, lehen sektoreko ekoizpenetik elikagaien kontsumoraino, pertsonak —elikagaien kontsumitzaileak— balio-katearen ardatz izanda, eta kontuan hartuta, beti, ekonomiaren, kulturaren eta gizartearen arloko beste sektore batzuekiko erlazioak.

2. EUSKADI GASTRONOMIAREN ETA ELIKADURAREN ARLOAN TOKIKO ETA NAZIOARTEKO ERREFERENTE BIHURTZEKO PLAN BAT

2.1. ELIKADURA ETA GASTRONOMIA, AUKERARAKO LURRALDEA ETA HERRI-ESTRATEGIA

Euskadiko Gastronomia eta Elikaduraren Plan Estrategikoaren printzipio nagusiak, helburuak eta baliabideak biltzen dira dokumentu honetan,. Plana Eusko Jaurlaritzak egin du, eta legegintzaldi honetan Euskadiko Elikaduraren Balio Katea garatzen jarraitzeko apustu estrategiko nagusietako bat da, Euskadiko gainerako ehun sozioekonomikoan eragingo baitu.

Plan hau sektoreko agente eta erakunde eskudun guztien arteko lankidetzaren estuaren emaitza da, eta izaera transbertsala du autonomia-erkidegoko exekutiboan, Ekonomiaren Garapenerako eta Azpiegituretako Sailak gidatuta beste sail batzuk inplikatzeko baititu, hala nola, Turismo eta Merkataritza Saila, Osasun Saila eta Kanpoko Ekintzakoa.

Ekonomiaren Garapenerako eta Azpiegituretako Sailak, legegintzaldiaren hasieratik bertatik, , **aukerako esparrutzat** hartu du **Elikaduraren Balio Katea**, baita **Euskadiko nortasun-ikurtzat** ere, bai gure mugen barruan, bai munduko gainerako lurraldean.

RIS3 Espezializazio Adimenduneko Estrategian (Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren 2020ko Planaren barruko ekimen bat da), hauteman da elikaduraren arloa, jasangarritasunari eta giza inguruneari estuago lotuta, aukerako esparru bat dela eta etorkizun hurbilean aurrerapen handiak egin daitezkeela arlo horretan. Eta plan honekin, egoera hori baliatu nahi da datozen urteetan lehentasun estrategikoetako bat izan dadin elikadura Euskadin, RIS3ren barruan.

Anbizio handiko helburu hori lortzeko, funtsezkoa da Elikaduraren Balio Kateak prestakuntza izatea lagun, Euskadiko elikaduraren eta gastronomiaren sektoreak eboluzionatu dezan eta profesionalizatu dadin; bai lanbide-heziketan (ostalaritza-eskolak eta ostalaritzari, turismoari eta elikagaien industriari lotutako heziketa-zikloak), bai enplegurako prestakuntzan, bai unibertsitate-heziketan (Basque Culinary Center eta elikaduraren sektorearekin lotutako graduak dituzten beste fakultate batzuk, adibidez).

Tresna horien guztien helburua da pertsonen lanbide-kualifikazioa egokitzea, eta, horren bidez, Euskadiko Elikaduraren Balio Katearen eta Gastronomiaren lehiakortasuna eta jasangarritasuna hobetzen laguntzea.

Elikaduraren Balio Kateak, enplegu asko sortzen ditu lehen ekoizpenetik azken kontsumoraino; ekonomiaren hazkundera eragiten du, eta ezagutzan, gure sustraiekiko errespetuan eta jasangarritasunean oinarritutako ekonomia garatzen laguntzen du. Ohiko egiteko moduek zor duten errespetua galdu gabe, sektore tradizionalak teknologia berriekin bateratzeko modua bilatu behar da, balio-kate osoan zehar lankidetzaren-estrategiak sortuz.

Eta, jakina, hori guztia, ahaztu gabe gure elikagaien industriak berebiziko garrantzia duela Euskadiren garapen sozioekonomikoan eta funtsezko trakzio-eginkizuna duela lehen sektorean eta landa-ingurunean. Horregatik, aukera ona da leku horietan enplegua sustatzeko eta finkatzeko eta aberastasuna sortzeko. Ildo horretan sortu zen, 2014. urtean, NIREA egitasmoa, Euskadiko lehen sektorea ekonomikoki indartzeko eta landa-eremua biziberritzeko egitasmoa, eta plan estrategiko honetan hartuko diren konpromisoak ageriko egiteko balioko du.

2.2. ESTRATEGIAK BATERATZEA HELBURU KOMUN BATERAKO

Funtsean, erronka horri heltzeko, sektore publikoaren eta sektore pribatuaren arteko lankidetzaz-estrategiak jarri behar dira abian kate osoan **sektorean jarduera ekonomikoa sustatu eta enplegua sor dadin** eta, aldi berean, Euskadik nazioartean duen lekua eta eragina finka dezan, **gastronomiaren eta elikaduraren arloko erreferentziako lurralde** bihurtuta.

Horrez gain, Eusko Jaurlaritzak XI. legegintzaldirako programan sartutako zeharkako ildo nagusiekin zuzen-zuzenean lotutako erronka ere bada. Lotura du, hala, Euskadi Nazioartekotzeko Esparru Estrategia 2020rekin (Basque Country estrategia), RIS3 Espezializazio Adimenduneko Estrategiarekin (Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren 2020ko Planaren barruan), Turismoa Sustatzeko Estrategiarekin (Euskadi Gastronomika) eta Elikadura Osasungarriaren Euskal Planarekin.

Esaterako, RIS3 Espezializazio Adimenduneko Estrategiaren barruan, azterketa bat egin zen jakiteko zer ekarpen egiten zuten Euskadiko ekonomian elikadurak eta gastronomiak, balio-katearen kontzeptua oinarri hartuta. Eta ondorioztatu zen lehen sektoretik hirugarren sektorerainoko irismena zuela, bai eta zeharkakoa ere beste sektore ekonomiko batzuetan. Emaitzak garbiak eta kontuan hartzeak izan ziren: **balio-kate hori Euskadiko BPGd-aren % 10,56 da, eta zuzenean 96.000 laguni ematen die lana.**

Eta ezin ahaztu elikadurak eta gastronomiak zer beste onura dakartzkion gure herrialdeari, kulturari, bizikidetzari, biodibertsitateari eta paisaiari, osasunari eta ongizateari, zientziari eta teknologiarri, turismoari, eta garapen jasangarriari... gure herrialdearen nortasuna eratzen duten ezin ukitutako alderdiak denak, Euskadi bizi-kalitatearen erreferente bihurtzen baitute munduan.

2.3. ELKARLANAREN ETA LANKIDETZAREN EMAITZA

Plan hau **lankidetzan egindako prozesu parte-hartzaile** baten emaitza da. Prozesua apirilean jarri zen abian eta Elikaduraren Balio Kateko hainbat agentek eta ekimenean inplikaturako instituzioek parte hartu dute. Elkarrekin, egoeraren diagnostikoa egin dugu aukerak identifikatzeko eta helburuak bat etorrarazteko. Helburu horiek ekintzetan eta lankidetzaz-jardueretan hedatuko dira sektorea bultzatu, sustatu eta garatzeko.

Hainbat lan-bilera egin dira eta erakundeen arteko 10 mahai, guztira. Haietan, planaren oinarritzko zutabeak adostu dira. Esaterako: **bertako produktuari lehentasuna ematea, enplegua eta aberastasun ekonomikoa sortzea, balio turistikoko proposamen bat sortuta, zeinak ondare kulturala, paisajistikoa eta lurraldekoa zaintzea ekarriko baitu, Euskadi Basque Country marka nazioartean zabaltzeaz eta sustatzeaz gain, lankidetzaz eta berrikuntzaz printzipioak oinarri hartuta.**

2.4. ANBIZIO HANDIKO HELBURUAK POSIBLE EGITEA

Hauek dira planean ezarritako helburu nagusiak:

- **Euskadin elikagaien ekoizpena handitzea eta elikadurak Euskadiko ekonomian duen pisua handitzea.** Horretarako, bertako produktuetan jarriko da arreta, eta produktu-sorta handituko da, enpresa berritzaile gehiago sortuz, bikaintasun zientifiko-teknologikoa handituz, eta giza kapitala eta gizarte-ongizatea garatuz. Hori lortzeko, lankidetzako berrikuntza sustatuko da, balio-kateko agenteen arteko lankidetzatik sortzen diren proiektuei laguntza emanez eta gastronomiaren eta elikaduraren arloko ekimenak egituratuz eta bateratuz.
- **Euskadik nazioartean duen lekua eta eragina finkatzea,** eta erreferentziako lurraldea bihurtzea gastronomiaren eta elikaduraren arloan. Euskadik kanpoan duen proiektzioak nazioartean espazio propio bat lortzeko balio behar du, bere nortasuna eta balioak proiektatzeko eta haietan sakontzeko, baina, bide batez, lagungarri gertatuko da gizarte-eredu bidezkoagoa eta iraunkorragoa sustatzeko, pertsonen zerbitzura jarrita.
- **Nazioarteko abangoardiarekin loturak ezarri edo haiei eustea,** zenbait arlotan (ekonomikoan, politikoan, sozialean, ingurumenekoan, intelektualean, kulturean, zientifiko-teknologikoan, osasunekoan, eta, jakina, gastronomikoan), ikuspegiak eta jardunbide onak partekatzeko, eta balio gazteak geurera ekartzeko, Euskadiko gastronomiaren eta elikaduraren arloko ekosistemara biltzeko.
- Hori guztia, **lurraldearen garapen jasangarriari eta biztanleen bizi-kalitatea hobetzeari lehentasuna emanda** eta erronkei diziplina anitzeko ikuspegitik helduz: osasuna, elikadura, ohiturak eta bizitza-estiloa kontuan hartuta. Hau da, elikadura eta gastronomia gizarte-arazoei konponbidea bilatzen dien aldaketa-eragile moduan ulertuz.

3. AURREKARIAK ETA TESTUINGURUA

3.1. EUSKADIKO EGOERA SOZIOEKONOMIKOA ETA KONTSUMO-JOERA GLOBALAK

Egoera ekonomikoa

2009. urtera arte, Euskadiko ekonomiak hazkunde jarraitua izan zuen, baina joera hori eten egin zen krisi finantzarioa eta horren ondoriozko krisi ekonomikoa etorri zenean 2009. urtean: atzeraldi ekonomikoa etorri zen, eta 2014. urtera arte iraun du.

2015etik aurrera, ekonomia-hazkundeko aldia hasi da, eta Euskadiko BPGd-ak % 3 inguruko hazkundea izan du. Datozen urteetarako aurreikuspenak ere positiboak dira, baina hazkundea pixka bat motelduko dela aurreikusten da.

Enpleguaren egoera hoberantz doa 2013tik, baina langabezia-tasa handia da oraindik (% 12,5), Jaurlaritzak duen helburutik urrun, 2020. urtean langabezia-tasa % 10etik beherakoa izateko helburua baitu.

Produktibitateari dagokionez, 2013. urtean Euskadik Espainia baino eta EB-15eko batez bestekoa baino produktibitate hobea zuen.

Euskadiko ratioak Espainiako gainerako autonomia-erkidegokoekin, Europako erreferentziako 21 eskualdeekin eta EB-28ko batez besteko balioekin alderatuz, ondorio hauek atera ditzakegu:

- Biztanle bakoitzeko BPGd-ak eta biztanle bakoitzeko errenta erabilgarriak egoera erlatibo ona dute Euskadin. Egoera okerragoa da gizarte-adierazleak erabiltzen badira, epe luzeko langabezia, esaterako.
- Jardunaren tarteko adierazleei dagokienez, Euskadiren egoera ona da estatuko mailarekin alderatuta, baina ez hain ona Europako erreferentziako eskualdeekin alderatuta, enplegu-tasetan eta patenteetan, batez ere.
- Euskadi I+Gra baliabide pertsonal eta finantzario gehien bideratzen duten eskualdeen artean dago, baina berrikuntzako lankidetzaren adierazleetan askoz gorago daude Europako gainerako eskualdeak.
- Euskadik, Europan, eskulanaren kualifikazioari eta I+Gari dagokionez duen posizio ona okertu egiten da tarteko prestakuntza edo lanbide-heziketa duten biztanleen ehuneko txikiagatik, bai eta IKTen arloko tarteko-beheko posizioagatik ere.

Espezializazio ekonomikoaren eta zientifiko-teknologikoaren arloei dagokionez, industrian dauka Euskadik, aldi berean, espezializazio-maila handia eta kanpoarekiko merkataritza-saldo erlatibo positiboa.

Zerbitzu-jarduerei dagokienez, hauek nabarmendu daitezke: ezagutzaren arloko zerbitzu intentsiboak, ikerketa, garapena eta telekomunikazioak.

Euskadik izandako aldaketa sozialak eta demografikoak.

Joera soziokulturalek Euskadiko biztanleen bizitzeko modua eraldatuko dute datozen hamarkadetan, eta behar berriak sorraraziko dituzte, bai eta negozio-aukerak eta enplegua sortzeko aukerak ekarriko ere. Hona hemen joera berri horietako batzuk: bizitza osasungarriarekiko kezka, kontzientzia sozial eta ekologiko handiagoa, indibidualismo handiagoa, eta kulturarekiko eta aisiako jarduerarekiko interes handiagoa.

Elikaduraren Balio Katearen erronka da elikagai seguru eta osasungarriak eta aldi berean kalitate gastronomiko handikoak sortzea.

Euskadik 2 milioitik pixka bat goragoko biztanleria egonkortua du, eta bizi-itxaropen handienetako bat eta jaiotze-tasa txikienetako bat duen gizartea da. Horren ondorioz, egitura demografiko zahartua du: **65 urte edo gehiago dituztenen biztanleria-taldea biztanleria osoaren % 21 baino gehiago da.** Adin-talde horren hazkundeak —aukera da zenbait sektorerentzat, bai eta Elikaduraren Balio Katearentzat ere— presio handia egiten dio gizarte-ongizateko sistemari eta eskulana urriagoa izatea eragiten du. Gaur egungo langabezia-maila ikusita paradoxikoa badirudi ere, Euskadiko enpresek arazoak dituzte eskatzen duten profileko pertsonak lortzeko.

Beste alde batetik, **talentua eskuratzeko** lasterketa globala dago enpresen artean, zein lurraldeen artean, beren erakargarritasuna handitzeko nazioarteko lehia baitute. Egoera hori ikusita, gobernu askok —askotan prestakuntza-zentroak eta unibertsitate-sareak erabiliz— beren herrialdeetara talentu gazteak erakartzeko estrategiak eta ekimenak jarri dituzte abian, etorkizunean lan-indar kalifikatua izango dutela bermatzeko. Elikaduraren eta gastronomiaren arloan ere gertatzen da hori, eta plan horrek ezinbestean heldu beharko dio horri.

Garapen jasangarria

Klima-aldaketarekin lotutako arazoekiko kontzientziarioa handiagoa izateak ekoizpen- eta kontsumo-eredu berri bat garatzea ekarriko du; ekologiarri eta garapen jasangarriari garrantzi handia handiagoa emango dion eredu bat, alegia. Kontuan izan behar da **elikaduraren sektorearen ingurumen-inpaktua nahiko handia dela**: CO₂ gasaren emisioen % 25 eragiten ditu. Horrez gain, elikagaien % 32 bota egiten da, eta ur gezaren % 70 kontsumitzen du. Ekonomia berdearen sustapena behar moduan ikus daiteke, baina aukera ere bada, gizarte-kontzientziario horrek eskatzaile leialagoak eta kaudimen handiagokoak ekarriko baititu.

Azken urteetan, Europar Batasunak ahalegin handia egin du estatu kideen ekonomiak garapen jasangarriko eredu baterantz bideratzeko, baliabideen aprobetxamendu eraginkorra egin dezan. Arlo horretako apustu garrantzitsuenak ekonomia zirkularra kontzeptuarekin lotutakoak dira.

Kontsumo-ohituren aldaketak

Aldaketa handiak eta izugarri bizkorrak gertatzen dira **kontsumo-ohituretan, maila globalean**, Euskadiko gastronomiari eta elikagaiei buruzko estrategiak ezinbestean kontuan hartu beharrekoak. Besteak beste:

- Kontsumitzaileak salgaia merkea nahiago izatetik, horren mende egotera igaro dira.
- Europako kontsumitzaileen % 62k adierazten dute prest daudela gehiago ordaintzeko jasangarritasunaren alde egiten duten marken truke eta tokiko produktuen truke.
- Europarren % 25ek on-line erosten ditu elikagaiak, eta beste % 5ek etorkizun hurbilean hala erostea espero du.
- Mundu urbano batean bizi gara, zeinetan herritarrek elikagaiak baino zerbait gehiago eskatzen baitute (erosotasuna, berehalakotasuna...).
- Europarren % 50ek baino gehiagok gehiegizko pisua du. Gero eta gehiago ari gara urruntzen dieta mediterraneotik eta janariaren inguruko sozializaziotik.
- Familia-unitate gehiago dago, baina txikiagoak dira, eta horrek eskaintza egokitzea eskatzen du, formatuei, errezetak prestatzeari eta abarri dagokionez.

Berrikuntzak Euskadin dituen nondik-norakoak.

Eusko Jaurlaritzak aspalditik eta indar handiz egin du berrikuntzaren alde. Apustu hori 80ko hamarkadan hasi zen, teknologia-zentroen sareak eraikita, eta ibilbide luzea egin ondoren, gaur egungo politiketara iritsi da: espezializazioa (RIS 3), transferentzia teknologikoa, kudeaketa aurreratua eta ekimena.

RIS3 Espezializazio Adimenduneko Estrategia, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren 2020ko Planean islatzen da, eta Europar Batasunak hamarkada honetarako planteatzen duen hazkunde-estrategiarekin bat egiten du. Europako estrategia horrek elkar sendotzen duten hiru lehentasun ditu: **hazkunde adimenduna, hazkunde jasangarria eta hazkunde integratzailea.**

Estrategiak, horrez gain, zazpi «ekimen enblematiko» ere jasotzen ditu, lehentasuneko gai bakoitzean egindako aurrerapenak katalizatuzko:

HAZKUNDE ADIMENDUNA	HAZKUNDE JASANGARRIA	HAZKUNDE INTEGRATZAILEA
BERRIKUNTZA Berrikuntzarako batasuna:	KLIMA, ENERGIA ETA MUGIKORTASUNA: Baliabidek eraginkortasunez baliatzen dituen Europa	ENPLEGUA ETA PRESTAKUNTZA: Kualifikazio eta enplegu berrietarako agenda
HEZKUNTZA Gazteak mugimenduan	LEHIAKORTASUNA Industria-politika bat globalizazioaren arorako	POBREZIAREN AURKAKO BORROKA Pobreziaren aurkako Europako plataforma
GIZARTE DIGITALA: Europarako Agenda Digitala		

«Berrikuntzarako batasuna» hazkunde adimendunarekin lotutako ekimen enblematikoa da. Ia 80.000 milioi euroko aurrekontua du, zientziarako eta berrikuntzarako, 2014tik 2020ra. Europar Batasunean ikerketako eta berrikuntzako jarduerak finantzatzeko programa nagusia da.

“ZTBP Euskadi 2020” ekimenak Europar Batasunak onartutako espezializazio adimenduneko RIS3 estrategia du erreferentzia, ezinbesteko baldintza baita kohesio-funtsak eskuratu ahal izateko 16.

RIS 3, ‘Research and Innovation Smart Specialisation Strategy’, Espezializazio Adimenduna ekimenaren helburua da herrialde eta eskualde bakoitzaren ezaugarri eta aktibo eksklusiboak identifikatzea, abantaila lehiakorak nabarmentzea eta intereseko alderdiak zein eskualdeetako baliabideak bikaintasuneranzko joera duen etorkizun-ikuspegiaren inguruan biltzea, aldi berean, ezagutza-fluxuak maximizatuta.

Euskadirako, **hiru lehentasun estrategiko eta aukerarako lau eremu** identifikatu dira.

Lehentasun estrategikoak

- Fabrikazio aurreratua.
- Energia.
- Biozientziak / Osasuna

Aukerarako eremuak

- Lurralde-plangintza eta hiri-berroneratzea.
- Aisialdiarekin, entretenimenduarekin eta kulturarekin erlazionatutako zenbait nitxo.
- Ekosistemen inguruko jarduera zehatzak.

Elikaduraren gidatze-taldeak oso lan handia egin du Elikaduraren Balio Kateak Euskadiko ekonomiari egiten dion ekarpena kuantifikatzen eta datozen urteetarako lehentasunekoak diren ikerketa-lerroak identifikatzen. Honako hauek dira:

1. Elikadura osasungarria –dieta pertsonalizatua–.
2. Elikagaiak ekoizteko sistema berriak.
3. Garapen gastronomiko berriak ume eta seniorrentzat.
4. Elikadura segurua eta kalitatekoa –kontserbazio-teknologia berriak–.
5. IKTak ekoizpen-, logistika- eta merkaturatze-prozesuetan txertatzea.
6. Ezaugarri berriko elikagaiak, kontsumo-joera berriei egokitutakoak.

Baina RISaren azken edizioan, 2017. urtean egindakoan (**Regional Innovation Scoreboard** http://ec.europa.eu/growth/industry/innovation/facts-figures/regional_es), ikusi da Euskadi berrikuntza handiko eskualdeen artean dagoen arren, okerrera egin duela Europako gainerako eskualdeekiko, 2016ko edizioarekin alderatuz gero. Hauek dira ahulezia nagusiak:

- Berrikuntza ETEetan, dela teknologikoa dela ez-teknologikoa.
- Industria-jabetzaren kudeaketa.

EUSTATEko datuek ere Euskadin I+Garen arloan beherako joera dagoela berresten dute.

Kontuan izanda edozein ekonomiatan I+Garen arloko enpresa-gastua zein garrantzitsua den, eta kontuan izanda **elikadura Euskadiko Espezializazio Adimenduneko Estrategian aukera-arlo moduan identifikatuta dagoela**, beharrezkoa da Gastronomia eta Elikaduraren Plan Estrategikoak arreta berezia ematea berrikuntzari, dimentsioa handitzeko eta Elikaduraren Balio Katea datozen urteetan lehentasun estrategikoa izateko.

3.2. ESPARRU INSTITUZIONALA ETA ARAU-ESPARRUA

Gastronomia eta Elikaduraren Plan Estrategikoa Eusko Jaurlaritzak XI. legegintzaldirako duen programaren oinarri den “Giza Garapen Jasangarriaren” estrategian oinarritzen da. Lau helburu nagusi ditu:

- Enplegua, ekonomiaren suspertzea eta jasangarritasuna.
- Giza garapena, gizarteratzea, berdintasuna eta kalitateko zerbitzu publikoak.
- Bizikidetzeta eta giza eskubideak.
- Autogobernu gehiago eta hobea.

Eta helburu moduan jartzen du langabezia % 10etik behera jaitea, 20.000 lagunek laneko lehen esperientzia izatea, industria Euskadiko BPGd-aren % 25 izan dadin lortzea eta EBko pertsona bakoitzeko BPGd-ren % 125 lortzea.

Helburu horiek 15 plan estrategikotan gauzatzen dira (irudian adierazita daude), eta zenbait plan sektorialen esparru dira.

Hauek dira Gastronomia eta Elikaduraren Plan Estrategikoarekin lotura handiena duten eta elkarreragiteko aukera handiena duten planak:

- Landa Garapen Jasangarriko Plana 2020 (OSOA).
- EIEP Elikadura Industriaren Eraginkortasun Plana (EIEP).
- Ekintzaitzako Erakunde Arteko Plana 2020.
- Industrializazio Plana 2017-2020.
- Euskadi Nazioartekotzeko Esparru Estrategia 2020: Basque Country Estrategia.
- Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana-EZTBP 2020
- EAEko Ingurumen Esparru Programa 2020.
- Ekonomiaren Susperraldiaren eta Enpleguaren aldeko Esparru Programa 2017-2020.
- Euskadiko Turismoaren Plan Estrategikoa 2020.
- Elikadura Osasungarriaren Euskadiko Plana.
- Berrikuntza eta Lankidetzarako Estrategia Bizia (BLEB).

1. eranskinean plan bakoitzaren laburpen laburra dago.

4. ELIKADURAREN BALIO-KATEA

Gaur egun, elikaduraren katea elikagaiaren industriarekin soilik lotzeko joera dago, eta ez da, beraz, egoki interpretatzen elikadura-sistema bere osotasunean.

Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetza Elikaduraren Balio Katearen paradigma berria lantzen ari da, eta ondorioztatu du elikagaien sektoreak, zentzu zabalenean, elikagaiei industria ez ezik beste sektore batzuk ere hartzen dituela: lehen sektorea (nekazaritza, arrantza eta abeltzaintza), banaketa, merkaturatzea (txikizkako merkataritza zein handizkako) eta jatetxeak. Baina horiez gain, beste alderdi batzuk ere sartzen dira elikadura-sistema deritzon balio-kate horretan, hala nola marketina eta hari lotutako zerbitzuak, ikerketa eta hezkuntza (Besch, 1993) (Mauleón, 2014).

RIS3 Espezializazio Adimenduneko Estrategiaren barruan egindako azterketatik, ondorioztatzen da **balio-kate hori Euskadiko BPGd-aren % 10,56 dela eta zuzenean 96.000 pertsonari ematen diela enplegua.**

EKONOMIA ZIRKULARRA MURRIZTEA

BERRESKURATZEA, BIRZIKLATZEA ETA BALORIZATZEA

Ekosistema
jasangarria
k

Ekoizpena

Transformazioa Merkaturatzea

Horeca

Kontsumitzaileak

BPGd-aren % 10,6 eta 96.500 enplegu zuzen.
Sektore estrategikoa Euskadiko ekonomiarentzat,
aukerarako lurralde eta aurkikuntza ekintzaile moduan
definitutakoa RIS3 planaren barruan

Ondoren Elikaduraren Balio Katea osatzen duten sektoreen ekarpen kuantitatiboaren eta ezaugarri nagusien laburpen bat dago.

Elikaduraren Balio Katea osatzen duten sektoreen azterketa zehatza 2. eranskinean dago.

Euskadiko Elikaduraren Balio Katea

<p>LEHEN SEKTOREA</p> <ul style="list-style-type: none">- Aparteko paisaiaren kudeatzaile moduan duen eginkizuna.- 17.390 pertsona enplegatzen ditu, EAE osoaren % 2.- Euskadiko ekonomiaren BPGd-aren % 0,84. Beheranzko joera, aurreko hamarkadatik.- ¾, nekazaritzako, abeltzaintzako eta basogintzako jarduera; ¼, arrantza.- Nekazaritza-ekoizpena: goranzko joera. Abeltzaintza: beheranzko joera txikia eta jarraitua, susperraldi txiki bat 2011tik. Basogintza: beherakada eta susperraldi txiki baten hasiera 2009tik.- Nekazaritzako ustiatuegien % 21 profesionalak dira.- Mahastizaintzako eta ardogintzako azpisektorea, ardi-aziendarena eta fruta-arbolena (sagardogintza): askok bat egin dute jatorri-deiturekin edo kalitate-markekin.- Basogintza-sektorearen garrantzia ingurumenaren eta lurraldearen kudeaketan.- Arrantza-sektoreak Euskadiko BPGd-an duen pisuaren jaitsiera: % 0,31, 2000. urtean, eta % 0,20, 2015. urtean.- Lurzorugatikoa lehia beste jarduera batzuekin.- Gorabehera handiak ekoizpenean eta salmenta-prezioetan.- Nazioarteko lege batzuk bigunagoak izatea edo legeak ez betetzea: lehia desorekatua.- Jardueraren zailtasuna. Genero-desberdintasuna. Belaunaldi-txandaketarik eza eta eskulan kalifikaturik eza.	<p>ELIKAGAIEN ETA EDARIEN INDUSTRIA</p> <ul style="list-style-type: none">- Sektore oso atomizatua. Neurri oso txikia > lehiakortasun-arazoak.- Lehen sektorearen paper dinamizatzailea.- Funtsezko eginkizuna Gastronomía eta Elikaduraren Plan Estrategikoa garatzen eta arrakastaz ezartzen.- Estatuan eta EBn baino pisu txikiagoa duen arren, leku garrantzitsua du Euskadiko industriari: Euskadiko BPGd industrialari ekarpen handiena egiten dieten 6 adarretako bat da; hala, % 6,34ko partaidetza zuen 2015. urtean.- % 2 inguruko pisua du Euskadiko ekonomiaren BPGd-an. Zertxobait ahuldu da azken hamarkadan.- Edarien industriaren kanpo-proiektzioa nabarmendu behar da, salmenta-zifra handienak dituen azpisektorea baita.
<p>MERKATARITZA ETA BANAKETA</p> <ul style="list-style-type: none">- Merkataritza-sektorearen beheranzko joera jarraitua. Elikagaien establezimenduek, berriz, bilakaera positiboa dute.- Merkataritza-sektoreak Euskadin duen dinamismo handia.- Elikadura txikizkako merkataritzaren % 29 da. Mikroenpresen tasa % 97koa da.- Banaketa modernoak, berriz, merkataritza-talde handiak ditu.- Banaketak tentsio koiunturalak eta estrukturalak ditu. Operadore handien kontzentrazioa. Aldaketa teknologikoak, merkaturatze-kanal berriak zabaltzea etab.- Etxeetako elikagaien erosketen balioak % 0,9 egin du gora azken urteetan, baina ez dira lortu krisiaren aurreko balioak.- Supermerkatu eta discount ereduaren gorakada jarraitua. Ohiko dendaren beherakada.- Interneten bidezko elikagaien salmentak gora egin du, baina oraindik oso gutxi garatutako kanala da.	<p>HORECA</p> <ul style="list-style-type: none">- Krisi ekonomikoa dela eta, kontsumitzailea etxetik kanpoko elikadura-gastua murrizten saiatu da.- Horeca kanaleko establezimenduen kopuruak eta salmentek behera egin dute azken urteetan.- Ekonomiaren BPGd-an % 3,81eko ekarpena zuen 2014an, eta % 3,94koa 2009an. <p>GARRAIOA</p> <ul style="list-style-type: none">- Sektorea, krisiaren ondoren, suspertzen ari da pixkanaka, eta balioa % 5,7 handitu du 2015ean.
<p>TURISMOA</p> <ul style="list-style-type: none">- Turismo hartzailearen jarduerak Euskadiko ekonomian duen pisua handitzen ari da pixkanaka, baina turismo igorleak oraindik ere turismo hartzaileak baino pisu handiagoa du.- EAEko turismo-gastua 4.100 milioi €-koa da, eta % 5,9ko ekarpena egiten dio BPGd-ari.- Turismo-establezimenduetan lan egiten dutenen kopuruak % 7 egin du behera 2011. eta 2016. urteen bitartean.- Elikadurak turisten gastuaren % 41 biltzen du, ostatu hartzeko egiten duten gastuaren oso antzekoa.- Euskadira hiri-turismoa egitera etortzen dira nagusiki (% 25). Bigarren lekuan (% 21) gastronomia eta ardoak daude.	<p>KONTSUMOA</p> <ul style="list-style-type: none">- Biztanle bakoitzeko gastua elikaduran: -% 2,1, 2015/2014.- Ohiko erosketa-lekua aldatzen ari da azalera handiagoen mesedetan. eta denda txikien kaltetan. <p>Kontsumo-joerak elikaduran</p> <ul style="list-style-type: none">- Elikadura iragankorra: hiriko bizitza-erritmo berrietara egokitua, elikagaiak edozein unetan eta edonon eskura izanda.- Produktu eta zerbitzu etikoen eta ingurumenaren aldetik jasangarriak direnen eskaria handitu da.- Osasun pertsonalizatuaren aldeko apustua egin da, baita “Nire neurria” kontzeptuaren aldekoa ere.- Konponbide simple eta argiak bilatzea, denbora aurreztu eta bizitza erraztuko diguten konponbideak.- Jatorriak badu garrantzia: Bertakoa eta hurbilekoa nahiago.- Elikadura-esperientzia: Dibertsioa, berrikuntzarekiko erakargarritasuna eta egoera emozionalak bilatzea.- Handitu egin da elikaduraren inguruko partaidetzako kultura.- Kontzientzia: produktu, enpresa eta marka ireki, zintzo eta enpatikoagoen aldeko apustua.

4.1. ELIKADURAREN BALIO-KATEAREN ETA BESTE ARLO BATZUEN ARTEKO ERLAZIOAK

Elikaduraren Balio Katearekin lotura estua duten sektoreez gain, ez da ahaztu behar zer erlazio dagoen elikaduraren eta gastronomiaren eta kulturaren, biodibertsitatearen eta paisaiaren, osasunaren eta ongizatearen, zientzia eta teknologiaren eta hezkuntzaren artean.

Gastronomiaren eta elikaduraren katearen “balioa” alderdi ekonomikoez harago doa, eta kontuan eduki behar dira beste alderdi batzuk ere, gizartearen, kulturaren eta ingurumenaren arlokoak, esaterako.

Elikadura – Osasuna

Elikadura osasungarri eta orekatuak zuzenean eragiten du gure osasunean eta ongizatean, eta gaixotasun asko prebenitzen laguntzen du, bai eta bizitza-itxaropen handiagoa eta kalitatea handiagokoa izaten.

Osasuna sustatzeko ardura duten erakundeek funtsezko jardueretako bat elikadura osasungarriaren sustapena da.

Euskadiko 2013-2020 Osasun Planak, 5.2.- Osasuna eta elikadura helburuan hau ezartzen du: “Elikadura osasuntsuaren estrategia diseinatu eta ezartzea Euskadiko biztanleentzat, betiere kontsumo-patroietako desberdintasun sozialak eta genero-desberdintasunak kontuan hartuta”.

Egin beharreko ekintzen artean, hauek daude: Euskadiko biztanleei elikaduraren gaineko gomendioak ematea; kalitateko elikadura osasuntsu, fresko eta anitza eskuratzeko erraztasuna ematea; elikadura-ohitura osasuntsuen gaineko ikerketa eta berrikuntza sustatzea; eta sektoreen arteko lankidetzaren hobetzea, azukre, gatz eta gantz asean kontsumoa murrizteko.

RIS3 Espezializazio Adimenduneko Estrategia abian jartzean, ikusi zen gurutzatzeak gertatzen zirela gidatze-taldeek interes komuneko arloen artean, eta horietako bat elikaduraren eta osasunaren artekoa zen. Hala, Euskadin gaitasun zientifiko-teknologikoak sustatzen ziren.

Elikadura – Kultura

Jaten dugunaren eta hura jateko moduaren ezagutza arrazoitua da “Gastronomia”. Diziplinarteko ezagutza-arlo bat, prozesu fisiko-kimikoak, kulturalak eta sozioekonomikoak aztertzen eta sortzen dituen, non gizakiak bere ongizate fisikoari, mentalari eta sozialari eragiten dioten elikagaiak eta edariak landu, prozesatu, banatu eta kontsumitzen dituen.

Lurralde baten kultura eta bizimodua ezagutzeko funtsezko elementuak bihurtu dira elikadura eta gastronomia. Eta ezin bazterrean utzi gure kulturaren hain **garrantzitsuak eta bereziak** diren alderdiak, hala nola “poteoa” eta “pintxoak”, eta **“sozietate gastronomikoak”**, noski, aparteko fenomenoak baitira munduan, eta **gizarte-kohezioko elementu bilakatuak**.

Ekoizpen-jarduerekin zuzenean lotutako iraganari uztartuta eratutako **ondare material** baten inguruan hezurramitzen da Euskal kulturaren nortasuna (baserria, landa-paisaia eta arrantzarekin lotutako paisaia, artzaintzarekin lotutako artisautza...) baina baita **ondare ukiezin** baten inguruan ere: hizkuntza, elezaharrak, folklorea, festak, kirola... nekazaritzako edo arrantzako jardueretara garamatzate horiek guztiek, eta gastronomia elementu integratzailea eta lehentasunezkoa izan da haietan, beti. Ezin ahaztu, ezta ere, elikadura-produktu tradizionalak; askotan, gainera, bertako zein Europako kalitate-ziurtagiriaren bermepean ekoiztiak.

Gastronomiaren eta Elikaduraren Plan Estrategiko honetan, diziplinarteko ahalegina egingo da **ondare materialarekin eta ukiezinarekin lotutako jarduerak identifikatu eta jasotzeko**, Euskadiko gizartearen esku utzi eta ezagutza hori ageriko egiteko.

Elikadura – Ingurumena

Gaur egun, munduko elikadura-sistema lurreko biodibertsitatearen galeraren % 60ren eragile da, berotegi-efektuko gasen emisioaren % 24 ingururena, hondatutako lurzorua % 33rena, arrain komertzialen ustiapen erabatekoaren edo gehiegizko ustiapenaren % 90ena, eta baliabide akuiferoen % 20ren gehiegizko ustiapenarena.

Hori dela eta, elikadura mundu osoko agenda politikoen gai nagusietako bat da, Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren helburuen bidez (NBE, 2015). Bi helburu zuzenean lotuta daude elikadurarekin: 2. helburua, “Gosea amaitzea, elikagai-segurtasun eta elikadura hobea lortzea, eta nekazaritza jasangarria bultzatzea” eta 14. helburua, “Ozeanoak, itsasoak eta itsas baliabideak mantentzea eta modu jasangarrian erabiltzea garapen jasangarriari begira”.

Europar Batasunaren Ingurumenaren arloko Ekintza Programak (7. programa) elikaduraren sektorearen ekoizpenak eta kontsumoak sortutako inpaktu globalak murriztea du helburu. Horretarako, kontsumo-ereduak eta bizitzeko erak aldatzea eskatzen du, ekoizpenak eta kontsumoak sortzen duen ingurumen-inpaktu globala murrizteko, elikaduraren, etxebizitzaren eta mugikortasunaren sektoreetan, bereziki (EB, 2013).

FAOren garapen jasangarrirako 2030 agenda eta EBren 7. programa erreferentzia moduan hartzeaz gain, plana Europar Batasunaren ingurumenaren arloko politika, estrategia eta ekintza planekin lerrokatu beharko dugu. Esaterako, hauekin:

- EUROPE 2020 STRATEGY
- EU ACTION PLAN FOR THE CIRCULAR ECONOMY (COM/2015/0614 FINAL)
- DIRECTIVE 2010/75/EU ON INDUSTRIAL EMISSIONS (INTEGRATED POLLUTION PREVENTION AND CONTROL).
- THE ECO-INNOVATION ACTION PLAN (COM/2011/0899 final)
- GREEN ACTION PLAN (GAP) FOR SMES
- SUSTAINABLE CONSUMPTION AND PRODUCTION AND SUSTAINABLE INDUSTRIAL POLICY (SCP/SIP) ACTION PLAN
- THE FLAGSHIP INITIATIVE FOR A RESOURCE-EFFICIENT EUROPE UNDER THE EUROPE 2020 STRATEGY
- THE ROADMAP TO A RESOURCE EFFICIENT EUROPE (COM (2011) 571)
- BIOECONOMY STRATEGY: “INNOVATING FOR SUSTAINABLE GROWTH: A BIOECONOMY FOR EUROPE”.

Euskadin indarrean dagoen Ingurumen Esparru Programa (2015-2020) ekimenaren baitako Elikadura Zirkularra proiektu nagusiak helburu hau du: **elikadurarekin lotutako jardueren eragina optimizatzea, bere eragin ekologikoa gutxituz eta kapital naturalaren stocka indartuz bere jardunari esker.**

Hauek dira landu beharreko gai nagusiak: nekazaritza-ereduaren eraldaketa; nekazaritza-produktuak eraldatzeko eta banatzeko modu berriak; bertako produktu jasangarrien merkatuaren aktibazioa; azpiproduktuen aprobetxamendua eta hondakinen minimizazioa; eta ikerketa eta monitorizazioa.

Proiektuaren helburua da nekazaritza-eredu berri bat bermatzea 2020. urterako, Euskadin elikagai-jarrera arduratsuak sustatu eta bideratu ditzan ingurumenarekiko errespetuz jokatzuz.

5. HAUSNARKETA-PROZESU PARTE-HARTZAILEA ETA INTEGRATZAILEA

Gastronomiaren eta elikaduraren arloko estrategia **Herri-estrategia** integratzaile bat definitzeko beharri erantzuten dion tresna da, eta zuzenean gastronomiaren eta elikaduraren arlokoak diren errealitate sektorialen eta sektorearekin estu lotutako beste errealitate batzuen isla da. Horregatik, beharrezkoa da aukerak identifikatu eta helburu komunak lerrokatzea, elkarrekin eta lankidetzan eraikitzen jarraitzeko, baina, betiere, **dagoeneko eginda dagoen horretan oinarrituta**, sektore indartsu, lehiakor eta jasangarria bultzatu, sustatu eta garatzeko.

Horrez gain, zehaztutako strategiak ekintza eta lankidetzaproiektu zehaztutan gauzatuko dira; hau da, **praktikoa eta aplikagarria** izango da. Horri esker, hazkunde-maila handiagoak lortzeko aukera izango da eta enplegua sortuko da; horrek guztiak jasangarritasun-maila handiagoa emango dio, eta, hortaz, ongizate handiagoa Euskadiko biztanle guztiei.

Apirilaren 3an abiarazi zen Euskadiko Gastronomia eta Elikaduraren Plan Estrategikoa: lan-jardunaldi **parte-hartzaile** batzuk egin ziren kursaalen, elikaduraren balio-katearen katebegi guztien ordezkariekin. Jardunaldi horietan 170 lagun inguruk parte hartu zuten, eta sektorearen lehen diagnostikoa eta planak bere baitan hartu beharreko ekintzen edo proiektuen zirriborroa egin zen.

Jardunaldiaren ondoren, apirilean zehar, planaren kudeaketa-egitura zehazteko lanari ekin zitzaion, bai eta oinarriko dokumentazio guztia identifikatzeari ere: eragileak, informazio estatistikoa, eta aurretik zeuden plan estrategikoak. Horrez gain, herri-estrategia honen ardatz diren ekonomiaren, gizartearen, kulturaren eta erakundearen arloko eragileen kontsulta-prozesua eta parte-hartzeko prozesua zehaztu zen.

Prozesu parte-hartzaile eta integratzaile horri esker, egindako diagnostikoa baliozkotu ahal izan da, batetik, eta plana osatuko duten jarduerak zehaztu, bestetik. Parte-hartze prozesua elkarriketa pertsonalak, bilera sektorialak eta sektore arteko bilerak eginez gauzatu da.

Sektorearen transbertsalitatea ikusita, prozesuak hainbat profiletako eragileak bildu eta haien iritzia jaso du, Euskadiko gastronomiaren eta elikaduraren etorkizunari buruzko hausnarketa sustatzeko asmo sendoarekin.

Prozesu orokorrak 300 lagun baino gehiago bildu ditu, enpresa-arlokoak, hezkuntza-arlokoak, arlo zientifiko-teknologikokoak, osasunaren-arlokoak, berrikuntzaren arlokoak, bai eta Euskadi-Basque Country markaren nazioartekotzearen eta posizionamenduaren arlokoak ere.

Prozesu honetan ehunka lagunek parte hartu dute, haien artean, Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetzako ordezkariak, Turismo eta Merkataritza Sailburuordetzak, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru-aldundiek, sektoreko elkarteak, ekoizle txikiak, sindikatuek, ekoizpen- eta merkaturatze-enpresek, azokek, ostalaritza-eskolek, Basque Culinary Centerrek, sukaldariak, ikerketa-zentroak, berrikuntza-agenteak eta kontsumitzaile-elkarteak.

Gaikako hamar kontraste-mahai egin dira, alor hauetan: i) turismoa, ii) jatetxeak eta ostalaritza, iii) lehen sektorea, iv) elikaduraren eta edarien industria, v) posizionamendua nazioartean, vi) ondarea eta kultura, vii) prestakuntza, viii) merkaturatzea, ix) berrikuntza, x) beste ekimen batzuk elikaduran, eta xi) ospe handiko euskal sukaldariak. Quorumik ez zegoelako, elkarrekin bildu ziren prestakuntza eta ondarea eta kultura taldeak.

	DEITUTAKOAK	BILDUTAKOAK	BILDUTAKOEN %
PRODUKTUA LEHEN SEKTOREA	32	26	% 81,3
TURISMOA	30	20	% 66,7
OSTALARITZA ETA JATETXEAK	25	20	% 80,0
ELIKADURAREN ETA EDARIEN INDUSTRIA	27	14	% 51,9
POSIZIONAMENDUA NAZIOARTEAN	22	15	% 68,2
MERKATURATZEA	25	18	% 72,0
BESTE EKIMEN BATZUK ELIKADURAN	24	17	% 70,8
KULTURA ETA PRESTAKUNTZA	45	18	% 40,0
BERRIKUNTZA	16	14	% 87,5
GUZTIRA	246	162	% 65,9

Horrez gain, elkarrizketa pertsonalak egin dira kontraste-talderen batean parte hartu ezin izan duten baina planari beren errealitatearen berri emateko interesa zuten eragileekin.

Azpiratu behar da, halaber, hausnarketa-prozesuan zehar Eusko Jaurlaritzaren sailarteko batzorde bat deitu dela, elkarlanean jardun eta lanaren jarraipena egiteko.

5.1 EUSKADIKO GASTRONOMIAREN ETA ELIKADURAREN ERRONKAK

Egindako diagnostikotik abiatuta, Euskadiko gastronomiaren eta elikaduraren AMIA azterketa labur bat duzue, laburpen gisa:

AHULEZIAK

MEHATXUAK

BARRUKOAK		INGURUNEA	
A1	Lurralde-administrazio eta administrazio zentral konplexua, eta erakunde arteko eta erakunde barneko lankidetzarik eza.	Lehia handitzea beste eskualde batzuekin nazioartean, estrategia lehiakorragoak abian jarri dituztelako. Globalizazioa sektore guztietan.	M1
A2	Sektore oso atomizatua	Aldaketak kontsumo-ohituretan eta -joeretan.	M2
A3	Nekazaritza-ekoizpen txikia eta sasoikoa.	Mitoak eta modak, inolako egiaztatze zientifikorik gabe (esnekiak, haragi gorria etab.)	M3
A4	Lehia-maila txikiegia zenbait sektoretan. Errentagarritasun txikiko ustiategiak. Ekoizpen-kostu handiak (eskulana, elikadura-kostuak etab.).	Identitate-galera, globalizazioaren eraginez (fast food etab.).	M4
A5	Belaunaldi-txandaketarik ez izatea. Lan egiten duten pertsonen batez besteko adin handia eta enpresa-kopurua murriztea.	Arautze handiegia (kalitate-protokoloetan exijentzia handia), eta, horren ondorioz, araudirik betetzen ez duen produktu asko.	M5
A6	Ekintzailerik eza.	Titularren adin handia sektore batzuetan. Belaunaldi-txandaketarik eza eta aholkularitzarik ez izatea horri heltzeko.	M6
A7	Kultura indibidualista. Lankidetzeta eta elkarlan gutxi balio-kateko katebegien artean. Ikuspegi orokorrik eza eta interes komunik eza.	Erakargarritasun txikiko sektorea belaunaldi berrientzat.	M7
A8	Aniztasun txikia erreferentziei eta formatuei dagokienez (gaztak, mota gutxi etab.).	Finantzatzeko zailtasunak. Eskura dauden tresnekiko ezjakintasuna.	M8
A9	Hezkuntza-egiturak Euskadiko bertako produktuarekiko konpromiso handiagoa ez izatea.	Prezioa kalitateari lehenestea. Kontsumitzailea ez egotea gehiago ordaintzeko bertako eta kalitateko produktu baten truke.	M9
A10	Profesionalizatorik eza enpresen arlo komertzialean. Ez dakigu gure produktua ondo saltzen. Komunikaziorik eza sektorean.	Negozioek jarraitzea bermatuko duten profesionalik ez izatea.	M10
A11	Prestakuntza ez egotea sektorearen beharrekin lerrokatuta.	Bertako kultura gastronomikoaren transferentzia galtzea, eta, horren ondorioz, gure balioen benetakotasuna galtzea.	M11
A12	Nekazaritzako lehiakortasuna eta arrantza- eta akuikultura-lehiakortasuna mugatzen duten baldintza naturalak (orografia etab.). Espazioagatiko lehia beste jarduera batzuekin.	Herrialde esportatzaileen kanpoko legediak lausoagoak izatea edo ez-betetzea onartuta egotea: lehia desorekatua.	M12
A13	Berrikuntzan eta I+Gan apustu txikia egitea. Diru-laguntzekiko mendekotasun handia.	Kontsumitzaileak nahastea, merkatuan produktuen identifikazioan iruzurra egiten delako.	M13
A14	Lehengaien eta elikaduraren frakzio handiak eta aprobetxatzen ez diren azpiproduktuak, bota egiten direnak: elikagai-xahutzea.	Natura-baliabideen gehiegizko ustiapena, klima-aldaketa eta ingurunea kutsatzea: baliabideak (lehengaiak, hornidurak eta abar) eskuragarri izateko kezkek eta haien prezioa.	M14
A15	Dietak biztanlerian eragindako arazoak behar beste ez ezagutzea eta inplikazio txikia izatea. Elikaduraren eta gastronomiaren arloko profesionalak prestakuntzarik ez izatea nutrizioan eta osasunean.		
A16	Objektibotasunik ez izatea, bertako produktuak eta haien deribatuek ekoiz daitezela sustatzeko.		
A17	Zenbait arlotako informaziorik ez integratzea (osasuna, ingurumena, ekoizpena...).		
A18	Erakunde logistikoa eta komertzial sendorik ez izatea.		
A19	Bertako produktuak sektore gastronomikoko hornitzaile moduan duen presentzia hobetzeko modukoa izatea.		

INDARRAK

AUKERAK

BARRUKOAK		INGURUNEA	
I1	Kultura gastronomikoa euskal nortasunaren ikur.	Kontsumitzaileek eta administrazioak gero eta sentsibilitate handiagoa dute osasunari dagokionez: obesitatea, alkoholismoa, kolesterola, gantz aseak eta trans gantz-azidoak, azukrea eta abar.	A1
I2	Bertako produktua kalitatekoa izatea eta hazkunde-ahalmena edukitzea.	Bertako produktua kontuan hartzen duten kontsumitzaileak ugaritzea. Bertakoarekiko moda aprobetxatzea. Hazten jarraitzeko aukera.	A2
I3	Administrazioak sektoreari laguntzea eta bidean berekin joatea.	Sektorea ageriko egitea eta balioestea. Sektorearen komunikazio handiagoa. Duintzea.	A3
I4	Kontakizuna duten produktuak. Tradizioa eta egiten jakitea.	Sektorearentzat etorkizuneko publiko objektibo bat egotea (milennialak, hirugarren adinekoak etab.).	A4
I5	Kalitateko produktuak eta jatorri berezi egiaztatua dutenak, ongi posizionatuak (Eusko Label, Euskal Baserri etab.).	Sormen gastronomikoa eta ezagutza zientifiko eta teknologikoa uztartzea, bereizteko aukera emango diguten proiektu berritzaileak egiteko.	A5
I6	Euskadiko produktuak ongi ikusita eta aitortuta egotea, egindako merkataritza-jardueren ondorioz (enpresak, administrazioa, gastronomia etab.).	Elikadura-sektorea estrategikotzat jotzea eta balio ekonomikoaz haragoko aitortza lortzea (landa-ingurunean, paisaian, kulturean, biztanleriaren osasunean eta abarretan duen eragina).	A6
I7	Euskadiren irudi ona barruan eta kanpoan. Herri-marka. Irudi ona baina gutxi ezagutua.	Salmentak handitzeko potentziala, balio erantsi handiagoko produktueta eta produktu-dibertsifikazioa.	A7
I8	Entzute handiko euskal gastronomia, gure irudiaren komunikatzaile ona eta trakzio-eginkizuna duena, bai kanpoan bai barneko merkatuan.	Sektoreen arteko sinergiak bilatzea. Proiektuak sortzea balio-kateak egituratuz. Diziplina anitzeko kooperazioa sustatzea sektorean, eta taldean lan egiteko ahalmena garatzea.	A8
I9	Teknologia-zentro propioak. Ikerketako, berrikuntzako eta prestakuntzako azpiegiturak egotea eta irudi ona izatea (AZTI, BCC etab.).	Merkataritza-hazkundera izateko aukera tokiko merkatuan. Sektorearen, merkatuaren eta kontsumitzailearen arteko hurbiltasuna baliatzea.	A9
I10	Euskadiko gizarteak oro har bere egiten dituen balioak: ahaleginaren kultura, profesionaltasuna, ekintzailtza, sormena, berrikuntza eta pertseberantzia.	Erakunde logistikoa eta komertzial sendoak sortzea.	A10
I11	Gizarteratze-maila eta laneko segurtasun-erosotasun onargarria.	Euskadi, oro har, indarrez sartu da turismo enogastronomikoaren merkatuan (masifikatuta ez dagoen eta hazten jarraitzeko aukera duen merkatua da).	A11
I12	Ongi finkatuta dagoen klusterra izatea, sektorearen artean lankidetzaren handiagotzea eta sinergiak egiteko aukera ematen duena.	Produktua eta gastronomia sustapenaren ardatz gisa erabiltzea, sektore osoa (nekazaritza, industria eraldatzailea, turistikoa, gastronomikoa etab.) ageriko egiteko. Turismoa salmenta-sareko tresna modura baliatzea. Gourmet turismoa.	A12
		Komertzialei, saltzaileei eta ostalariei prestakuntza ematea bertako produktuei buruz eta, oro har, Euskadiko elikadura- eta gastronomia-sektoreari buruz.	I13
		Ingurumen- eta gizarte-arazoak munduan: kontsumitzaileek gero eta garrantzi handiagoa ematea elikagaia lortzean izaten den ingurumen-portaerari eta portaera sozial-etikoari.	A14
		EAEn teknologiak eta konponbideak izatea produktuen efizientzia eta balio-handitzea hobetzeko.	A15

Aurreko guztitik, **eta pertsonak —elikagaien kontsumitzaileak— balio-kate osoaren ardatz izanda**, ondorioztatzen da Euskadiko gastronomiak eta elikadurak datozen urteetan erronka hauei aurre egin beharko diela:

- Elikadura-sistema berriak, seguruagoak eta jasangarriagoak.
- Prozesu efizienteagoak eta automatikoak
- Elikadura osasungarria eta komenentziakoa
- Omnikanalitatea
- Lankidetzaren, enpresa-masa kritikoa handitzeko
- Tokiko, estatuko eta nazioarteko merkatuak garatzea
- Euskadiko enpresa-iraunkortasuna eta erabakizentzitateak
- Enpresa-ekintzaitza eta enpresa berrien sorrera

PERTSONAK

- Enpresa irekiak eta kontsumitzaileekin konektatutakoak
- Nazioarteko erreferentzia-sistema nazioartean sustatzea, triangulu honetan oinarrituta: Elikadura-Gastronomia-Turismoa
- Gastronomiaren eta elikaduraren balio-katea balioestea
- Kultura gastronomikoa
- Negozio-ereduetako berrikuntza
- Pertsonak kudeaketa aurreratuan prestatzea
- Talentua sustatu eta erakartzea

1. Elikadura-sistema berriak, seguruagoak eta jasangarriagoak

Munduko ingurumen-arazoen (klima-aldaketa, natura-baliabideen gehiegizko ustiapena, ingurumenaren kutsadura...) gizakien bizikaltateari eragiten diete oro har eta elikadura-sistemei, bereziki. Gero eta mehatxatuago dago elikagaiak arrazoizko kostuan eta denboran modu jasangarrian ekoizteko, egiteko eta hornitzeko aukera.

Horrez gain, elikagaiak ekoizteko, eraldatzeko, egiteko eta merkaturatzeko moduek gizartean eta kulturetan duten inpaktuak gero eta interes handiagoa sortzen du gizartean.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak garatu ahala, elikagaiak alferrik galtzeko kezkak eta ingurumenarekin eta gizartearekin lotutako beste ardurak batzuk sortu ahala, eta trazabilitatea eta segurtasuna bermatuta duten eta gertuko ekoizpena duten produktuak kontsumitzeko eskaria areagotu ahala, handitu egin da balio-kate osoan ekoizpen-sistema berriak eta hobeak izateko eskaria, ingurumen-erloto eta gizarte-erloto joera berriei erantzuten laguntzeko. Eta horrek, jakina, negozio berrietarako aukera ematen du.

Euskadiko enpresak aurrera egiten ari dira bide horretan, baina bide luzea dute egiteko, oraindik. Doitasunezko nekazaritza eta abeltzaintza, barietate eta espezie berriak ekoiztea, antibiotikorik eta beste kutsatzailerik ez duten elikagaiak ekoiztea, itsas zabaleko edo zirkuitu itxiko akuikultura, HORECA kanalean elikagaiak ekoizteko eta banatzeko sistema jasangarriagoak; horra hor sektoreko enpresa eta profesionalentzako erroka eta garapen-aukeretako batzuk.

2. Prozesu efizienteagoak eta automatikoak

Gure enpresek, balio-kate osoan, ekoizpen-prozesuak hobetzen jarraitu behar dute, prozesuaren fase guztietan: lehengaien erosketak, transformazioa eta egitea, logistika eta banaketa.

Ekoizpen-prozesuen automatizazioa eta modernizazioa funtsezko eragileak dira produktuen kalitatea hobetzen jarraitzeko, kostuak eta entrega-epeak murrizteko, trazabilitatea bermatzeko, bezeroen eskari aldakorrei malgutasun handiagoaz egokitzeko, eta edozein merkatutan lehiatu ahal izateko.

3. Elikadura osasungarria eta komenentziakoa

Balio erantsi handiagoa duten elikagai-kategorietarantz jotzea Euskadiko gastronomiako eta elikadurako enpresa guztien erroka da. Gaur egun —eta areago etorkizunean— elikagai osasungarrien eta komenentziako ezaugarriak dituztenen segmentuak hazkunde-ahalmen handiena dutenetako bi dira.

Gaur egungo kontsumitzaileak gero eta exijentzia handiagoak ditu; hala, **zentzumen-kalitate berezituko aparteko produktuak eskatzen ditu, bere komenentzia-beharrak betetzen dituzten produktuak: erosoak eta prestatzeko errazak eta azkarrak.** Eskakizun horiei erantzun ahal izateko, beharrezkoa da teknologietan eta konponbideetan berritzaile izatea, komenentziako elikagaien belaunaldi berri bat sortzeko, zentzumen-kalitatea eta osasuna ezaugarri dituztenak.

Eta hauxe da balio erantsi berezitua sortzeko gakoetako bat: biztanleria osoari eta, bereziki, sektore ahulenei (hots, haurrak eta hirugarren adineko pertsonak, nutrizio behar desberdinak eta osasun-arazo bereziak dituztenak) zentzumenen aldetik erakargarriak diren konponbideak eskaintzea. Horrek zera dakar:

ekoizpen-prozesuak eta sukaldaritza-prozesuak garatu eta hobetzea, janarien nutrizio-profil hobea lortzeko biztanleriaren nitxo horietarako. **Haurrei dagokienez, obesitatearen prebentzioa eta garapen kognitiboa bultzatzeari emango zaio lehentasuna; eta, hirugarren adinekoei dagokienez, arreta berezia jarriko da haientzako moduko testura egokitu eta aberastuak eratzeko eta haien nutrizio-profilari egokitutako konponbide berriak eskaintzeko.**

Zientziak frogatutako gauza da osasuna eta elikadura lotuta daudela, eta merkatuak ere badaki hori. Balioestearen arloan, iraultza handia izango da pertsonen elikadura osasungarria eta pertsonalizatua ematea. Dieta pertsonalizatuaren helburua da osasuntsu hazten laguntzea eta zahartze aktiborako konponbideak ematea. Hori egiteko aukera bakarra da dieta pertsonalizatua osatzen duten faktoreak integratzea, hasi alderdi psikologikoetatik eta buka premia biologiko oinarritzkoenetan. Beharrezkoa da elikagaien osagai batzuen eta gaixotasunen arteko lotura ikertu eta frogatzea, behar espezifikoak aseko dituzten produktuak eta zerbitzuak garatzeko, pertsonen edo biztanleria-taldearen prebentzioaren ikuspegitik.

4. Omnikanalitatea

Digitalizazioarekin, pertsonen enprekin zenbait kanal aldi berean erabiliz dute elkarrekintza. Kanal aniztasuna omnikanalerantz doa, bezeroak elkarrekintza homogeneous izan dezaten, edozein kanal erabiltzen duela ere. Horregatik, enpresek esperientzia digital sendoa eskaini behar dute, ezinbestean, informazioari, erosketei edota zerbitzuei dagokionez; esperientzia osoagoa eta erakargarriagoa, bezeroen espektatiba handiak gainditu ere gaindituko dituen. **Omnikanalitateak erdigunean jartzen du bezeroa, eta ikuspegi integral bat egiten du, bezeroekiko elkarrekintzaren arlo guztietan aurrera egiteko.** Horren bidez, zera lortzen da: bezeroek hobekuntza nabarmena hautematea enprekin dituzten harremanetan, eta haien fidelizazioa hobetzea, hartara enpresek bezero gehiagorengana eta merkeago iristeko eta bezeroen beharrei aurrea hartzeko aukera izan dezaten, haien jarrerari buruzko informazioa dute eta.

5. Lankidetzak, enpresa-masa kritikoa handitzeko

Eusko Jauriaritzak lankidetzak beti lehentasuntzat hartu duen arren eta sektoreko eragileen nahia ere horixe izan den arren, egiaztatu da **enpresen arteko lankidetzak** (dela balio-katea egituratuz, dela katearen katebegi bereko eragileen arteko lankidetzak) **potenzial handia eta sinergia garrantzitsuak dituela lehiakorrago izateko**, baina aldi berean zailtasun handiak ere badakartzala, lankidetzak egonkorra izan eta lankidetzari ahalik etekin handiena ateratzeko.

Gero eta beharrezkoagoa da aliantzak egitea balio-katean eta sektore publikoaren eta pribatuaren artean, hala eskatzen baitute bai elikaduraren banaketaren globalizazioak baita lehiakideen tamaina handiak ere. Izan ere, aliantzak ezinbestekoak dira berrikuntzan eta teknologien garapenean dauden erronkei arrakastaz heltzeko, eraginkortasuna eta jasangarritasuna hobetzeko, merkatuak garatzeko eta talentua sustatzeko eta erakartzeko.

6. Tokiko, estatuko eta nazioarteko merkatuak garatea

Zenbait urte iraun duen krisiaren eraginez barne-merkatuak atzera egin duela ikusita, enpresek ahalegin handiagoa egin dute estatuko eta nazioarteko bezeroak lortzeko, eta, bereziki, ostalaritzaren eta jatetxeen arloan. Tentsio horrek etorkizunean ere jarraitu behar du, bezeroen fidelizazioa lortzeko; izan ere, badakigu jakin digitalizazioaren garapenak eta banaketa-kanalean operadore globalek aldaketa globalak ekarriko dituztela merkaturatze-sistematan, nahiz eta gaur egun nekez aurreikus ditzakegun aldaketa horien nondik norakoak.

Zirkuitu laburreko tokiko produktuen eskaria gero eta handiagoa izanik, aukera hori baliatu beharra dute Euskadiko gastronomia eta elikaduraren arloko enpresek. Horretarako, tresnak eta konponbideak eman behar zaizkio sektore horri (kalitatea, berezitasuna, osasuna eta jasagarritasuna), euskal jatorri horrez gain argudio sendo eta fidagarriak izan ditzan.

7. Euskadiko enpresa-iraunkortasuna eta erabaki-zentroak

Krisiak iraun duen urteetan, balio-kate horretako enpresen errentagarritasunak beherakada handia izan du, eta, askotan, emaitza negatiboa ere bai. Eta, horren ondorioz, okerrera egin du egoera ekonomiko-finantzarioak, eta behera egin dute akziodunen zein langileen etekinek, eta, kasu larrietan, enpresak desagertu ere egin dira. Egungo egoera ekonomikoan, ekonomiaren susperraldia gertatzen ari den honetan, enpresek **ratio ekonomikoak hobetu behar dituzte, zorrak gutxitu, finantza-sendotasuna berreskuratu eta baliabide nahikoak sortu**, etorkizuneko inbertsio-beharrei aurre egiteko eta akziodunei eta langileei ordainsari justua emateko.

Euskadiko ekonomiaren beste sektore batzuetan gertatu den bezala, erabakiguneak galdu ditu elikaduraren industriak. Eta etorkizunean areagotu egin daiteke joera hori; horrenbestez, ezin da gutxietsi. Horregatik, Euskadiko enpresak garatzeko eta errotzeko lana egingo du Eusko Jaurlaritzak.

8. Enpresa-ekintzailtza eta enpresa berriak sortzea

Gastronomiaren eta elikaduraren sektorea hazkunde-ahalmen handiko sektorea da, eta Euskadira inbertsioa eta enpresa-talentua erakartzeko lan egin behar dugu. Egungo ekosistema baliatu behar da, prestakuntza gastronomikoa, berrikuntza eta ikerketa ardatz hartuta erreferentziako ekosistema bilakatu baita nazioartean; baliagarri zaigu, bada, **gazteen artean ekintzailtza sustatzeko, oinarri teknologikoko enpresa berriak sortzeko eta atzerriko inbertsioa** ekartzeko gure lurraldera.

9. Negozio-ereduetako berrikuntza

Kontsumitzaileak digitalizatu ahala, lehengaien merkatua globalizatu ahala eta gure merkatuetan lehiakide globalen presentzia handitu ahala, elikagaiak ekoitzi eta merkaturatzeko teknologien garapen ezin geldituzko honetan, funtsezkoa da **negozio-ereduetan malgutasuna izatea** merkatuek eskatzen duten **etengabeko aldaketei egokitzeko**. Enpresa-antolakuntzek eta pertsonak prest egon beharko dute aldaketa horiek nor bere egiteko, zenbaitetan gaur egungo ereduak errotik irauli arren.

10. Talentua sustatzea eta erakartzea, eta pertsonak kudeaketa aurreratuan prestatzea

Talentu berriak erakartzea eta gaur egun daukaguna sustatzea lehentasuna izango da nazioartean ospea duten figurak izaten jarraitzeko eta nazioartean gastronomian eta elikaduran erreferentzia izateko. Euskadik sektorea eraldatzeko eta munduan lekua hartzeko gai izan diren gastronomia-liderrak izan ditu. **Talentua bereganatu, atxiki eta sustatzea lehiarako abantaila da eta gero eta abantaila handiagoa izango da**. Horretarako, belaunaldi-txandaketa planifikatzeko baliatu behar dugu lortutako bikaintasun-maila, gastronomiaren eta elikaduraren maila gorenean egoten jarraitzeko aukera izan dezagun.

Horrez gain, enpresek errealitate berrietara egokitutako ezagutzak dituzten pertsonak beharko dituzte; etengabe bilakatzen eta egokitzen diren profil profesionalak, alegia. **Kudeaketa aurreratuko prestakuntza eta teknologia berrietako prestakuntza lehentasuna dira**, enpresen lehiakortasunaren oinarria ezagutza izango baita, gero eta gehiago.

11. Enpresa irekiak eta kontsumitzaileekin konektatutakoak

Bezeroarenganako orientazioa enpresen etengabeko hobekuntzaren arloetako bat da. Kontsumitzaileen joerak eta lehenasun-aldaketak zein diren, zer erosketa-arrazoi dituzten, zer kontsumo-une eta -lehenasun dituzten jakitea lehenasun estrategikoa da enpresentzat.

Marketin-prozesuek eta bezeroarekiko zerbitzuak lehenasuneko eginkizuna izan behar dute enpresa guztietan, eta kontsumitzaileak estrategia guztien ardatz izan behar du.

Kontsumitzaileen digitalizazioa eta konektibitatea informazio-iturri etengabea dira, eta baliatu egin behar da Big Dataren eta Neuro-marketingaren teknologiak erabiliz, kontsumitzailearen ohiturak eta jarrera desfizitzeko, bezeroen beharrei aurrea hartzeko, segmentu bakoitzari egokitutako eskaintzan diseinatzeko, eta zerbitzuak eskaintzeko erosketa errazteko edo hari konponbide integralak emateko.

12. Nazioarteko erreferentzia-sistema nazioartean sustatzea, triangelu honetan oinarrituta: elikadura-gastronomia-turismoa

Gastronomiaren eta elikaduraren sektoreak asko lagutzen du Basque Country markaren nazioarteko ospean, kalitate eta berrikuntza ikurren bidez. Ospe eta entzute horrek Euskadi munduan kokatzeko aukera izan du, eta, aldi berean, gure lurraldeak turismorako duen erakargarritasunari eusten eta hura handitzen. **Kalitateko turismo horretan gastronomiaren bektoreak funtsezko eginkizuna du**, eta horri eusteaz gain, sustatu ere egin behar da, kalitatea, jasangarritasuna eta berrikuntza jaitsi gabe.

Elikadura-gastronomia-turismoa triangelua Euskadiko produktuak eta elikagaiak tokian-tokian eta nazioartean lekua hartzeko akuilu ere bada. Horregatik, horretan sakonduko du instituzioen arteko eta sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak, merkatu-kuota handiagoa lortze aldera kalitatea erosketa-arrazoi nagusitzat hartzen duten bezeroen segmentuan.

13. Gastronomiaren eta elikaduraren balio-katea balioestea

Demografia-hazkundera gertatzen ari da munduan; errenta gora egiten ari da, erosteko ahalmena handitzen eta aberastasun globala hedatzen da, eta herrialde bateko bizitza-mailak gora egiten duen heinean, beste elikadura-modu bat eskatzen du. Horregatik, aurreratuak garenok konponbideak proposatu behar ditugu hain aurreratuak ez direnentzat. 2050. urterako, ekoizpenak % 70 egin beharko du gora, eskariari erantzuteko. Aukera bat da, bai kantitateari eta produktuari dagokionez, bai merkatuetako bakoitzari egiten ari den eskariari erantzuten jakiteko moduari dagokionez. Gastronomiaren eta elikaduraren sektorea **hazkunde-aukera handiko sektorea da, eta, beraz, inbertsioak eta talentua erakartzeko aukerak ditu.** Horregatik, aukera horiek guztiak gizarteari erakusteko ekintzak sustatuko ditugu, bai eta beste balio batzuk bultzatzeko ekintzak ere, hala nola natura- eta kultura-ondarea babestekoak.

14. Kultura gastronomikoaren sustapena

Euskadiko sukaldaritzaren eta oro har gastronomiaren bilakaerak Euskadiko gizartean ongi errotutako kultura gastronomikoa sortu du, eta hainbat modutan azaleratu da gizartean. Euskadiko gizarteak bertako produktuak eta kalitatezko produktua balioesten du, eta kalitate handiko produktuak erosteko joera eta kalitate handiko jatetxe-kontsumoa egiteko joera sustatu du. Dena den, bizimodua aldatu ahala, horrek aldaketak eragin ditu bai familietan, bai elkarte gastronomikoetan, bai HORECA sektorean, aldaketak gertatzea kultura gastronomiko horretan, janariak prestatzeko ohituretan eta bertako produktu freskoaren kontsumoan. Horregatik, beharrezkoa da zenbait neurri ezartzea Euskadiko gizartearen kultura gastronomikoaren sendotasuna indartzeko eta bertako produktuaren balioespina eta kontsumoa finkatzeko.

Erronka horiek guztiak transbertsalak dira, eta enpresa guztietan eragiten dute, edozein dela ere balio-katean duten kokapena, baina erronka horietako batzuk garrantzitsuagoak dira enpresa batzuetan beste batzuetan baino. Irudi honetan balio-katearen katebegi bakoitzean duten eraginaren estimazioaren laburpen bat dago.

6. GASTRONOMIA ETA ELIKADURAREN PLAN ESTRATEGIKOA

6.1. PLANAREN MISIOA ETA IRISMENA

Gastronomiaren eta elikaduraren planak irismen handia duela ikusita, sailburuordetza eta sail batzuei ere badagokie. Planaren edukia interpretatzen laguntzea aldera, komeni da argitzea bere barnean hartzen dituela

- **gastronomiaren eta elikaduraren sektoreko industria sustatzeko politika eta tresna guztiak** —bere-beregi aintzat hartuta Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetzaren eskumenekoak eta Ogasun Sailaren eskumenekoak (finantzaketa-iturria). Kasu horietan, Gastronomiaren eta Elikaduraren Planak bere egiten ditu arlo horretan zehaztutako politikak, edo elkarrekin garatu beharreko ildo berriak sustatzen ditu.
- **Berariaz nekazaritzako elikagaien industriaren eta arrantza-industriaren lehiakortasun-faktoreei eragiten dieten Jaurlaritzaren eskumeneko politika guztiak** (berrikuntza teknologikoa eta ez-teknologikoa, ekintzailletza, kalitatearen sustapena eta merkaturatzea). Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetza da burua, bere erantzukizunaren eremukoak direnetan, eta gainerako kasuetan laguntza ematen dio dagokion sailburuordetzari edo sailari.

Planaren ezaugarria diziplina anitzekoa izatea denez, beharrezkoa izango da **etengabeko koordinazioa izatea Jaurlaritzaren beste arlo batzuekin eta foru-aldundiekin.**

6.2. IKUSPEGIA

Elikaduraren balio-katea oso sektore garrantzitsua da Euskadiko ekonomian, eta hazkunde-maila handiagoak izateko aukera du, bai Euskadiko ekonomiari egiten dion aberastasun-ekarpenean, bai enplegu-sorkuntzan. Hazkunde hori garatzean, oso kontuan eduki behar da jasangarritasuna; hau da, ingurunea eta ingurumena errespetatu behar dira, gure kulturaren transmisioari laguntzeko, benetakotasunaren bidez, eta, funtsean, Euskadiko gizartearen ongizatea hobetuz. Premisa horiekin, eta gaur egungo talentuan eta ezagutzan oinarrituta, munduan gure gizartearen aitorten handiagoa izateko aukera izango dugu, eta besteek gastronomiaren eta elikaduraren arloan potentzia moduan ikustekoa ere bai.

Ikuspegi hori lortzeko, eta gastronomiaren eta elikaduraren arloan bestelako politika bat garatu ahal izateko, Gastronomiaren edo Elikaduraren Plan Estrategiko hau planteatu da, Jaurlaritzaren XI. legegintzaldirako programako plan estrategiko moduan, eta Jaurlaritzaren gainerako estrategiekin bat eginez eta beste plan batzuekin koordinatuz; bereziki hauekin: Zientzia eta Teknologia Plana, Osasun Plana, Industrializazio Plana, Enplegu Plana eta Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Plana.

6.3. PLANAREN PRINTZIBIOAK

Gastronomia eta Elikaduraren Plan Estrategikoa egitean, printzipio batzuk hartu dira oinarri: Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak elikadurarekin lotuta abian jarritako politikaren irizpideak eta lehenetsunak. Eta etorkizunean sektoreak izan ditzakeen erronkak eta beharrak oinarri hartuta eguneratzen dira.

Balio-kate egituratu eta transbertsala bultzatzea. Euskadin elikagai-ekoizpena handitzearen alde egiten dugu, elikaduraren balio-kateak Euskadiko ekonomian izan duen pisua sendotuz. Elikaduraren ekosistema indartzearen eta sendotzearen alde egiten dugu, eta modu jasangarrian lehiatzeko aukera izateko adineko dimentsioa lortzearen alde, bai, halaber, elikaduraren, gastronomiaren eta turismo enogastronomiaren arloan estatuan eta nazioartean erreferente izatearen alde ere; Euskadi lurralde erakargarria izateko ekosistema bultzatuz, inbertsioa erakartzeko, merkataritza-balantzaren defizita murrizteko eta proiektuak garatzeko elikadura-kate osoarekin elkarlanean, ikerketatik merkaturaino eta ekoizpenetik jatetxeko erabileraraino.

Industria lehiakorraren aldeko apustua. Gaur egun, globalak dira bai merkatua bai lehiakideak berak ere; testuinguru horretan, bada, beharrezkoa da enpresak eta ustiategiak lehiakorrakoak izatea, balio erantsi handiagoa sortzen dutelako eta prozesuak efizienteagoak direlako. Sektore erakargarria behar da, kalitateko enplegua eta aberastasun ekonomiko jasangarria sortzeko eta talentua eta inbertsioa erakarri eta atxikitzeko modukoa, teknologia berriak eta ezagutza ekartzea lehenetsun hartuta beti.

Agente askoren arteko lankidetzak Erakunde arteko lankidetzak eta lankidetzak publiko-pribatua behar ditugu, ezarritako helburuak lortuko baditugu. Horretarako, berriro asmatu beharko ditugu orain arteko formuletako batzuk, agortzen hasiak daudelako zantzuak baitituzte jada. Aitzindari izan nahi dugu lankidetzak bide horretan, agente guztiak hobeto lerrotatu ahal izateko, erronka handi horiei aurre egin eta balio-kate osoan agenteen arteko lankidetzak dakartzan sinergia guztiez baliatzeko.

Pertsonak jomuga. Pertsonak, haien talentua eta eskuzabaltasuna funtsezkoak izan dira sektoreak nazioartean duen garrantzia lortzeko. Plan honek sektoreko pertsonak babestu behar ditu, aldaketa-eragileak baitira enpresa-errealitatearen dimentsio guztietan, haien jarduerak irismen handia eta gizarte-eragin handia baitute. Funtsezko alderdia dira, elikadura eta gastronomia zenbait gizarte-arazo konpontzeko palanka dira eta (biztanleriaren osasuna, ohiturak, bizitzeko era, bizi-kalitatea eta abar).

Lurraldearen garapen jasangarriaren aldeko apustua. Ekonomia “urdin eta berdea” oinarri dituen sektorea funtsezkoa da ekoizpen-prozesu jasangarriak sustatzeko, lurraldeko natura- eta paisaia-baliabideek errespetatuz. Gastronomiaren eta elikaduraren sektorearen sustraiak euskal kulturaren atal dira, eta haietan oinarritu behar dugu etorkizunerantz abiada hartzeko, berezitasunari eutsi eta hura sustatuz (kalitateko hurbiltasuneko produktua aintzat hartzea eta natura-ondarea errespetatu eta kontserbatzea) gizarteak bere egiten eta aitortzen dituen balioak baitira. Eta, horrez gain, landa-ingurunean eta kostaldean industria-proiektuak ezartzea eta ekintzaitetza berriak garatzea erraztuko duen garapen bat izan beharko du.

Pertsonentzako irtenbide osasungarriak sortzea. Zahartze osasuntsua, modu prebentiboan jardunda bizitzaren lehen etapetatik, produktu naturalak, seguruak eta osasungarriak eskainiz, hori da gastronomiak eta elikadurak Euskadiko, Europako eta munduko gizarteekin duen konpromisoa.

Arintasuna eta malgutasuna. Aldaketak etengabeak dira eta politika integral arin eta malgua behar da, enpresen behar berrietara azkar egokitzeko ahalmena izango duena. Gure ekintzekiko jarrera kritikoa izan behar dugu, gauzak etengabe berraztertu eta zalantzan jartzeko jarrera izan behar dugu, eta oreka aurkitu hiruzpalau urteko plangintzaren eta sortzen joaten diren errealitateari egokitzearen artean.

Ahaleginak bideratzea eta emaitzak jomugatzat hartzea. Baliabide publikoen erabileran ezinbestean gero eta efizienteagoak izan behar dugunez, kontuan izan behar dugu non lor dezaketen gure politikek eta ekintzek eraginik handiena, eta gure jarduna horretara bideratu.

6.4. HELBURU ESTRATEGIKOAK

Gastronomia eta Elikaduraren Plan Estrategikoak aintzakotzat hartzen du, jakina, Gobernuaren programaren eta Enplegua eta Ekonomia Suspertzeko Esparru Programaren helburuetatik zeinetan eragin dezakeen gehien, eta bere egiten ditu helburuok. Hala, hasteko, funtsezko azken helburu hauek dira aipagarri, EAEko herritarren ongizateari dagozkion heinean:

- Enplegu gehiago. Langabezia % 10etik behera jaitea.
- Aberastasun handiagoa lortzea. EBko pertsona bakoitzeko BPGd-aren % 125 lortzea.
- Aberastasuna hobeto banatzea. Pobrezia-tasa % 20 murriztea.

Horiekin batera, beste helburu kuantitatibo bat ere jarri da, zuzenean planaren erantzukizuna dena:

- Elikaduraren Balio Katearen pisu ekonomiko handiagoa lortzea Euskadiko ekonomian. Gastronomia eta elikadura BPGd-aren % 12 izatera heltzea.

Aurretik ezarritako esparru hori abiapuntu hartuta, Gastronomía eta Elikaduraren Planak beste helburu hauek ditu:

- Sektorea indartzea, eta kalitateari, segurtasunari eta jasangarritasunari begira ezaugarri bereizgarriak dituzten bertako produktuen ekoizpena eta kontsumoa handitzea.
- Ekoizleekin eta bezeroekin lotura duen industria eraldatzaile bat indartzea, bere efizientziarengatik eta irtenbide osasungarriak eta komenigarriak emanez balio erantsia sortzeko duen gaitasunagatik lehiakorra dena.
- Euskadiko gastronomiaren sektorerako jauzi kualitatiboa ematen laguntzea, merkatu globalean berritzailea eta kalitatekoa delako, eta nazioartera zabaltzea Basque Country markarekin.
- Elikaduraren balio-kateko agente guztien lehiakortasunaren hobekuntza orokorra lortzea, berrikuntzaren bitartez eta ezagutza berriak sartuz eta agente guztien elkarlanaren bidez.
- Euskadik nazioartean duen posizionamendua eta nabarmentasuna indartzea; erreferentziako lurraldea bihurtzea elikaduraren eta gastronomiaren alorrean, eta lurralde erakargarria kalitateko turismoarentzat.
- Gastronomiaren eta elikaduraren sektoreko pertsonen trebakuntza hobetzea.
- Euskadiko biztanleen ongizate soziala eta bizi kalitatea handitzea, elikadura osasungarriaren, bereziaren eta seguruaren bitartez. Biztanle sentsibilizatuak.
- Enplegu iraunkorra sortzea elikaduraren katean, arreta berezia emanez lehen sektoreari.

6.5. JARDUERA-ARDATZAK ETA LERROAK

Balio-katea atalean sektoreei buruz deskribatzen ditugun errealitateak kontuan hartuta, eta egindako AMIA matrizeko faktoreak gurutzatuz, eta, betiere, erreferentziatzat hartuta zehaztutako printzipio eta helburu estrategikoak, legegintzaldi honetan Euskadiko gastronomiari eta elikadurari emandako bultzada 6 ardatz estrategikoren inguruan egituratuko da.

Ardatzak transbertsalak dira balio-kateko katebegientzat (ekoizpena, eraldaketa, banaketa eta gastronomia), eta 23 jarduera-ildotan zabalduko dira. Lerro eta ekintza batzuk ere transbertsalak dira edo kateko katebegi batzuk izango dituzte jomuga espezifikoak.

ENPRESA TXIKI ETA ERTAINEI NEGOZIOA SORTZEN LAGUNTzea	NAZIOARTERATZEA ETA MERKATUAK GARATZEA	BALIO ERANTSIAKO NEGOZIOETARAKO TEKNOLOGIAK ETA EZAGUTZA
<ol style="list-style-type: none"> 1. Planaren lehentasunetara egokitutako eta bideratutako finantzaketa-tresnak 2. Zuzendarien prestakuntza eta berrikuntza ez-teknologikorako laguntza, enpresa txiki eta ertainetan 3. Enpresa barruko ekintzailatza 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Elikadura-Gastronomia-Turismoa triangulua sustatzea 2. Euskal produktuak esportatzeko proiektuetan laguntzea 3. Bertako produktuak, kalitatekoak eta iraunkorrak, bultzatzea 4. Basque Country markan oinarritutako gastronomiaren eta elikaduraren euskal ekosistema bultzatzea 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Pertsonekin konektaturiko enpresak 2. Ekoizpen- eta lanketa-sistema berriak eta iraunkorragoak, eta prozesu automatizatuak eta efizienteak 3. Elikagai osasungarriak eta komenentziakoak 4. Omnikanalitatea
PERTSONAK, KULTURA ETA TREBAKUNTZA. KALITATEKO ENPLEGUA	PROIEKTU ESTRATEGIKOAK ETA ERALDATZAILEAK	LEHIAKORTASUNERAKO TESTUINGURUA
<ol style="list-style-type: none"> 1. Gastronomía eta Elikadura Osasungarria prestakuntza-programetan 2. Talentua garatzeko, erakartzeko eta atxikitze programak, eta enpresetan teknologoak sartzea bultzatzeak 3. Enpresa berritzaile gehiago 4. Kultura gastronomikoaren sustapena 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Sektorera inbertsioak erakartzea 2. RIS3 lehentasunetan sektoreari bultzada emateko lankidetzak-proiektuak garatzea 3. Inbertsio teknologiko estrategikoak bultzatzea sektoreari bultzada emateko gai diren enpresetan 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Erakundeen arteko eta erakunde publiko eta pribatuen arteko lankidetzak 2. Aliantzak, klusterrak eta batasunak bultzatzea, masa kritiko handiagoa edukitzeko 3. ZTBESko agente sektorialeki laguntzea transferentziarako eta enpresen arteko lankidetzarako 4. Ekimenak bultzatzea landako eta itsasbatterreko inguruneetan gaizkien dauden zonaldeetan

Jarduera-ildo guztietan kontuan izango da NIREA programarekin uztartzeko modua, baldin eta agenteek gure lehenengo sektoreko eta landako eta itsasertzeko garapen jasagarriarekin eta balioestearekin lotutako neurriak hartzeko badira.

6.5.1. ENPRESEI ETA ENPRESA TXIKI ETA ERTAINEI LAGUNTZEA NEGOZIOA SORTZEN

Atal honetan, lehenetsunez enpresa txiki eta ertainentzat diren eta berezko izaera duten zenbait neurri eta lerro biltzen dira. Izan ere, haiek dira Eusko Jaurlaritzak jarduera ekonomikoa sustatzeko eta ekoizpen- eta teknologia-aktibo berriak sustatzeko egiten duen jardueraren jomuga.

Baina kontuan hartuta sektoreak dituen erronkak eta sektorearen hazkunde-ahalmena, balio-kate osoan enpresen lehiakortasuna errazteko lan egin behar dugu, haien garapenerako palankak diren arloetan jardunda; esaterako, finantzaketa-tresna berriak erabiliz (enpresa txikiei eta ertainei laguntzeko erkidegoko esparruek definitutako testuinguru berrian ezarritako jarduera-ildoetara eta lehenetsunetara egokitu behar dute; hots, Landa Garapenerako Programa 2014-2020 eta Europako Itsas eta Arrantza Funtza 2014-2020); Europako beste direktiba mota batzuk oinarri hartuta (“Juncker plana” ezaguna ezartzekoa, zuzendariak gaitzekoa, berrikuntza ez teknologikoa sustatzekoa, eta negozio-eredu berriei buruzkoa, enpresen estrategia guztian eragiteko ahalmena dutelako); eta, azkenik, hazteko ahalmena duten negozio-ideia berriak garatzeko laguntzak, enpresa barruko ekintzailatza sustatuz eta ekintzaille gazteei lagunduz.

a) Enpresei laguntzeko finantzaketa-tresnak bultzatzea

- Jarduera ekonomikoak modernizatzeko edo berriak sortzeko inbertsio berriak egin daitezten sustatzea, SENDOTU programaren bidez, finantza-erakundeekin eta Finantzen Euskal Institutuarekin elkarlanean.
- Kapital zirkulatuarekin arazoak dituzten enpresa txiki eta ertainei laguntza emateko programa berri bat garatzea, negozioaren garapena errazteko eta finantza-egonkortasuna lor dezaten lortzeko.
- Ekoizpen-inbertsioa sustatzea, LEHIATU programaren bidez. Programa horren helburua da enpresa-lehiakortasunari laguntzea teknologia efizienteagoak sartuz, elikagaien eraldaketa eta merkaturatzea hobetzeko.
- Enpresa txiki eta ertainei laguntzea I+Gko inbertsio-programen bidez.
- Inbertsio pribatuko euskal funtsak sor daitezten sustatzea, sektorean jarduera ekonomiko eta negozio berriak garatzea helburu dutenak, bereziki.
- Enpresei ematen zaien laguntza sendotzea, eta, bereziki, hazkunde-ahalmena duten oinarri teknologikoko enpresa txiki eta ertainei eta enpresa berriei, HAZILUR programaren bidez (partaidetza-maileguak eta partaidetzak kapitalean), inbertsio-funts pribatuekin lankidetzan.
- Zailtasunak dituzten enpresei banakako akonpainamendua ematea, kasuan-kasuan egokienak diren ekintzak eginez eta tresna publikoak erabiliz.

¹ Balio-kate osoko enpresa mota guztiak: lehen sektoreko ustiapenak, eraldaketa-industriak, merkaturatzaileak eta HORECA sektoreko enpresak.

b) Enpresa txiki eta ertainen zuzendaritza-prestakuntza sustatzea, enpresa txikienetan arreta berezia jarriz, eta berrikuntza ez teknologikoari laguntzea

- Beharren diagnostikoa eguneratuz, zuzendarientzako prestakuntza-programak bultzatzea, lehenetsuzko ezagutza-arloetan sektorean espezializatuta dauden negozio-eskolekin eta prestakuntza-zentroekin lankidetzan.
- Gastronomiako eta elikadurako enpresak sartzeko Innobideak-Kudeabide eta Inobideak-Prestakuntza kudeaketa aurreratuko programetan, eta prestakuntza-erakundeak eguneratzea, Euskadiko Elikadura Klusterrarekin, ostalaritza-elkarte eta jatetxe-elkarteekin eta jatetxeen sektorea ordezkatzen duten beste elkarte batzuekin elkarlanean.
- Produktuen eta merkatuen dibertsifikaziora bideratutako estrategia garatzea, zenbait arlotako ezagutzak eskuratzen lagunduz: marketin aurreratua, bezeroen kudeaketa eta merkataritza-politika, indarra hartzen ari diren erosketa-irizpideak...
- Eusko Jaurlaritzaren kudeaketa aurreratuko programetan gastronomiako eta elikadurako enpresek parte-har dezaten eta aitortuak izan daitezten lortzea.

c) Euskadi Enpresen barruko ekintzailetzarako erakargarri den lurralde egitea

- Ekintzaileentzako beken programa, berrikuntzako ekimen irekien bidez, ikasleek eta ekintzaile gazteek parte har dezaten sektoreko erronkei konponbideak aurkitzeko lanean.
- Gastronomiaren eta elikaduraren arloko *start-up*ak bizkortzeko programa bat egitea, Euskadiko gastronomiaren eta elikaduraren ekosistemako agente guztiekin (AZTI, BCC, Hazi eta NEIKER) eta balio-kateko trakzio-enpreekin eta erreferentziako enpreekin.
- Nazioarteko deialdi bat egitea ekintzaileei, Euskadin instalatu nahi duten negozio berrien habia izateko.
- Ekintzaileek laguntzak, laguntza-zerbitzuak eta finantza-programak eskatzeko prozesuak (leihatila eta atari bakarra).
- Enpresa berriei zenbait finantzaketa- eta inbertsio-alternatiba eskaintzea (Hazilur eta inbertsio pribatuko euskal funtsak), eta arlo orotan behar duten laguntza ematea lurraldean finkatzeko, landa-eremuan eta itsasertzeko eremuan diskriminazio positiboa eginez.
- Bikaintasun gastronomikoko proiektuak finkatzeko eta ugartzeko plan bat diseinatzea.

6.5.2. NAZIOARTEKOTZEA ETA TOKIKO MERKATUAK ETA ESTATUKO MERKATUAK GARATZEA

Eusko Jaurlaritzak betidanik lagundu ditu Euskadiko elikagai-industriak, nazioartekotzeko eta merkatu berrietan sartzeko estrategietan. Plan honekin lan hori sendotu nahi dugu, eta jauzi kualitatibo bat egin kantitateari eta kalitateari dagokionez, erronka berriei eta nazioarteko gero eta lehia sendo eta handiagoari aurre egiteko. Badakigu jakin beharrezkoa dela laguntza-esparru pertsonalizatua egin eta garatzea, laguntza-ekintzak segmentatuz eta tresna tradizionalak (nazioarteko azoketan parte hartzea, adibidez) alderantzizko merkataritza-misioekin eta nazioarteko bezeroekin erlazionatzeko modu berriei nahasiz, merkatu berriak lortzeko, batetik, eta Euskadira gastronomiaren sektoreko bezero berriak erakartzeko, bestetik.

Gastronomiak eta elikadurak ospea eta kalitate- eta berrikuntza-ezaugarriak ematen dizkio Basque Country markari, eta horien gainean nazioarteko sustapen-plan bat egiten jarraituko dugu, eta hazteko ahalmen handia duten merkatuak garatzen, hala nola estatuko eta tokiko merkatuak.

a) Elikadura-gastronomia-turismoa triangelua nazioartean sustatzea

- Eusko Jaurlaritzak eta balio-kateko agenteek osatutako lantalde bat sor dadin sustatzea, komunikazio-plan integral bateratu bat diseinatu eta egiteko.
- Basque Culinary World Prize nazioarteko erreferentziako gastronomia-sari moduan finkatzea.
- Ospe handiko nazioarteko aintzatespenetara aurkezten diren Euskadiko enpresei laguntzeko programa bat garatzea, Euskadiren nazioarteko irudia eta ospea handitzeko.
- BASQUE COUNTRY markaren babesean, Euskadiko gastronomia-establezimenduen nazioarteko sare bat sor dadin sustatzea, kalitatea, berrikuntza eta osasuna ezaugarriak jakinarazteko.
- BASQUE COUNTRY markaren babesean, merkataritza-denden nazioarteko sare bat sor dadin sustatzea, euskal produktuen salmenta eta merkaturatzea sustatzeko.
- Munduan garrantzia duten Euskadiko preskriptoreek foro entzutetsuetan parte har dezaten laguntzea, Euskadiko gastronomia eta elikagaiak sustatzeko eta Euskadi kalitateko gastronomia- eta elikadura-turismorako aukerarako lurralde moduan ezagutarazteko.
- Basquetourrekin elkarlanean jardutea gastronomia eta elikadura nazioarteko sustapen-ekintzetan sartzeko, Euskadiren ikur moduan.
- Euskadik gastronomiaren eta elikaduraren arloko sareetan duen presentzia bultzatzea (REGAL...)

b) Euskadiko elikagaien esportazio-proiektuei laguntza ematea (bertan ekoizitakoak eta/edo eraldatutakoak)

- Elikagaien arloko enpresa txiki eta ertainak nazioartekotzeko laguntza ematea, azoketan edo merkataritza-misioetan parte hartzeko laguntzak emanez, eta, bereziki, ardoa EBtik kanpoko herrialdeetan (ardoaren OCMA) sustatzeko laguntza ematea.
- Balio-kate osoko enpresentzako lehiarako adimen-gaitasunak garatzea, Eusko Jaurlaritzaren azpiegiturak baliatuz. Zerbitzuen espezializazioa.
- Laguntzen bidez, enpresetan nazioarteko marketinean eta merkataritzan prestakuntza eta esperientzia duten pertsonak sar daitezten sustatzea.
- Enpresek nazioarteko eta estatuko azoketan eta ekitaldietan parte har dezaten erraztea, balio erantsiko zerbitzuen bidez.
- Euskadira produktuen eta zerbitzuen erosleen alderantzizko misioak erakartzea, gastronomiaren eta elikaduraren arloko enpresen ahalmenen eta produktu-eskaintzaren berri emateko topagune izan daitezten.
- Nazioartekotzeko jarduerak finantzatzeko tresna berriak sortzea, enpresen beharretara egokituta.
- Enpresen eta esportazio-partzuergoen arteko lankidetzan eragin eta sustatzea, eraginkorrak izateko eta sinergiak lortzeko nazioarteko merkatuaren garapenean.

c) Bertako produktuak, kalitatekoak eta iraunkorrak, bultzatzea

- Kalitate-marken politika berraztertzea, eta kalitate-ikurrak dituzten produktuen inguruan marka, irudia eta komunikazioa sortzeko ekintzak indartzea.
- Ekoizpen-bolumen handiko produktuen edo merkatu-potentzial handikoen kalitate-aintzatespen berriak sor daitezten sustatzea. Ziurtagiri bikoitzeko (kalitate-ziurtagiria eta ziurtagiri ekologikoa) produktuak garatzea.
- Ekoizleei kalitate-markak dituzten Euskadiko produktuentzat kanal anitzeko estrategia garatzeko lankidetzaren erraztea, bai eta omnikanalitatea ere.
- Euskadi Gastronómica programa finka dadin laguntzea eta haren jauzi kualitatiboa erraztea.
- Euskadin bertako produktuak balioesten dituzten azokei eta ekitaldiei laguntza ematea (Gustoko...).
- Gastronomiaren eta Euskadiko ekoizleen arteko lankidetzaren sustatzea.
- Kalitate-markak dituzten produktuentzat estatuko eta nazioarteko merkatuak garatzeko ekintzak indartzea.
- NIREA ekimenean jauzi kualitatibo bat sustatzea, landak, itsasertzak eta natura-inguruneak hiri-ingurunean duen balio-ekarpenaren berri emateko eta bertako produktuen ospea eta kontsumoa errazteko.

- Merkaturatze-zirkuitu laburrek jasangarritasunean dakartzaten abantailen azterketa sozioekonomikoak bultzatzea.
- Elkarlanean jardutea Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuekin eta HORECA sektoreko enpresekin, kolektiboen menuetan bertako produktuak sartzeko.

d) Gastronomiaren eta elikaduraren euskal sistema sustatzea, Basque Country markan oinarrituta

- Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Harremanekin koordinatuta, gastronomian eta elikaduran oinarritutako BASQUE COUNTRY marka sustatzeko eta komunikatzeko plan bat egitea.
- Preskriptoreak (kazetariak, kritiko gastronomikoak, blogariak...) Euskadira erakartzea eta fidelizatzea, gure sistemaren sustatzaileak izan daitezen maila globalean.
- Euskadiko berrikuntza-agenteei (AZTI, BCC eta NEIKER) foro garrantzitsuetan duten nazioarteko presentzia sustatzea, Euskadiko gastronomiaren eta elikaduraren ezaugarrien berri emateko.
- Euskadin nazioarteko ospeko nazioarteko biltzar zientifikoak eta ekitaldi gastronomikoak egin daitezen sustatzea, Euskadiko ekosistema balioesten duten eta nazioartean sustatzen laguntzeko, hain zuzen ere.

6.5.3. TEKNOLOGIAK ETA EZAGUTZA, BALIO ERANTSIKO NEGOZIOETARAKO

Krisi-urteetan, enpresek zenbait neurri ezarri dituzte eraginkortasuna handitzeko eta kostuak murrizteko; baina badago tartea, oraindik, ildo horretan aurrera egiten jarraitzeko. Etorkizunean, balio erantsia sortzea izango da erronka, eta, horretarako, kritikoa da teknologiak eta ezagutza garatu eta sartzeko Euskadiko gastronomiaren eta elikaduraren arloko enpresetan. Lehen ere adierazi bezala, sektore honek hazteko aukera handiak ditu, baina etengabe egokitu beharra dauka ingurunearen aldaketetara, eta lehiakide globalekin jardun, lehengaien gaineko gero eta presio handiagoarekin, banaketa-prezioaren gerrarekin, eta prestazioak gero eta gehiago balioesten dituen baina marketikiko fideltasun gero eta txikiagoa duen kontsumitzailearekin. Egoera horretan, gako arlo guztietan berritzailea izatea da. Produktuan berritzailea izatea alderdi bat da, eta ez garrantzitsua, arrakasta komertziala izateko eta enpresen eta ustategien jasangarritasuna bermatzeko.

a) Enpresa irekiak eta pertsonekin konektatuak izatea, konponbide hobeak eskaintzeko eta kontsumitzaileen beharrei aurrea hartzeko

- Balio-kate osoko enpresei bezeroarengana hurbiltzen laguntzea, digitalizazioa eta Big Dataren kudeaketa konbinatzea, kontsumitzaileen portaerari eta beharrei aurrea hartu ahal izateko.
- Balio-katean demostrazio-proiektuak sustatzea, zeharkakoak, ekoizleen, eraldatzaileen, banatzaileen eta HORECAren artean, enpresa txiki eta ertainen eten digitala murrizteko.
- Demonstrazio-proiektuetan teknologia berriak erabil daitezten sustatzea (Block-Chain, adibidez), produktuen eta kontsumitzaileen arteko informazioaren trazabilitatea bermatzeko, eta gastronomiaren eta elikaduraren euskal ekosisteman konfiantza handiagoa sorrarazteko.
- Neuromarketinari eta portaerei buruzko azterketak egin daitezten sustatzea, segmentu bakoitzari egokitutako zerbitzuak garatzeko.
- Euskadin erosketa- eta kontsumo-laborategi bat (shopper lab) sor dadin sustatzea, kontsumitzaileen azterketak egiteko in situ.
- Txikizkako salmentan eta HORECA kanalean elikadura-joerei buruzko azterketak egin daitezten sustatzea, merkatu-aldaketen behatoki iraunkorrak izan daitezten.

b) Ekoizpen-sistema berriak, jasangarriagoak, automatizatuak, efizienteak eta seguruak, lehiakortasun handiagoa izateko.

- I+Gari laguntzea, ekoizpen-sistema seguruagoak garatzeko, antibiotikorik, pestizidarik eta pertsonen osasunean eragina duten kutsatzaile kimiko edo biologikorik gabeak.
- Elikagaiak kontserbatzeko teknologia berriak eta ekipo, prozesu edo sistema berriak sartzeari, batez besteko merkataritza-bizitza luzatzeko.
- Nekazaritzan eta abeltzaintzan IKTak eta zehaztasuneko sentsoreak sar daitezkeen bultzatzea, doitasuneko nekazaritza eta abeltzaintzarantz eboluzionatu ahal izateko, kalitatea eta segurtasuna handitzeko, eta ekoizpen-kostuak eta hondakinak murrizteko.
- Ekoizpen- eta merkaturatze-prozesuen efizientzia hobetu dadin sustatzea, teknologia berriak sartuz, kostuak murrizteko, trazabilitate integrala lortzeko eta kontsumitzaileak informazioa izateko. Kate osoan eraginez: EKOIZPENAREN AURREKOAN, produktuak merkatutik diseinatzeko; EKOIZPENEAN, prozesuak hobetuz eta automatizatuz, kalitatea eta kontrola hobetzen baitituzte eta kostuak murrizten; eta EKOIZPEN ONDOKOA banatzaileari, bezeroari eta abarrei asistentzia emanda...
- LEHIATU eta SENDOTU programen bidez, laguntza ekonomikoa ematea enpresetan ekoizpen-prozesuetan, haren ezaugarriren batean, jauzi kualitatiboa edo kuantitatiboa emateko aukera ematen duten teknologia berriak sartzeari.
- Elikagaien jasangarritasuna ebaluatzeko eta komunikatzeko sistema homogeen berriak ezartzea balio-kate osoan.
- Euskadin ekoiztako eta eraldatutako produktuetan, Ebk sustatutako Environmental Product sistema ezartzea, lehentasun hauek izanda:
 - i. Kalitate-ikurra duten produktuak.
 - ii. Euskadin egindako eta eraldatutako beste produktu batzuk.
 - iii. Kolektiboen menu gastronomikoak eta HORECA katea.
- Balio-katean eko-efizientziaren hobekuntza bultzatu eta sustatzea, baliabide gutxiago erabiliz (ura, energia, gehigarri kimikoak, ontziak...). Zeharkako lankidetzaren proiektuei laguntza ematea balio-katean.
- Enpresetara elikagaien ekodiseinuaren teknologia eraman eta ezartzea, jardueran sortutako lermak eta ingurumen-inpaktuak murrizteko.
- Alferrik galtzen diren elikagaien kopurua murriztea, sentsibilizazio-kanpainak eginez, aurrezteari eta eko-efizientziari buruzko gidak emanez HORECA kanalean eta elikadura-kateko katebegi guztietan konponbideak eta jardunbide egokiak garatuz.
- Merkaturatze-kanalak eta HORECA hornitzen duten enpresen lankidetzaren logistikoa eta erronka logistikoa sustatzea.
- ELIKAREkin batera, Elikagaien Segurtasunaren arloko Ikerketa Koordinatutako Plana gauzatzea (arlo horretako I+G+Bko proiektuei laguntzeko plana da).

c) Elikagai osasungarriak eta komenentziakoak, pertsonen balio erantsi gehiago emateko

- ZTBESren eta enpresen arteko lankidetzaren I+G sustatzea, Eusko Jaurlaritzaren RIS3 Espezializazio Adimenduneko Estrategiaren lehentasunekin bat: elikadura eta osasuna, pertsonen prebentzio-konponbideak emateko eta dieta pertsonalizaturantz joateko aukera emango duten ebidentziak sortzeko.
- IKTak, OMIKA teknologiak eta elikadura-teknologiak erabiliz pertsonen dieta hobetzeko aukera ematen duten eta konponbide globalak ematen dituzten demostrazio-faseko lankidetzaren proiektuak garatzen laguntzea.
- Enpresek eta HORECA kanalak konponbide osasungarriak eta produktu berriak gara ditzaten laguntzea, arreta berezia jarritz hurren obesitatearen prebentzioari, adineko pertsonen eta gaixotasun kronikoak (indize glukemikoa, minbizia...) dituzten pertsonen beharrei erantzuteari.
- Enpresa-ikerketa sustatzea, bariatate berriak eta osagai berriak eta errezeta osasungarriagoak garatzeko, eta, bereziki, ekoizpenean, eraldaketan eta HORECA kanalean.

- Enpresetan produktuak aldaketa demografiko eta sozialetara egokitzeko berrikuntzak bultzatzea, biztanleria-segmentu bakoitzerako komenigarria den konponbidea eskaintzeko.

d) Omnikanalitatea

- Enpresa txiki eta ertainetan digitalizazio-proiektuak gara daitezen laguntzea, bezeroari eta kontsumitzaileari produktuak saltzeko, zerbitzua emateko eta harekin komunikatzeko prozesu guztietan, eta omnikanalitatea garatzeko bilakaeran laguntzea.
- Enpresei omnikanalitateak dakarrenari buruzko prestakuntza eta informazioa ematea: zer abantaila eta aukera dakartzan eta zer arrisku dituen kanpoan geratzek.
- Balio-katean lankidetzako proiektu transbertsalak sustatzea, kalitate-marka duten produktuak lehenetsiz.
- Bidea ematea proiektu pilotuak egiteko, bai HORECA sektorearen eta haren bezeroen artean, bai banaketaren eta tokiko ekoizleen artean.

6.5.4. PERTSONAK, KULTURA ETA TREBAKUNTZA. KALITATEKO ENPLEGUA.

Etorkizunean talentua lortzeko lehiari gailentzeak berebiziko garrantzia izango du lehiakortasunean. Enpresetako profil profesionalak arin eta malgutasunez bilakatu beharko dute merkatuaren etengabeko aldaketetara egokitzeko; eta, beraz, beharrezkoa da eskaintza enpresen langile-eskariari egokitzea, gure enpresen lehiakortasuna sustatzeko, batetik, eta lanpostuen kalitatea handitzeko, bestetik.

Erronka horri erantzuteko tresnak hezkuntzaz eta enpleguaz arduratzen diren sailek dituzte, baina Gastronomía eta Elikaduraren Plan Estrategikoak ezin ditu erronka horiek ahaztu, eragin handia baitute sektorearen lehiakortasunean. Horrenbestez, jarduera-ildo hauek ezarri dira:

a) Pertsonak sentsibilizatu eta gaitzea, sektoreko ezagutza berrietan trebatzeko eta elikadura osasungarriaren garrantziaz jabetzeko

- Gastronomía eta elikadura osasungarri eta jasangarria maila guztietako prestakuntza- eta hezkuntza-programetan egon dadin sustatzea: lehen eta bigarren hezkuntzan, lanbide-heziketan, ostalaritza-eskoletan, sukaldaritza-eskoletan...
- Osasun Sailarekin lankidetzan jardutea Elikadura Osasungarria programan, biztanleak eta sektoreko enpresak jakitun izan daitezen zer eragin duen prebentzio-kulturak pertsonen bizi-kalitatean.
- Sektore profesional espezifikoaren (elikagaien ekoizpena, elikagai-industria, HORECA...) beharrei egokitutako prestakuntza sustatzea, gaur egungo beharren diagnostikoa eta segmentu bakoitzaren helburuak abiapuntu hartuta.
- Lanbide-heziketako eta nekazaritza-, ostalaritza- eta sukaldaritza-eskolen heziketa-programak koordinatu daitezten sustatzea, sektorearen premiei erantzuteko.
- Goi-mailako gastronomiako profesionalentzako prestakuntzari laguntzea, sektorean jauzi kualitatibo bat egiteko: BCCK ematen dituen espezializazio-masterrak.
- Lankidetzak sustatzea lanbide-heziketako eskolen eta nekazaritza-, ostalaritza- eta sukaldaritza-eskolen eta unibertsitatearen artean, sektoreak etorkizunean izango dituen beharrei egokitutako profil profesionalak lortzeko.
- Ikas-ekinezko prestakuntza-ereduak edo antzekoak sustatzea unibertsitateko irakaskuntzetan. Ikas-ekinezko prestakuntza-programak zentro teknologikoetara zabaltzea, baita enpresetako I+Gko departamentuetara ere.

b) Talentua garatu, erakarri eta atxikitzearen aldeko apustua, etorkizuneko lehiakortasun-faktore moduan

- Epe laburreko langile-beharren prospektiba-sistema bat martxan jartzea, Euskadiko Nekazari-elikagaien Kooperatiben Federazioarekin, ostalaritza-elkarteekin eta jatetxeen eta elikaduraren sektorearen ordezkari diren beste erakunde batzuekin elkarlanean.
- Enpresetan laneratzeko eredu berriak sustatzea (adibidez, ikas-ekinezkoa), lehen sektoreko enpresetan, bereziki.
- BCCrekin elkarlanean ekimenak sustatzea talentua biltzeko, eta etorkizunean gastronomiaren arloan erreferenteak izango direnak identifikatzeko, Euskadin finka daitezen lortzeko.
- Balio-kateko katebegi guztietan profesional gazteak erakartzeko komunikazio- eta sentsibilizazio-programak eratzea, lehenengo sektorearen aldeko diskriminazio positiboa eginez, belaunaldi-txandakatzea errazteko.
- Beka-programen bidez teknologo eta ikertzaile gazteak enpresetara eta berrikuntza-agentetara sartzen laguntzea.
- Programak bultzatzea ikertzaileek eta teknologoek egonaldiak egin ditzaten enpresetan, bai eta enpresetako pertsonal teknikoak ere, ZTBESren agenteetan.
- ZTBESko langileak sektoreko enpresetara joan daitezen laguntzea.

c) Enpresa berritzaile gehiago, ikerketako inbertsioa eta sektorearen lehiakortasuna handitzeko

- Negozioetan edo prozesuetan eragina izan duten enpresa txiki eta ertainen berrikuntza-proiektu arrakastatsuen berri izan dadin bultzatzea. Berrikuntza-kultura sortzea.
- Nazioartean arrakasta izan duten eta Euskadin arrakasta izateko aukera handia duten kasuak aztertzea.
- Katean erronka komunei aurre egiteko sektore arteko eta sektore barruko sormen-tailerretan eta ko-sormeneko tailerretan parte hartzeko foroak sustatzea.
- Enpresa-berrikuntzako sariei laguntza ematea, Euskadiko Elikaduraren Klusterrak eta AZTIk ematen dituztenak, teknologia- eta produktu-berrikuntzako jardunbide egokiak aitortzeko, baita berrikuntza ez-teknologikoko prozesuetan eta merkatuen garapenean.
- Enpresa oso txiki, txiki eta ertainentzako lantaldeak eta mintegiak sor daitezen sustatzea, merkatu-joerekin, produktu berriekin eta teknologiek in lotutako berrikuntzak jakinarazteko eta haietan prestakuntza emateko.
- Berrikuntzako foro eta blog bat sortzea, enpresek eta sareko agenteek beren proiektuen emaitzak, beharrak, aukerak eta abar partekatu eta ezagutarazteko.
- Enpresa txiki eta ertainen diagnostiko teknologikoak eta berrikuntza-gaitasunekoak egin daitezen bultzatzea, berrikuntza-planak egitea errazteko.

d) Kultura gastronomikoaren sustapena

- Kultura gastronomikoaz eta bertako produktuaz sentsibilizatzeko programak sustatzea hezkuntza-maila guztietan: Lehen Hezkuntzan, Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Unibertsitateko ikasketetan.
- Elkartea gastronomikoetan Euskadiko gastronomia eta bertako produktua sustatzeko programa bat diseinatu eta garatzea.
- Nortasuna eraikitzen jarraitzea, lurraldeari, kulturari eta paisaiari balioa handituz, elikadura eta gastronomia erabiliz.
- Kultura gastronomikoaren transferentzia sustatzea, ez daitezen galdu benetakotasuna eta balioak.
- Gastronomiarekin eta elikadurarekin lotutako ondare material eta ez-materialaren wiki-inbentarioa egitea (tresnak, ohiturak, errezetak, produktuak...), eskaintza gastronomikoa handitzeko eta eguneratzeko.
- Elkartea gastronomikoekin, ikastolekin eta eskolekin lankidetzan jardutea Euskadiko kultura gastronomikoaren abantailak bultzatu eta sozializatzeko, eta pertsonak elikadura osasungarriaren eta jasangarriaren abantailaz sentsibilizatzeko.

6.5.5. PROIEKTU ESTRATEGIKOAK ETA ERALDATZAILEAK.

Aurreko ataletan deskribatutako neurriak ezartzea eta enpresa txikiei eta ertainei laguntzea proiektu estrategikoekin eta sektorea eraldatzeko proiektuekin osa daiteke, erreferentzia izan daitezen dibertsifikaziorako, negozio-aukera berriak sortzeko edo balio-kate osoari lagunduko dieten azpiegitura teknologikoak sortzeko. Proiektu horiek jauzi kualitatiboa ekarri behar dute sektorean, eta kalitateko enplegua sortzeko gai izan. Ekimen eta inbertsio pribatua buru duten proiektuak izan behar dute, eta laguntza publikoa izan, behar dutenean.

Duela gutxi sortu den BCC gastronomiaren eta elikaduraren sektorearen proiektu eraldatzailearen eta sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren adibide egokia da. Herrialdeko azpiegiturak osatzen ari direnez, gero eta zailagoa da trakzio-proiektu berriak topatzea, baina, hargatik, ez zaio utzi behar ekimenak aztertzeari, sektorea hobetzeko bidea eman dezaten eta Euskadik inbertsioa erakartzeko duen erakargarritasuna handitzeko edo barne-ekintzaitza handitzeko aukera eman dezaten.

a) Sektorea eraldatzeko eta sektorera inbertsioak ekartzeko gai diren proiektuak gara daitezen erraztea

- World Food Congress: Food for Future nazioarteko azoka egitea Euskadin, munduko berrikuntzen erakustoki izan dadin, etorkizunean elikagaien ekoizpena, eraldaketa, banaketa, prestaketa eta kontsumoa nolakoa izango den erakutsiko duten berrikuntzen erakustoki.
- Atzerriko inbertsioa erakartzea Euskadira, ekoizpen-proiektuak ezartzeko gastronomiaren arloan zein elikagaien ekoizpenean eta elikagai-industrian.
- Hazteko ahalmen handia duen enpresa-proiektuak hazi eta garatzen lagunduko duten inbertsio-funts pribatu bat finkatu dadin sustatzea.
- Atzerriko inbertsioa erakartzea Euskadira, ekoizpen-proiektuak ezartzeko gastronomiaren arloan zein eta elikagai-industrian.
- Lehiatzeko beharrezkoa den masa kritikoa lortzeko eta enpresa-proiektu handiagoei ekiteko, enpresa-kontzentrazioko proiektuetan laguntzea enpresei.
- Nazioarteko dimentsioa duten elikagai-industriako taldeen enpresako I+Gko unitateak Euskadin ezar daitezen bultzatzea, Euskadiko berrikuntza-sistemarekiko sinergiak baliatuz.

b) Lankidetzako trakzio-proiektuak sortzea

- Industria-berrikuntzako proiektu estrategikoen garapena bultzatzea RIS3 Espezializazio Adimenduneko Planean lehenetsitako eremuetan, elikadura osasungarriaren eta elikagai seguruak eta jasangarriak ekoizteko sistema berrien arloan.
- Dimentsio ekonomiko handiko bikaintasun zientifiko-teknologikoko I+G+Bko proiektuak sortu eta garatu daitezen sustatzea. Integrazio bertikala (balio-kateko agente guztien parte-hartzea) eta horizontala (RIS3ko beste arlo batzuekin partekatutako jarduereremua) izango dute, baita enpresa- eta gizarte-eragina ere.
- Kalitateko turismora bideratutako negozio-lerro bat gara dadin bultzatzea, Euskadik Turismo Gastronomiko Osasungarriaren goreneko segmentuan enpresa berriak sortzeko duen indarra oinarri hartuta.
- Nekazaritza eta abeltzaintzarekin, lehen eraldaketako produktuekin eta enoturismoarekin lotutako zerbitzuen eskaintzarekin zerikusia duen landa-turismoa bultzatu eta sustatzea.
- Ekoizpen ekologikoa sustatzea balio-kate osoan (ekoizpena, eraldaketa, merkaturatzea eta kontsumoa) eragiten duten ekintzen bidez. Hazkunde-ahalmen eta jasangarritasun handiena duten ekoizpen-jarduerak lehenetsiko dira.
- Bioekonomiaren eta elikadura zirkularraren sektorean trakzio-proiektuak bultzatzea, Euskadiko elikaduraren balio-katearen ziklo osoa baliatuz (ekoizpena, eraldaketa, salmenta, eta azpiproduktuen berrerabilera eta aprobetxamendua).

c) Inbertsio teknologiko estrategikoak bultzatzea, sektorean akuilu diren enprekin lankidetzan

- FOOD INTELLIGENCE CENTER sortzea, nazioartean proiektzioa duten enpresa berriak bizkortzeko, eta haren jarduera KIC EIT FOODen ekintzailatza jarduerarekin koordinatzea.
- KIC EIT FOODek Euskadin duen egoitzari laguntzea, nazioarteko izaera duten proiektuak bultzatzeko Euskadin, berrikuntzaren arloan eta negozio ideia berrien sorkuntzaren alorrean.
- Kontsumitzailearen portaera aztertzeke laborategi baten sorrera bultzatzea, punta-puntako teknologiak dituen (neuromarketina, aurpegiaren azterketa, begien jarraipena...), industria sektoreko enpresetan zein HORECA sektorekoetan marketin-departamentuei elikagai eta bezeroentzako soluzio berriak diseinatzen laguntzeko.
- Jatetxea 4.0 proiektua abian jartzen laguntzea.
- Elikagaien Katearen Behatokia sortzea, katearen eta prezioen funtzionamenduaren jarraipena eta azterketa egiteko.

6.5.6. LEHIAKORTASUNERAKO TESTUINGURUA.

Gastronomia eta Elikaduraren Plan honen azken ardatzean, aurreko ardatz guztietan ez dauden baina sektorearen lehiakortasuna garatzeko ezinbestekoak diren ekintzak sartzen dira. Erakunde arteko lankidetzak eta sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak errazteko eta sustatzeko ekintzak dira, enpresa-lankidetzak bultzatzekoak, I+Gari eutsi eta bultzada ematekoak, RIS3ren estrategiarekin bat, eta landa-eremuen garapen jasangarria bultzatzekoak, oinarritzako baitira zeharka balio-katearen lehiakortasuna hobetzeko.

a) Erakunde arteko eta sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak

- Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuekiko koordinazioa eta lankidetzak bultzatzea, plan honek bultzatutako ekintzen efektu sinergikoa eta biderkatzailea lortzeko, bereziki osasun, hezkuntza, ingurumen eta merkataritza eta turismoko sailek elikadurarekin lotuta egindakoekin.
- Foru-aldundiekin, EUDELekin eta hiru hiriburu-udalekin koordinatuta egotea eta lankidetzan aritu daitezkeen bultzatzea, plan honetan adierazitako ekintzak ezar daitezkeen, bereziki nekazaritza- eta abeltzaintza-ekoizpen seguru eta jasangarriarekin eta bertako produktuen sustapenarekin lotura dutenei begira.
- Berrikuntza eta Lankidetzarako Estrategia Bizia (BLEB) zabaltzea KATILU aliantza finkatuz eta sendotuz (Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetza, INNOBASQUE, HAZI, NEIKER, AZTI, ELIKA, BCC eta LEARTIKER), lehen sektorean, landa-eremuan, itsasertzeko eremuan eta elikagai-industrian berrikuntza-ekimenak gara daitezkeen errazteko.
- OSALANekin elkarlanean aritzea balio-kate osorako segurtasun- eta osasun-planak eguneratzen, istripu-tasak murrizteko eta lanean pertsonen bizi-kalitate hobea eduki dezaten.

b) Aliantzak, klusterrak eta enpresa-kontzentrazioak sustatzea, masa kritiko handiagoko izateko

- Elikaduraren Klusterrarekin elkarlanean aritzea eta laguntzea balioa sortzeko estrategia eta lankidetzak-proiektuak ezar daitezkeen, Euskadin elikagaien ekoizpenean, eraldaketan eta salmentan diharduten enpresarik adierazgarrienak biltzen dituen agenteak den heinean.
- Elkarrekin sor daitezkeen bultzatzea gastronomiaren alorrean, eta Gastronomiaren Kluster bat abian jartzeko aukera aztertzea.
- Sektoreko enpresentzat balioa sortzen duten lankidetzak-proiektuak gara daitezkeen laguntzea; adibidez, elkarrekin erostea energia, beste zerbitzu batzuk eta logistika, lehiakortasuna hobetzen badute eta enpresen emaitzetan eragiten badute.
- Balio-kateko katebegi desberdinetako enpresen arteko aliantzak sustatzea, emaitzak hobetzen duten eta berrikuntza dakarten lankidetzak-proiektuak garatzeko.

- Sektorearen berregituratzean aurrera egitea, ekoizleen elkarteak sortuz edota ekoizpen-azpisektoreetan sortuta dauden elkarteak bilduz; funtsean, merkaturatze-egiturak garatzea, bolumen handiagoa lortzeko.
- Ekoizpen-elkarteen eta eraldaketa-elkarte edo -enpresen arteko egiturak sendotzea edota sortzea.

c) ZTBESko agente sektorialeki laguntzea transferentziarako eta enpresen arteko lankidetzarako

- Sektoreko agente teknologikoen babes publikoa bultzatzea, RIS3ko ikerketa-lehentasunetan I+Gko proiektuak garatzeko, sektorean inpaktua duten emaitzak sortu eta inbertsio pribatua piztu dadin.
- Sektoreko agente teknologikoen balio-katearen garapenean duten rola finkatzea, eta 2015. urtean bikaintasun zientifikoari, merkatura orientatzeari eta espezializazioari dagokionez ezarritako helburuak betetzen lagunduz (urteko ebaluazio partzialak, tartekoak 2018an, eta amaierakoa 2020an).
- Programekin lankidetzan jardutea sektoreko agente teknologikoetan nazioarteko erreferentziako ikertzaileak sartzeko.
- Elikadurako gidatze-taldetik eratorritako ekimen estrategikoak ezartzea.
- Sektoreko agente teknologikoetatik balio-kateko enpresetara teknologia transferi dadin sustatzea, demostrazio-proiektuak eginez.
- Nazioarteko I+Gko proiektuetan parte hartu dadin sustatzea, sektorera transferi daitezkeen teknologiak garatu eta bereganatzeko.

d) Ekimenak bultzatzea landako eta itsasbaterreko inguruneetan gaizkien dauden zonaldeetan

- Lemoizko zentral nuklearraren instalazioetan, Basordas kalan, lehorreko parke akuikola bat sor dadin sustatzea.
- Industria-ondare historikoan eta ondare kultural gastronomikoan oinarritutako enpresa-ekimenak sortzeko aukera ematen duten proiektuak bultzatzea, haietan oinarrituta gastronomian, elikaduran eta turismoan ekonomia-jarduera berriak sortzeko.
- Landaguneetan banda zabaleko azpiegitura osatzea, enpresen eta pertsonen digitalizazioa errazteko, landa-ingurunea erakargarria izan dadin jendearentzat bizitzeko eta gastronomiaren eta elikaduraren arloko enpresen kanal digitalaren bidez negozio txikiak garatzeko.
- Enoturismo jasangarriaren garapena sustatzea, Errioxa jatorri-deituraren testuinguru berrian Arabako Errioxako ardoaren eta txakolinaren garapenari lotuta.
- Ekoizpen ekologikoa sustatzea landa-ingurunean balio erantsi eta hazkunde-ahalmen handiko ekonomia-jarduera delako.

6.6. ELIKADURA OSASUNGARRIA: EUSKADIK DUEN ONGIZATE ETA BIZIKALITATEKO GOI-MAILAKO ESTANDARRA

Kontuan hartuta Eusko Jaurlaritzaren politika eta jardura guztien ardatza pertsonak direla, Gastronomia eta Elikaduraren Plan Estrategikoak proposatzen dituen helburuen eta ekintzen ardatz nagusia (dela lehen sektoreko ekoizpena, dela aisialdi gastronomikoa, dela eraldaketa industriala) balio-katearen jasangarritasuna eta gizarte osoak produktu osasungarriak eskura izatea da.

Politika guztietan osasunaren ikuspegia txertatzea Eusko Jaurlaritzaren herri-estrategia bat da, eta 2013-2020 aldirako Osasun Planean zehaztuta dago. Osasun Planak, 5.2.- Osasuna eta elikadura helburuan hau ezartzen du: “Elikadura osasuntsuaren estrategia diseinatu eta ezartzea Euskadiko biztanleentzat, betiere kontsumo-patroietako desberdintasun sozialak eta genero-desberdintasunak kontuan hartuta”. Orobat, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak, “Elikadura osasungarriaren aldeko ekimenak Euskadin” izeneko ekimena garatu du. Ekimen horrek, aurrekoaren bide beretik, gizarteko zenbait arlotan lan-espazio argiak eta onargarriak identifikatzen ditu, denon artean elikadura-ohitura osasungarriagoak sustatzeko. Horrez gain, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak “Zaindu” programa jarri du abian, alkoholaren kontsumo arduratsua sustatzeko, eta gazteek alkoholik ez kontsumitzea sustatzen du. Programa horren barruan, 10 gomendio egiten zaizkie eraginpeko taldeei, alkoholaren kontsumo arduratsua bultzatzeko, bereziki.

Elikadura gure osasuna baldintzatzen duten faktore nagusietako bat da, eta are gehiago Euskadiren testuinguru demografikoan, munduko biztanleria zahartuenetako bat baitu. Horrez gainera, Euskadi ez dago obesitatearen arazotik at —OMEk epidemiatzat aitortuta 1998. urtean—; hala, kalkuluen arabera, datozen 20 urteetan morbiditate-kausa/heriotza-kausa ohikoenetako bat izango da.

Azken hamarkadetan bizi-itxaropenaren hazkundera gelditu egin da, malnutrizioaren eraginagatik, beste faktore batzuen artean. Malnutrizioa ez da elikadura eskasa soilik, baita elikadura desegokia ere. Azpimarratu behar da NBERen Garapen Jasangarrirako Helburuen artean, “desnutrizio mota guztiak desagerraraztea” helburua ezarri zutela, eta 2030. urtean erabat desagerrarazteko erronka proposatu zela. Horrenbestez, azken hamarkadan, arian-arian, mundu osoan handitu da nutrizioari buruzko kontzientziazioa, eta aitortu da eskualdeen eta herrialdeen garapenerako funtsezko osagaia dela.

Garapenaren erronka global handiei erantzunez, elikadura osasungarria da plan honen ardatza eta gidalerroa, eta ongizatea, osasuna eta jasangarritasuna oinarri duen gizarte bat garatzeko etorkizuneko ekarpena izango da, biztanleen osasunaren, ingurumen-jasangarritasunaren eta ekonomiaren aldetik. Gainera, osasunaz gain, dietaren pertsonalizazioa ere merkatu globalaren bi trakzio-ardatz dira.

Elikadura osasungarri eta pertsonalizatuaren inguruko ekosistema bat garatzeak hainbat eta hainbat aukera sortzen ditu, zeinak trakzio-ahalmena duten zenbait arlotan agertzen baitira: 4.0 industriari, industria bioteknologikoetan eta gastronomiaren eta elikaduraren balio-katean bertan. Izan ere, indar handia har dezake herrialdeko garapenean eta ekonomian, eta prebentzio-politikak garatzen laguntzen du eta aukerarako lurraldeak eskaintzen ditu enpresa-dibertsifikaziorako eta dimentsio globaleko zerbitzu egokitu berriak sortzeko.

Planak ikerketa eta garapen zientifikoa sustatuko du, doitasunezko nutrizioan eta osasunean duen eraginean, lehenik eta behin; bigarrenik, bioteknologiaren arloan, diagnostiko- eta kontrol-metodo berriak garatzeaz gain, dieta pertsonalizatuetara egokitzeko suplementazio eta elikadura espezifikoen arloetan. Eta nutrizioaren inguruko ikerketak, bere aldetik, lehen sektoreko ekoizpena sustatuko du, funtzionalitate espezifikoko produktuak garatzeko, eta teknologia eta prozesu industrialen ikerketa ere sustatuko du, elikagaien formulazioa eta nutrienteen babes hobetzeko,

Elikadura osasungarriko ekosistema garatzen bada, Garapen Jasangarriko Helburuei lagunduko zaio; baina, horrez gain, prebentzio-politikak aintzat hartzen dituen gizarte-eredu ere bada. Ikuspegi horrek sailen arteko eta diziplinarteko elkarrekintzara behartzen gaitu, kontuan izan behar baitira elikaduraren balio-kateko katebegi guztiak eta sektore bakoitzeko araudiaren aplikazioa, dela ekoizpen osasungarri errentagarri eta jasangarria, dela gastronomia, dela eraldaketa eta banaketa, erosteko erabakia eta kontsumoa (bai kolektiboetan, bai etxean). Hezkuntza- eta prestakuntza-planak egokitu beharko dira, profesionalentzat, batetik, eta gizarte sentibilizatu bat lortzeko, bestetik, eta gizarte osasuntsuaren kontzeptua landu beharko dute sistemek eta hedabideek, gure gizartearen ezaugarriak (kultura gastronomikoa, kasu) abiapuntu hartuta.

Aipatu behar da RIS3 Espezializazio Adimeduneko Estrategia abian jarri zenean ohartu zirela gida-taldeetan interes-arloak gurutzatu egiten zirela elikaduraren eta osasunaren artean, eta, horregatik, Gastronomia eta Elikaduraren Plan Estrategiko honekin eta Osasun Planarekin lehenetsi eta lagundu egingo da Euskadin ahalmen zientifiko-teknologikoak garatzea, eta proiektu eraldatzaileak eta ekonomia-jarduera berrietarako eta ezagutzaren garapenerako aukerak sortzen dituzten proiektuak ere bai.

Hurrengo belaunaldientzako prebentzioa eta haur eta gazteei, batetik, eta adinekoiei, bestetik, begira garatutako ezagutza ezartzeak eragin positiboa izango du Euskadiko biztanleen bizi-itxaropena eta bizi-kalitatea handitzeko; hau da, haurren eta gazteen gehiegizko pisua eta obesitatea murrizteko, kronizitatea gutxitzeko, zahartzearekin lotutako gaixotasunak geroago agertzeko eta abarretarako. Horren guztiaren ondorioz, asko murriztuko da Eusko Jaurlaritzak osasunean egiten duen gastua.

Beste alde batetik, Euskadik baditu zenbait ezaugarri gizarte osasuntsu eta jasangarriaren eredu bat garatu ahal izateko:

- Kultura gastronomiko handia du eta, beraz, gizarte sentibilizatzeko bidea ere bai; horrek, bada, aukera ematen dio, batetik, eta Euskadi marka moduan bultzatzeko eta, bestetik, nazioarteko proiektua lortzeko.
- Arrantza-jarduera eta arraina kontsumitzeko kultura du.
- Gizarteak alderdi tradizionala zaintzen du, eta bertakoa garatzearen aldekoa da.
- Jaurlaritzaren prebentzio-politikak sustatzen ditu, osasuna ardatz nagusi hartuta.
- Biztanleen ezaugarri demografiko bereziak ditu, eta, ondorioz, adinekoen segmentuaren merkatua garatzeko ahalmen handia.
- Inbertsioak egiten dira sektore guztietan berrikuntza teknologikoan eta ikerketan.
- Turismoa garatzeko ahalmena du ingurune osasungarri batean.

Herrialdearen ezaugarri horrekin, Gastronomia eta Elikaduraren Plan Estrategikoak eta Osasun Planak herrialde-eredu bereizgarri eta erreplikagarri bat garatzeko aukera eman dezakete.

7. GOBERNANTZA-EREDUA, JARRAIPENA ETA AURREKONTU-ESPARRUA

7.1. PLANAREN BURUZAGITZA

Gastronomia eta Elikadura Plana 2017-2020 **Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak** bultzatu du eta hura du buru, eta **Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako Sailburuordetzak** kudeatzen eta koordinatzen du.

Plan estrategikoa Jaurlearitzaren gainerako ekintzekin lerrokatuko da, bai eta gastronomian eta elikaduran inplikaturako erakunde eta agenteekin ere. Horretarako, plana kudeatzeko kudeaketa-organo hauek zehaztu ditu:

JARRAIPEN OPERATIBOA: GIDARITZA BATZORDEA

Organo hori hauek osatzen dute: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako Sailburuordetzak, Eusko Jaurlearitzaren Landa, Itsasertz eta Elikagaien Sustapenerako Fundazioak (HAZI), AZTI zentro teknologikoak eta Zientzia Gastronomikoen Fakultateak (BCC). Maila eraginkorrean plana koordinatzen duen organoa da, eta honako funtzio hauek ditu, besteak beste:

- Plana definitu eta adostea.
- Planean ezarritako ekintzak gauzatu eta koordinatzea.
- Jaurlearitzako beste sail batzuen eta beste instituzio batzuen ardura diren ekintzak lagundu eta koordinatzea.
- Planaren jarraipena egitea eta haren amaierako inpaktua neurtzea.

SAILEN ARTEKO KOORDINAZIOA

Gastronomia eta elikadura gai transbertsalak direnez, planak elikaduraren zenbait arlotan lan egiten duten Eusko Jaurlaritzaren beste sail batzuen ekarpen handia behar du, eta, beraz, sailen arteko eta diziplinarteko mahaiaik sortzea proposatzen da. Mahaiek urtean behin egingo dute bilera, sailen arteko koordinazio handiagoa edukitzeko, sinergiak sortzeko eta planaren jarraipena egiteko. Arlo edo sail hauek identifikatu dira:

- **Lehendakaritza.** Gastronomia eta Elikaduraren Plan Estrategikoa Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Planarekin, “Basque Country” 2020 nazioartekotze-estrategiarekin eta oro har Jaurlaritzaren plan estrategikoko guztiekin koordinatzeko.
- **Hezkuntza Saila.** Langile-profilen eskaintza gastronomiaren eta elikaduraren sektorearen beharretara egokitzeko arduradun du.
- **Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila.** Koordinazioa eta lankidetzaren handiagoa planean zehaztutako ekintzetan.
- **Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila.** Eta, bereziki Ingurumen Sailburuordetzarekin, sinergiak sortzeko Ingurumen Esparru Programa 2020 egitasmoaren barruan.
- **Osasun Saila.** Sail horrek definitutako Elikadura Osasungarria planaren jarraipena, helburuak eta ekintzak harekin lerrokatzeko.
- **Kultura Saila.** Eta, bereziki, Kultura Ondarearen Zuzendaritzarekin, ekintza komunak elkarrekin gauzatu eta haien jarraipena egiteko.

ERAKUNDE ARTEKO KOORDINAZIOA

Sailen arteko koordinazioaz gain, Gastronomia eta Elikaduraren Plan Estrategikoa 2020 gauzatzeko, Euskadiko beste erakunde batzuekin koordinatu eta lankidetzan jardun behar da, eta, bereziki, foru-aldundiekin eta udalekin. Koordinazio-lana da, aliantzak sortu eta konpromisoak hartzea, elikadura osasungarri, seguru, berezi eta jasangarria lortzeko.

EKONOMIA- ETA GIZARTE-AGENTEEN PARTAIDETZA

Gastronomia eta Elikaduraren Plan Estrategikoa egiteko, diziplinen eta sektoreen arteko mahaiaik sortu dira (dokumentu honetako 5. atalean zehaztuta daude), eta enpresen ordezkariak, klusterrek eta ekonomiako eta gizarteko beste agente batzuek parte hartuko dute haietan. Mahai horiek plana indarrean dagoen artean iraungo dute, instituzioen eta sektorearen arteko lankidetzaren eta kooperazio-tresna eraginkorra direlako. Foro horiek etengabeko elkarriketa bermatuko dute, eta planaren jarraipena egiten lagundu eta kontrastea egiteko aukera emango dute, ekintzak baliozkotzeko edo beste batzuk proposatzeko, etorkizunean ingurunean aldaketak gertatzen badira. Horrela, bada, bizitasuna emango diote planari eta etengabe egokituko zaio gertaeren errealitateari.

7.2. JARRAIPEN- ETA EBALUAZIO-SISTEMA

Planaren jarraipena eta ebaluazioa urtean behin egingo du gidaritza-batzordeak. Urteko lehen hiruhilekoan, urteko jarraipen- eta aurrerapen-txostena egingo du, plana zer mailatan bete den aztertzeko eta egokiak diren gomendioak egiteko. Horretarako, informazio kuantitatiboa bilduko da, eta agente-taulara sartuko da. Horrez gain, azterketa kualitatiboa erantsiko zaie dagozkien jarraipen-txostenei.

2020. urtean, XI. legegintzaldia amaitzen ari denean, planaren exekuzioaren amaierako txostena egingo da, eta aztertuko da ea eguneratzea eta beste plan bat egitea komeni den.

AGINTE-TAULA

Adierazle gutxi batzuek osatutakoa aginte-taula bat proposatzen da, planaren helburu estrategikoak lortzeko. Adierazle horiek zehazteko, zenbait alderdi uztartzen dira: planaren ardatz estrategikoetan zehaztutako ekintzak, neurtu beharreko alderdi kritikoak eta aldian-aldian eskura dauden datu zehatz eta eguneratuak.

Adierazle-sorta orientatiboa da, eta adierazle batzuk edo beste batzuk erabiltzean kontuan hartuko da zer datu dauden eskura eta zein den Jaurlaritzaren politika eta sektoreko enpresen errealitatea.

- Balio-kateak Euskadiko BPGd-an egiten duen ekarpena (%)
- Gastronomiaren eta elikaduraren balio-katean lan egiten duten pertsonen kopurua
- 2017-2020 aldian sortutako eta finkatutako enplegua
- Inbertsio pribatua modernizazioan, eraldaketan eta merkaturatzean
- Sektorean I+Gko gastu pribatua BPGd-arekiko (%)
- Enpresa berritzaileen %, sektoreko enpresa guztiarekiko
- Sektorearen esportazioa, milioi €-tan
- Enpresa esportatzaileen kopurua
- Lagundutako proiektu estrategiko traktoreak eta transbertsalak
- Gastronomiaren eta elikaduraren balio-katean egindako kanpoko inbertsio zuzena
- Euskadin ezarritako atzerriko enpresak edo I+Gko unitateak
- Oinarri teknologikoko gastronomiaren eta elikaduraren arloko enpresen proiektuak, barne-ekintzaitako tresnen bidez lagundutakoak
- Gastronomiaren eta elikaduraren arloko enpresa berriek sortutako enpleguak
- Kalitate-ikurra duten produktuen negozio-bolumena (milioi €)
- Jaurlaritzaren laguntza zuzena edo zeharkakoa duten enpresa-aliantza, kontzentrazio edo elkarte berrien kopurua
- Jaurlaritzak lagundutako lankidetzako enpresa-proiektuen kopurua
- Lankidetzako proiektuen bidez sortutako enpleguen kopurua
- Jaurlaritzak lagundutako I+Gko enpresa-proiektuen kopurua
- I+Gko proiektuen transferentziaz sortutako enpleguen kopurua
- Nazioarteko I+Gko proiektuetan parte hartzen duten enpresen kopurua
- Balio-katearen digitalizazio-proiektuetan parte hartzen duten enpresa txiki eta ertainen kopurua
- Produktu berrien salmenten ehunekoa, salmenta guztiak aintzat hartuta
- Merkaturatutako produktu berri osasungarrien kopurua
- Nazioarteko aitortpena duten Euskadiko jatetxeen kopurua
- Basque Country markaren babespeko nazioarteko jatetxeak eta dendak
- Basque Country Gastronomikoa markaren ospea
- Ekoizpen ekologikoa (kg urtean)
- Kudeaketa aurreratuan parte hartzen duten enpresen kopurua
- Xahututako elikagai-tonen kopuruaren murrizketa
- Berreskuratutako eta balorizatutako elikagai-tonak
- Ekoizpen-garbiko programen bidez aurreztutako energia eta ura (€)
- Prestakuntza-inbertsioa sektorean (€)
- Prestatutako pertsonen kopurua (guztizko enpleguarekiko %)
- Enpresetan sartu diren teknologoak eta ikertzaileen kopurua
- Kultura gastronomikoaz sentsibilizatzekeo sustatutako programen kopurua

7.3. EKONOMIA- ETA AURREKONTU-ESPARRUA

2017ko aurrekontua abiapuntu hartuta, Plana 2017-2020 aldira estrapolatzeak esan nahi du gastronomiaren eta elikaduraren sektorean **2.457 milioi euroko** inbertsioa egingo dela. Eusko Jaurlaritzaren eta bere menpe dauden erakundeen aurrekontua **357 milioi eurokoa** izango da, eta balio-katearen jarduera ekonomikoa bultzatzeko erabiliko diren programa eta tresna finantzarioek mobilizatuko duten inbertsio pribatua, berriz, **2.100 milioi euro** ingurukoa.

I. ERANSKINA

EUSKADIN GASTRONOMIA ETA ELIKADURAREN PLAN ESTRATEGIKOAREKIN ERLAZIO HANDIENA DUTEN PLAN ESTRATEGIKOAK

- **Landa Garapen Jasangarriko Plana 2020 (OSOA).** Gure autonomia-erkidegoak landa garatzeko duen tresna nagusia da. Eusko Jaurlaritza eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru-aldundiak daude bertan partaide gisa, eta finantzatu ere lauren artean eta FEADER funts europarraren artean finantzatzen dute. OSOA esparru modura hartuta, lau erakunde horiek batera aritzen dira lanean, Euskadik lehen arloan eta landan dituen desfiorik handienei erantzutearren.
- **Elikadura Industriaren Eraginkortasun Plana (EIEP).** Aurreko legegintzaldian egin zen, eta bertako produktuan eta kalitatekoan oinarritutako elikagai-industria sendoa, lehiakorra eta jasangarria lortzea du helburu. Balio-kateko eragile guztiekin (ekoizleak, eraldatzaileak, banatzaileak eta kontsumitzaileak) gauzatu beharreko ekintzak zehazte aldera batera egindako gogoeten multzo bat da EIEP. Hauek izan dira plana egiteko premisak: Euskadiko ekoizpen-sektorean arraste-gaitasuna duten elikadurako industria-sektoreak positiboki bereiztea eta ekintzak zehazki definitzea. Elikagaien arloko azpisektoreen arazoak ugariak eta askotarikoak direnez, egungo krisi ekonomikoaren testuinguruan elikagaien euskal enpresetarako lehentasuna duten arazoak konpontzen laguntzeko ekintzak zehaztu behar dira, hain zuzen, hazkunde ekonomikoa bultzatzeko, enplegua sortzeko eta elikagaien industria lehiakorragoa eta jasangarriagoa garatzen laguntzeko. 2017-2018 aldian estrategia eguneratuko da, testuinguru sozioekonomiko berrira egokitzeko.
- **Ekintzaitzako Erakunde Arteko Plana 2020.** Euskadiko agente publiko nagusiek ekintzaitzari laguntzeko konpromisoaren isla da, Euskadiren eraldaketa ekonomikoa eta soziala lortzeko. Ekintzaitza-prozesuaren baitako kolektibo, tipologia eta etapa guztiei laguntzeko programak eta tresnak biltzen ditu, gizarte gero eta ekintzaileagoa lortzeko, jarduera ekonomikoa eta kalitateko enplegua sortzen duten proiektu eta enpresa lehiakor eta jasangarriak garatzeko, eta Euskadi ekiteko leku erakargarri moduan kokatzeko.
- **Industrializazio Plana 2017-2020.** Euskadi berrindustrializatzen laguntzeko neurrien erreferente da, susperraldi ekonomikoaren eragileetako bat baita, eta I+G+Barekiko apustuarekin bat egiten baitu, irizpidetzat hartuta bikaintasuna, espezializazioa eta emaitzak enpresetara transferitzeko prozesua. Haren ardatzek (ETEak, proiektu industrial estrategikoak, industria aurreratua, industria- eta energia-testuinguru lehiakorra eta giza kapitala) hainbat aukera eskaintzen dituzte Gastronomia eta Elikaduraren Plan Estrategikoaren lehentasunekin eta aukera-arloekin elkarreragiteko.
- **Euskadi Nazioartekotzeko Esparru Estrategia 2020: Basque Country Estrategia.** Jaurlaritzaren ekimenaren helburu estrategikoen artean ezartzen ditu, besteak beste, industria globalizatzeo estrategia, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sistemaren nazioartekotzea eta nazioarteko prestakuntza. Esparru-estrategia horren barruan, Euskadiko administrazioak enpresak nazioartekotzeko plan espezifiko bat onartu du, Euskadiko industria-sektorearen lehiakortasunean eta Euskadik nazioarteko inbertsioak erakartzeko dituen aukeretan oinarrituta, I+G+Bko politika erakargarria eta nazioartean lehiatzeko gai dena oinarri hartuta.

- **ZTBP Euskadi 2020.** Euskadi Europan ikerketaren eta berrikuntzaren erreferente moduan kokatzeko plana da. Helburua azken 30 urteetan arrakastaz jardun duen zientzia-, teknologia- eta berrikuntza-sistemaren efizientzia-maila hobetzeko aukera emango duten baldintzak sortzea da. Abiapuntu horretatik, planaren asmoa da sistemak emaitzetara gehiago bideratzea da, eta, horretarako, ikerketa-jarduerak eta berrikuntzaren balio-katean duten kokapena helburu horretara egokitu behar dira. Ikerketan berrikuntza gehiago sartu nahi du planak, zientziaren eta enpresaren munduen arteko lankidetzari handituz, I+G+Baren jarduerak emaitzetara bideratzeko. Enpresen eskariak ase ditzaketen emaitzetara eta Euskadik aurre egin beharreko erronka handiei erantzuten lagunduko duten emaitzetara. Horrela, enplegua sortzen eta aberastasun ekonomikoa eta soziala lortzen lagunduko du.

- **EAEko Ingurumen Esparru Programa 2020.** Ingurumen osasungarria eta gizarte aberatsa, modernoa, aurreratua eta jasangarria oso estu lotuta daude, eta horixe da, hain zuzen, programa horren oinarria. Berrikuntza eta garapen teknologikoa ezinbestekotzat jotzen ditu ingurumena kontserbatzeko eta berronertzeko.

- **Ekonomiaren Susperraldiaren eta Enpleguaren aldeko Esparru Programa 2017-2020.** Azken urteetan enpleguak izan duen hazkundeak ez du aukerarik eman, oraindik orain, krisiaren aurreko okupazio-mailara iristeko, eta horregatik sortu da 2017-2020 aldirako esparru-programa berria. Aurreko legegintzaldiko hazkundeak eta enplegu-sorrera finkatu eta horretan aurrera egitea da asmoa, eta, horretarako, 10 zutabe proposatzen ditu enplegu gehiago eta hobea sortzeko. Hauek dira nabarmenenak: enpresa lehiakorragoak eta enpresa-talde indartsuak; bikaintasuneko zientzia-, teknologia- eta berrikuntza-ekosistema; gorantz doazen jarduerak eta sektore berriak; eta enplegurako eta laneratzeko plan espezifikoak.

- **Euskadiko Turismoaren Plan Estrategikoa 2020.** Herrialdearen lehiakortasunaren estrategiarekin eta nazioartean hura proiektatzen duen markarekin (Basque Country) bat etorritik, herrialdeko agente turistiko publiko eta pribatuen ahalik atxikimendu handiena lortu nahi du plan honek, efikazia eta efizientzia handiagoa lortzeko, erantzukidetasuna, hitzarmena eta lankidetzari oinarri hartuta. Plan hau gai da agenteen ezagutza, esperientzia, konpetentzia eta gaitasunei ahalik etekin handiena ateratzeko, agente bakoitzak berari dagokion rola hartuta, eta gai da, orobat, erronkak hartzeko zein uko egiteko, kudeaketarako tresna erabilgarria izateko prestatu denez gero. Lau urteko eta urtebeteko planetan (kudeaketa-planak) banatzen da. Plan horiek unean-uneko errealitateari, eskakizunei eta baldintzei egokitu zaizkie, lortutako eragina eta emaitzak kontuan hartuta.

- **Elikadura Osasungarriaren Euskadiko Plana.** 1.000 eguneko plana da. Izan ere, ezinbestekotzat jotzen da emaitzak epe laburrean lortzea, eta horrexegatik proposatzen da 1.000 eguneko plana, ez dadin gerta, askotan bezala, denbora gehiago ematea plana lantzen hura gauzatzen baino. Hauek dira planaren helburu zehatzak: egunero fruta eta barazkiak jaten dituzten 16 eta 25 urte bitarteko pertsonen ehuneko % 20 handitzea, eta gaur egungo gatz-kontsumoa, eguneko 9,6 gramokoa, % 10 inguru jaiste. Eusko Jaurlaritzak osasun-sistema publikoa hobetzeko abian jarritako 2013-2020 Osasun Planaren barruan dago. Plan hark 146 ekintza eta 35 helburu ditu, eta Eusko Jaurlaritzak abian dituen eta abian jarriko dituen osasun-politikak testuinguruan jartzen, orientatzen eta programatzen ditu.

- **Berrikuntza eta Lankidetzarako Estrategia Biziaren (BLEB).** Berrikuntza eta Lankidetzarako Estrategia Biziaren helburua da lankidetzako ekimen berritzaileak sortzea nekazaritzako elikagaien sektoreko balio-kate osoan eta landa-ingurunean eta itsasertzeko ingurunean, lankidetzari, jakin-mina eta esperimentazioa ohikoak diren estilo eta kultura bat sortzeko. Hauek dira BLEBren helburu nagusiak: i) Berrikuntza teknologikoari eta ez-teknologikoari eusten dioten nekazaritza- eta elikagai-enpresen kopurua areagotzea, elikaduraren balio-katearen eragileen arteko lankidetzari sustatuta. ii) Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politika Sailburuordetzak sektorerako ezarri dituen planak betetzera zuzendutako proiektuak garatzea, Euskadiko Zientzia eta Teknologia Planaren egikaritzapenean finkatutako lehentasunetara bideratuta eta I+G+B transferentzia handiagoa bermatuta. iii) Landa-guneetako jarduerak ekonomikoan eta enpleguan eragitea, balio-katean gero eta enpresa eta ekoizle txiki gehiagok berrikuntzako eta lankidetzako dinamikak eta proiektuak gara ditzatela erraztuta. iv) Sortutako ezagutza kudeatzea eta zabaltzea, eta esperientzia berritzaileak eta lankidetzakoak ezagutaraztea eta gizarteratzea.

II. ERANSKINA

ELIKADURAREN BALIO-KATEA

1. LEHEN SEKTOREA

EAEko lehen sektoreak funtsezko eginkizuna du euskal ekonomian: gure nekazariak eta arrantzaleek egiten duten lan handiaren emaitza kalitate handi-handiko ekoizpena da, eta hori oso garrantzitsua da Euskadiko familien elikadurarako, bai eta, argi eta garbi, gure herrialdeko gastronomiaren bikaintasunerako ere. Horretaz gain, nekazaritzako elikagaien industriaren oinarri ere bada, batez ere bertako produktuez hornitzen baita, eta balio erantsi handia dakarkiotu. Baina lehen sektorea ez da alderdi ekonomikotik soilik balioetsi behar, eginkizun ukalezina baitu aparteko paisaiaren kudeaketan, eta hori oso aintzat hartzen du Euskadiko gizarte-iruditeriak.

Eustaten datuen arabera, 2014an Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantza sektorean 17.390 pertsonak lan egiten zuten, autonomia-erkidegoko guztizkoaren % 2k, hain zuzen ere. 2015. urtean, lehen sektorea Euskadiko barne-produktu gordinaren % 0,84 zen, eta aurreko hamarkadatik beheranzko joera txikia izan du. Sektorearen barruan, nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza lehen sektoreko jardueraren hiru laurden dira, eta arrantza, berriz, laurden bat.

1. taula.- **Balio erantsi gordinaren banaketa (oinarrizko prezioetan) lehen sektorean. 2000-2015.**

NEKAZARITZA, ABELTZAINZA ETA BASOGINTZA

Baserri-jarduerari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoan 16.554 ustiategi daude (2009ko nekazaritza-errola). Horiek 224.038 ha kudeatzen dituzte guztira, EAEko azalera osoaren % 31 baino gehiago; eta baso-azalera guztizko azaleraren ia % 62 da. Ustiategien lurraldeko banaketari dagokionez, % 22 Araban daude; % 35, Gipuzkoan; eta % 43, Bizkaian. Baserri-ustiategien % 21 soilik hartzen dira profesionaltzat; alegia, 3.500 bat, zeinak baserri-jardunetik sortutako diru-sarreretatik soilik bizi baitira.

Baserri-jardueraren barruan, nekazaritza-jarduerak, mahatsaren eta ardoaren prezioaren gorabeherek baldintzatuta, goranzko joera du; abeltzaintzak pixka bat baina etengabe egin du behera 2011 arte, eta orduetik aurrera zertxobait gora egiten ari da; eta basogintzak beherakada handia izan zuen 1998tik 2009ra, eta orduetik hona badirudi inflexio-puntu bat izan eta suspertze txiki bat izaten ari dela.

1. grafikoa - **Nekazaritzako azken ekoizpenaren bilakaera 1985-2016.**

Iturria: Euskadiko nekazaritza-sektorearen kontuen aurrerapena 2016

Baserri-ustiategi gehienak txikiak dira, jardun partzialeko nekazaritza egiten dutenak. Haien ekoizpena mistoa da, eta produktibitate txikikoa eta aldatetara egokitzeko ahalmen apalekoa. Baina badira beste ustiategi mota batzuk ere, profesionalagoak, nekazaritza gazteagoak, buru-belarri ekoizpenera bideratutakoak. Haien zor-maila handia da, eta ekoizpeneko eta merkaturatzeko nekazaritza-erakundeetako parte dira. Baserriak, bere produktuak ustiatzeaz gain, landu ere egiten baditu, izugarri areagotzen da balio erantsia; hori gertatzen da nagusiki mahastzaintzan eta ardogintzan eta ardiaren eta fruituen (sagardoa) arloko azpisektoreetan; hala, horietako askok babesaren izaten dute Jatorri Deituretan (Rioja eta Idiazabal, Euskal Sagardoa), edo kalitate-marketan (Gorenak, Eusko Label).

2. grafikoa.- Eraldaketa nekazaritza-ustiategietan.

Iturria: 2009ko nekazaritza-errola

Basoari dagokionez, adierazi behar da 400 mila hektarea baso dagoela (EAEren guztizko azaleraren % 62), eta, baso-ustiapenaren bidez egiten den ekarpen ekonomikoaz gain, ingurumenaren kudeaketan eta lurraldearen kudeaketan duen garrantzia azpimarratu behar da.

3. grafikoa - **Basogintzako Azken Ekoizpena. 2005-2015.**

4. grafikoa.- **Egurraren industria eraldatzaileko establezimenduak eta enplegua. 2000-2015**

Iturria: Nekazaritzako azken ekoizpena; Industria-inkesta

Azken hamarkadan, egurraren azken ekoizpenak bilakaera positiboa izan du, 2009. urtean izan ezik. Urte hartan, gertaera meteorologiko batek eraginda —ziklogenesi leherkorrak— hainbat zuhaitz erori ziren Landetan, Frantzian, ondorioz, izugarri handitu zen stocka eta zuhaitzak mozteko eskaerak asko egin zuen behera EAEn. Gertaera horren eraginez, gainera, asko jaitsi zen egurraren prezioa, eta oso eragin negatiboa izan zuen azken ekoizpenaren balioan.

Egurra transformatzeko jarduerari dagokionez, azken urteetan beheranzko joera izan du, bai establezimenduen kopuruan, bai enpleguetan. Izan ere, krisiaren eraginak oso nabarmenak izan dira altzarien eta paperaren industrian eta, oro har, egurrarenean.

ARRANTZA-JARDUERA

Arrantza-jarduerari dagokionez, azpimarratu behar da berregituratze-prozesu handia izan zuela 2001. eta 2006. urteen artean, kuoten banaketa Euskadin zeuden ontzien kopurua baino txikiagoa zelako. Eta ondorengo krisiak arrantzari ere gogor eragin zion. Eraldaketa horrek, baina, arrantza-ontziak berritzea eta modernizatzea ere eragin du, eta, gaur egun, maila teknologiko handiagokoak dira.

Gaur egun, Euskadik 193 arrantza-ontzi ditu. Guztira, erregistro gordineko 49.255 tona dituzte (EGT), 155.412 zaldiko potentzia (ZP), eta batez beste 15,4 urte.

2 taula.- **Euskal ontzidiaren egituraren bilakaera. 1995-2015.**

Iturria: Euskal Arrantza Ontzidiaren Zentsuaren erregistroa.

Erauzketako arrantzari dagokionez, urteko kanpaina nagusietan egindako arrantza-jarduerak azpimarratu behar dira: berdelarena (otsail-martxoak); antxoarena (martxotik ekainera); eta hegaluzearena (uztailetik urrira-azarora bitartean, tunidoen sardek Irlandako uretarako migrazioan hartzen duten bidearen arabera).

5. grafikoa.- Euskadiko kofradietan enkantean saldutako espezie nagusien bilakaera. 2005-2015.

Iturria: Arrantza-produktuen lehen salmentei buruzko oharra. Geuk egina.

Horren haritik, antxoaren arrantza-aldia ixteak asko baldintzatu zuen arrantza-jarduera 2006-2009 aldian. Urte haietan berdelaren arrantza handitu egin zen, urteko arrantza-aldi garrantzitsuenetako baten falta konpentsatzeko. Debekualdiaren ondoren, 2010. urtean berriro antxoaren arrantzatzeari ekin zitzaionean, arrantza-jarduerak bide positiboa berreskuratu zuen, eta agerian jarri zen antxoaren stocka finkatu egin zela.

Bada arrantzaleen jarduera baldintzatu zuen beste gertaera bat: 2013. eta 2014. urteetan hegaluzerik ez egotea Bizkaiko golkoan, hegaluzeak migrazio-ohiturak aldatu egin zituelako. Arrantzaleek Irlandako kostalderaino joan behar izan zuten tunidoen bila, eta, horren ondorioz, erregai-gastua asko igo zen eta arrantzaren errentagarritasuna asko kaltetu. Hegaluzearen kanpainak gorakada argia izan du hegaluzea Bizkaiko golko uretara itzuli zenetik.

Bada azpimarratzeko kontu bat: hegaluzearen azken arrantza-aldiko aleen erdiak baino gehiagok Eusko Label zigilua izan zuten; kalitate handiena eta jatorria ziurtatuta dutela adierazten duen zigilua, alegia. Azpimarratzekoa da sektorea buru-belarri murgildu dela azken urteetako joera honetan, kontsumitzaileek jakin dezaten hegaluzea gure arrantzaleek harrapatutakoa dela eta kalitate goreneko bermea duela (arrainak banan-banan harrapatuta, sarerik erabili gabe, ohiko arrantza-tresnekin, itsas baliabideen jasagarritasuna bermatzeko moduan).

Euskadiko arrantza-ontzidiaren emaitza ekonomikoetan bi faktorek eragiten dute, bereziki: batetik, arrantza-ontzien kopuruaren jaitsierak, eta, bestetik, erregaiaren prezioaren gorabeherek, ekoizpen-kostua asko aldarazten baitute.

Estatistikak egiteko zailtasunez gain, arrantza-sektorearen berezitasunak eragindakoak aipatu behar dira: ekoizpen-unitateen (ontziak) mugikortasuna, eta batzuetan lehorrean ekiporik eta giza baliabiderik ez egotea.

3. taula.- Arrantzako makromagnitude ekonomiko nagusien bilakaera. 1995-2015.

Iturria: Arrantza-sektorearen inkesta ekonomikoa. Geuk egina.

Ontzien kopurua eta sektorean lan egiten dutenen kopurua ez datoz bat Euskal Arrantza Ontzidiaren Zentsuaren erregistroarekin, metodologia desberdina erabiltzen baita batean eta bestean. Izan ere, arrantza-sektorearen inkesta ekonomikoan erreferentziako urtean gutxienez 6 hilabetez arrantzan jardun duten ontziak soilik hartzen dira kontuan.

Taulan ikusten denez, ontzien kopuruak eta sektorean lan egiten dutenen kopuruak behera egin du datuak ditugun lehen urtetik. Baina arrantza-ontzidiak aldaketa teknologikoa izan du, eta gero eta ontzi handiagoak eta teknologia gehiagokoak erabiltzen dira. Hori dela eta, ontzidiaren produktibitateak gora egin du azken urteetan.

Sektoreak lortutako balio erantsi gordinak gorabeherak izan ditu denboran zehar, arrantza-aldi nagusien bilakaeraren eraginez; esaterako, antxoaren arrantzaren debeku-aldia 2010. urtean, eta hegaluzearen migrazioaren aldaketa 2013. eta 2014. urteetan.

4. taula.- Arrantza-sektorean ekarpena EAEko balio erantsi gordinari. 2000-2015. (Oinarritzko prezioak)

Iturria: Eustat eta Arrantza-sektorearen inkesta ekonomikoa. Geuk egina.

Arrantza-sektoreak Euskadiko BPGd-an duen pisua jaisten joan da azken urteetan: % 0,31koa zen 2000. urtean, eta % 0,20koa da 2015ean.

2. ELIKAGAIEN ETA EDARIEN INDUSTRIA

EAEko elikagaien industriak rol dinamizatzaile garrantzitsua du lehen sektorean, bi sektoreen artean (ekoizlearen eta eraldatzailearen artean) elkarrekiko mendetasun handia baitago. Horrez gain, azpimarratu behar da lehen ekoizpenak, eraldaketak, banaketak eta jatetxeek osatzen duten balio-kateak asko laguntzen diola nekazaritzari eta bertako produktuaren kontsumoari. Horregatik, gure elikagaien eta edarien industriak berebiziko garrantzia dauka nekazaritzako elikagaien industria eraginkortasunez eta modu berezian ezartzeko gure elikaduraren, gastronomiaren eta kulturaren arloan.

Industria horrek pisu handia du Europako ekonomian, eta EBko industriaren barruan adar handiena da fakturazioari, balio erantsiari eta enpleguari dagokionez. Eta, antzeratsu, Espainian, industria osoa kontuan hartuta, elikagaien eta edarien industria lehen postuan dago negozio-zifretan eta balio erantsi gordinan. *(Iturriak: INE eta FoodDrink Europe)*

Elikagaien eta edarien industriak, Espainian eta EBn baino partaidetza txikiagoa izan arren, leku garrantzitsua du Euskadiko industrian: Euskadiko industriaren BPGd-ari ekarpen handiena egiten dioten sei adarren artean dago, eta % 6,34ko ekarpena egin zuen 2015ean.

6. grafikoa.- **Euskadiko industriaren BPGd-ari ekarpen handiena egiten dioten adarrak. 2015.**

Iturria: Kontu Ekonomikoak, Eustat. Geuk egina.

Euskadiko ekonomiaren BPGd-an duen pisua % 2 ingurukoa da. Azken hamarkadan pixka bat behera egin du ehuneko horrek: % 1,74koa zen 2005ean eta % 1,52koa da 2015ean. Aldi horretan, Euskadiko elikagaien industrian sortutako balio erantsi gordinak % 4,61 egin zuen gora, baina ekonomiak, oro har, hazkunde handiagoa izan zuen.

5. taula.- **Elikagaien eta edarien industriak EAEko balio erantsi gordinari egiten dion ekarpena. 2000-2015. (Oinarritzko prezioak)**

Unitatea: Milaka eurotan.

Iturria: Kontu Ekonomikoak, Eustat. Geuk egina.

Elikagaien eta edarien industriaren barruan, edariena da pisu handieneko adarra: Euskadiko elikagaien eta edarien industriak sortutako balio erantsi gordinaren % 37 sortzen du. Horren atzetik daude beste hauek: Elikagaien beste industria batzuk (zopa eta saldak eta prestatutako elikagai galkorrak sartzen dira, besteak beste), % 20; Ogia eta errozaritza, % 20; Arrainen prestaketa, % 10; Esnekiak % 9; eta, azkenik, Haragiaren industriak, % 4.

6. taula.- Elikagaien eta edarien industriak EAEko industrian duen balio erantsi gordinaren banaketa, adarren arabera. 2005-2015. (faktore-kostuak)

Unitatea: Milaka eurotan.

Iturria: Kontu Ekonomikoak, Eustat. Geuk egina.

Azpimarratu behar da, gainera, azken hamarkadan, Elikagaien Beste Industria Batzuen adarra gero eta pisu handiagoa hartzen ari dela elikagaien eta edarien industrian; antzera gertatzen da Arrainen Prestaketaren industrian, indar txikiagoz bada ere. Aldiz, Haragiaren industriak eta Esnekiek behera egin du pixka bat.

7. grafikoa.- Euskadiko industriaren BPGd-ari ekarpen handiena egiten dioten adarrak. 2015.

Iturria: Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetzaren Estatistika Organoa. Geuk egina. 7. taula.-

Elikagaien eta edarien industriaren azpisektoreen rankinga. 2015. urtea.

Iturria: Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetzaren Estatistika Organoa. Geuk egina.

Elikagaien eta edarien industriaren azpisektoreek 2015. urtean zuten egoerari dagokionez, alderdi nagusi hauek aipatuko ditugu:

- Sektorearen barruan, Edarien azpisektoreak ditu salmenta-zifra handienak eta balio erantsi gordin handiena.
- Elikagaien Beste Industria Batzuen azpisektorea bigarren postuan dago fakturazioan eta balio erantsi gordinean, eta kanpoko merkatuekiko esposizio-maila handiena du.
- Ogia eta Errotaritzaren azpisektoreak sortzen du enplegu gehien elikagaien eta edarien industriaren multzoan.
- Kanpo-proiektzio handiena duten adarrak Elikagaien Beste Industria Batzuk, Arrainen Prestaketa eta Edariak dira. Lehenengo biei dagokionez, gainera, inportazio gehien egiten dituzten adarrak dira, kanpoko merkatuetara jo behar baitute lehengaiak lortzeko.
- Azkenik, Edarien adarraren kanpo-proiektzioa nabarmendu behar da, merkataritza-balantza erabat esportatzailea baitu.

Euskal Autonomia Erkidegoak, 2015. urtean, 12.040 industria-establezimendu zituen, EAEn guztira dauden establezimenduen % 6,85. Guztirako ekoizpen-unitateen % 0,87 elikaduraren eta edarien industriakoak dira (industriako guztirako establezimenduen % 12,74).

8. taula. **Establezimenduen banaketa industria-azpisektoreka. 2014-2015 aldia.**

Iturria: Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetzaren Estatistika Organoa. Geuk egina.

2015. urtean elikagaien eta edarien industria laugarren dago Euskadiko industriako establezimendu-kopuruari dagokionez, eta 2014ko postuari eusten dio.

ENPLEGUA

Euskadiko industriak 2014. urtera arte izandako beherakada aldatu egin zen 2015. urtean, eta enplegatu-kopuruan % 1,1eko igoera izan zuen; hau da, kopuru absolututan, 2.071 lanpostu berri sortu ziren.

Elikagaien eta edarien industria 5. postuan dago industriaren enplegu-ekarpenean: 14.660 lanpostu guztira, industriako guztizko enpleguaren % 7,54. Aurreko urtearekin alderatuta, elikagaien eta edarien industriak gora egin du ehunekotan: % 1,24 egin du gora, eta 179 lanpostu berri sortu ditu.

9. taula. **Langileen banaketa industriako azpisektoreen arabera. 2015. urtea.**

Iturria: Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetzaren Estatistika Organoa. Geuk egina.

Aurreko urtearekin alderatuta, sektore guztiek sortu dute enplegua; hauek dira salbuespen: Zurgintza, papera eta arte grafikoak; Ur-hornidura, saneamendu-jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa; eta Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornidura.

2015. urtean Euskal Autonomia Erkidegoan, biztanleria okupatuaren % 20k industrian jarduten du; hau da, guztira 194.458 pertsonak lan egiten zuten sektore horretan.

Elikagaien eta edarien industria 5. postuan da industria-azpisektoreen barruan: 14.660 pertsonak lan egiten dute; Euskadiko biztanleria okupatuaren % 1,50 da, eta industria-enpleguaren % 7,54.

LANGILEKO PRODUKTIBITEA

Jarraian agertzen den grafikoak erakusten ditu industriako hainbat sektoretako produktibitateak, batez bestekotzat erabiliz balio erantsi gordinaren ratioa langileko.

8. grafikoa.- **Langileen balio erantsi gordinaren banaketa industriako azpisektoreen arabera. 2014-2015 urteak.**

Iturria: Eustat. Geuk egina.

Industrian, langileko produktibitateak % 1,03 egin zuen gora 2015. urtean, eta batez besteko balioa 77.110 eurokoa zen. Elikagaien eta edarien industriaren produktibitatea ertain-baxua da, industria horren zenbait azpisektoretan ekoizpen-prozesu batzuk mekanizatzeko zailtasunak daudelako, beste azpisektore batzuekin alderatuta, eta atomizazio handia dagoelako. Elikagaien eta edarien industriaren langileko produktibitatea industriako batez bestekoa baino gehiago handitu da (+% 2,19), eta 10. postuan dago, 64.800 eurorekin, industriako batez bestekoaren azpitik.

KANPO-MERKATARITZA

Euskadiko industria, 2015. urtean, garbiki esportatzailea izan zen, eta merkataritza-balantzaren balio absolutua 5.334 milioi eurokoa izan da.

Ildo beretik, eta esportazioaren bidea krisitik ihes egiteko bidetzat hartuta, elikagaien eta edarien industriaren merkataritza-balantzea positiboa izan zen (148 milioi euro). Horrela, esportazioen balioa 847 milioi eurokoa izan zen 2015ean; hau da, % 8,83 jaitsi zen 2014. urtearekiko. Eta inportazioak, berriz, asko handitu ziren (+% 9,13), eta guztira 698 milioi eurokoak izan ziren.

9. grafikoa. Esportazioak, inportazioak eta merkataritza-balantza azpisektoreka 2015. urtea.

Iturria: Eustat. Geuk egina.

Industriaren esportazioaren balioa 21.741 milioi eurokoa izan zen, eta haren % 3,89, gutxi gorabehera, elikagaien eta edarien industriari dagokio. 2014. urtearekin alderatuta, postu bat jaitsi du, eta 7. postuan dago Euskadiko industriako azpisektoreen artean.

10. taula. Esportazioen banaketa industria-azpisektoreka. 2015. urtea.

Iturria: Eustat. Geuk egina.

Industriaren inportazioen balioa 16.407 milioi eurokoa izan zen. Elikagaien eta edarien industriak % 4,26ko ekarpena egin zuen; 2014. urtean baino handiagoa da, eta 8. postuan dago industriako inportazioetan.

11. taula. **Inportazioen banaketa industria-azpisektoreka. 2015. urtea.**

Iturria: Eustat. Geuk egina.

3. MERKATARITZA ETA BANAKETA

EUSKADIKO MERKATARITZA

Merkataritzaren eta konponketen sektoreak Euskadin 31.000 milioi euroko negozio-zifra du (ia 42.000 establezimenduk dihardute sektore horretan, eta 130.000 pertsonak lan egiten dute) Euskal Autonomia Erkidegoaren BPGd-aren % 7,5 inguru.

Elikadurak Euskadin 3.600 milioi euro inguruko guztizko gastua du, txikizkako merkataritzaren sektorearen % 29. Kopuru horri elikadurarekin lotutako handizkako merkataritza gehitu behar zaio, eta kalkulatzen da 4.000 milioi euro direla.

Elikagaiak saltzen dituzten establezimenduen proportzio handienak 40 eta 119 m² artean ditu, eta, haren atzetik, 20 eta 39 m² arteko establezimenduak daude. Bi multzo horiek establezimenduen % 71 biltzen dute. Baina salmenta-azalera handiena 400 m²-tik gorako establezimenduek dute (% 5,5 dira guztira).

10. grafikoa. Elikadurako txikizkako merkataritza-establezimenduen kopurua. 11. grafikoa. Txikizkako merkataritzaren azalera.

Iturria: Eustat. Geuk egina.

Merkataritzaren sektorea beheranzko joera izaten ari da, bai establezimendu-kopuruari dagokionez, bai eta enplegu-kopuruari dagokionez ere. Eta establezimendu txikiei eragiten die bereziki. Dena den, txikizkako merkataritzan, elikaduran espezializatutako establezimenduek bilakaera positiboa izan dute, bai enpleguari dagokionez, baita negozio-bolumenari dagokionez ere.

12. taula. Handizkako eta txikizkako merkataritzako establezimendu-kopurua eta enplegua.

Iturria: Eustat. Geuk egina.

Nabarmentzekoa da Euskadiko merkataritza-sektorearen dinamismo handia. Eustatek enpresak sortzeari eta ixteari buruz egindako estatistikek erakusten dute urtean 3.300 enpresa berri sortzen direla (5.300 enplegurekin), eta arindu egiten duela nolabait enpresen desagertze-joera (oso dinamikoa hori ere).

13. taula. **Merkataritza eta konponketen sektoreak okupatutako langileak eta negozio-zifra.**

Iturria: Eustat.

Baina sektore horretako enpresa gehienak txikiak direla azpimarratu behar da. Izan ere, elikagaien sektorean mikroenpresen tasa % 97 ingurukoa da, eta, batez beste, 2,8 pertsona daude establezimenduko. 2015. urtean, denden batez besteko adina 26 urtekoa da, eta berriek zertxobait gora egin dute eta autonomoek kudeatzen dituzte batez ere.

12. grafikoa. **Mikroenpresen tasaren bilakaera.**

Iturria: ikusmer.

Beste muturrean “Banaketa modernoa” deritzona daukagu, merkataritza-talde handiak, kontzentratzen eta hazten. Euskadin, 2016. urtean, merkataritza-talde handi horiek 900 establezimendu baino gehiago kudeatzen dituzte, ia 600.000 m².

“Euskal Merkataritzaren Ekintza Plana 2014-2016” egitasmoan ageri denez, merkataritza-banaketa zenbait tentsioren pean dago: krisi ekonomikoak eskariaren jaitsiera handia eta finantzaketa-lerroen eskasia ekarri du, eta horrek tentsio koiunturalak zein egiturazkoak ekarri ditu. Horrez gain, beste zenbait egoera ere ari dira gertatzen: merkataritza-operadore handien kontzentrazioa, aldaketa teknologikoak, merkataritza-kanal berriak sortzea eta kontsumitzaileen portaera-ereduen bilakaera handia. Horrek guztiak egoera berrietara etengabe berregokitzera behartzen du sektorea, baita kudeaketarekin loturiko alderdi guztietan enpresen posizionamendua birdefinitu behar izatera ere, haien egitura merkatuen dimentsio berrira egokitzeko.

1 Euskadiko txikizkako merkataritzaren azterketa. Sektorea: elikadura. Ikuspegia eta bilakaera, 2010 – 2015 Ikusmer. 2 Euskal Merkataritzaren Ekintza Plana 2014-2016. Eusko Jaurlaritza.

ESPAINIAKO EGOERA

Gaur egun, Espainian elikagaien banaketaren 6 operadore handiak daude aurre-aurrean: guztira merkatuaren % 53,9 biltzen dute eta ehuneko hori etengabe ari da hazten. Horien artean, Mercadona nabarmentzen da, elikagaien eta drogeriaren banaketa handiaren sektorean % 23,6 metatzen baitu fakturazioari dagokionez.

13. grafikoa. Banaketa handiaren merkatu-kuota.

Bigarren postuan dagoen operadorea Carrefour hipermerkatuak eta supermerkatuak dira, eta horiek % 8,5 hartzen dute. Haien atzetik, deskontu-kate nagusietako bat dago, Día, % 8,2rekin, eta laugarren lekuan Eroski taldea dago, % 5,7rekin (badirudi azken urteetako desinbertsio-bidearen amaieran dagoela). Ondoren, Lidl dago % 4,3rekin, eta, atzetik, % 3,6rekin Auchan taldea (Alcampo eta Simply Market).

ELIKAGAIEN BANAKETA EUSKADIN

Azken urteetan, Euskadiko txikizkako banaketa handian mugimendu estrategiko asko gertatzen ari dira; horien artean nabarmentzekoak dira Eroskik produkzioan egindako doikuntza, Mercadonaren merkaturatzea eta Uvesco taldearen garapena. 2012. eta 2016. urteen artean, establezimenduen kopurua handitu egin da (70 gehiago daude), eta salmenta-azalera 64.134 m² handitu da.

Azken urteari soilik erreparatuta, ikusi da 24 supermerkatu txiki ireki direla (5.000 m² baino gehiago), eta 400 m²-tik gorako 14 supermerkatu (18.500 m² guztira).

2012an, % 0,4 areagotu zen txikizkako merkataritza-hornidura. Areagotze hori Arabari eta Gipuzkoari esker gertatu zen, % 1,7 eta % 0,7 igo baitziren ondoz ondo; aldiz, Bizkaiak % 0,2 egin zuen atzera. Hori horrela, 2012ko abenduaren 31n, EAEn 893 establezimendu zeuden, eta 511.509 m² hartzen zituzten; horrek esan nahi du % 4,18 dela estatuko guztizkoari dagokionez, hain zuzen, estatuak 20.215 establezimendu zituen eta 12.239.666 m² hartzen zituzten.

Euskadiko banaketa handiaren rankinga Espainiakoaz guztiz bestelakoa da. Liderra Eroski taldea da, txikizkako salmentaren % 37 biltzen du. Uvesco taldea bigarren postuan dago, % 19rekin, 2011. urtetik operadoreen kontzentrazio-prozesu handienetako bat izan ondoren. Ondoren, Día, Auchan eta Carrefour daude (% 9, % 8,3 eta % 8,1, hurrenez hurren). Eta horien atzetik, Lidl, zentroen eraldaketa-estrategikoko prozesu batean murgilduta, eta Mercadona, irekitze-jarduera handiarekin, eta gaur egun 13 zentro eta salmentako 20.000 m²-ko azalarekin.

Euskadin, handizkako banaketaren lider Makro taldea da. Guztira salmentako 30.000 m²-ko azalera baino gehiago du, 13 establezimendutan.

Etxeetan, elikagaien erosketek % 0,9 egin dute gora azken urtean, baina ez dute modu egonkorrean lortu krisiaren aurreko mailetan kokatzea. Biztanleria ia egonkor dagoela, elikagaien erosketen bolumenak behera egin du etxeetan, eta prezioek gora egin dutelako handitu dira balioak.

14. grafikoa. **Etxeiko kontsumoa guztira, EAEn. (milioi euro)**

15. grafikoa. **Biztanle bakoitzeko gastu eta kontsumoaren eta biztanleriaren bilakaeraren indizea.**

Iturria: Elikagaien kontsumoari buruzko taula. Ministerioa.

Etxeetako elikagai-kontsumoaren gastuaren kanalen arteko banaketan oso aldaketa handiak gertatu dira. Supermerkatu zein discount ereduetan etengabeko hazkundeak gertatzen ari dira, eta 2005 eta 2016 artean 12 puntu egin du gora, bi ereduak kontuan hartuta.

Ehunekotan behera gehien egin duen ereduak ohiko denda da: aldi horretan merkatu-kuotaren ia 10 puntu galdu ditu. Azken urtean soilik, ohiko dendek merkatu-kuota % 3,5 jaitsi da. Ohiko dendek, 2005. urtean, produktu freskoen erosketaren ia % 50 biltzen zuten. Horrenbestez, banaketa handiaren azken urteetako indarraldiak behera bultzatu du hurbileko merkataritza espezializatuaren merkatu-kuota.

16. grafikoa. Elikadurako gastuaren banaketa, kanal motaren arabera.

Iturria: Elikagaien kontsumoari buruzko taula. Ministerioa.

Nabarmentzekoa da elikagaien Internet bidezko salmenta izaten ari den bilakaera. Oraindik oso gutxi garatutako kanala den arren (ez da merkatu-kuotaren % 1era iristen), aurreko urtearekiko % 28 egin du gora azken urtean.

4. HORECA

Azken urteetan, krisi ekonomikoa eragina izaten ari da kontsumitzaileen ohituretan; hala, tabernetan eta jatetxeetan elikagaien gastua murrizten ahalegintzen dira kontsumitzaileak. Etxetik kanpoko kontsumoaren atzerakada Horeca kanalean islatzen da bereziki: azken urteetan behera egin dute establezimenduen kopuruak eta salmentek.

Euskal Autonomia Erkidegoak HORECA kanalarekin lotura duten 13.979 establezimendu zituen 2014. urtean; 12.941 jan-edanarekin lotuta zeuden, eta 1.038, establezimendu, berriz, ostalaritzarekin. **HORECA kanalarekin** lotutako **establezimenduen** kopuruak % 5 egin du behera 2009tik. Dena den, aipatu behar da ostalaritzarekin lotutako establezimenduen kopuruak % 9 egin duela gora, eta jan-edanarekin lotutakoenak, berriz, % 5 behera.

17. grafikoa. **Horeca kanalarekin lotutako establezimenduen kopuruaren bilakaera, motaren arabera (2009 -2014)**

Iturria: Eustat.

Biztanle landunei dagokienez, Horeca kanalarekin lotutako establezimenduetan 53.415 pertsonak lan egiten zuten 2014an. Haietatik, 5.723k ostalaritzarekin lotutako establezimenduetan lan egiten zuten, eta 47.692k, jan-edanarekin lotutako establezimenduekin. 2009. urtearekin alderatzen badugu, ikusten da sektorean, oro har, landunen kopuruak % 4 egin duela gora. Baina jan-edanarekin lotutako establezimenduetan % 5 egin zuen gora, eta ostalaritzarekin lotutakoetan, berriz, % 6 egin zuen behera.

18. grafikoa. **Horeca kanalarekin lotutako landunen kopuruaren bilakaera, motaren arabera (2009 -2014)**

Iturria: Eustat.

Termino ekonomikoetan, Euskal Autonomia Erkidegoan sektoreak faktore-kostuetan adierazitako balio erantsi gordina 2.314.630 mila eurokoa izan zen 2014. urtean. Ostalaritzarekin lotutako establezimenduek sortutakoa 329.128 mila eurokoa izan zen, eta jan-edanarekin lotutako establezimenduek sortutakoa, 1.985.502 mila eurokoa. Sektoreak lortutako balio erantsi gordina % 2 jaitsi da 2009tik 2014ra.

14. taula. **Ostalaritza eta jatetxeen sektoreko (Horeca) makromagnitudeak, moten arabera. 2009. eta 2014. urteak**

Iturria: Eustat.

Aurreko taulan ikusten den bezala, faktore-kostuetan adierazitako balio erantsi gordinetan, sektore osoan lortutakoaren guztizkoarekiko, ostalaritza-zerbitzuek % 15 lortu zuten 2009. urtean, eta % 14ra jaitsi zen 2014an. Jan-edateko establezimenduek sortutako balio erantsi gordina, berriz, guztizkoaren % 85 zen 2009. urtean eta % 86koa 2014an.

HORECA sektoreak ekonomiaren guztizko BPGd-ari egiten dion ekarpena % 3,94koa zen 2009. urtean, eta % 3,81era murriztu zen 2014an.

5. GARRAIOA

Azken urteetan garraioen eta posta-jardueren sektoreak bere barne produktu gordinaren balioa handitu du, bolumenean 2014tik eta balioan 2013tik. Kriariaren ondorengo suspertze hori, gainera, jarraitua da eta haren balioa % 5,7koa izan zen 2015ean.

15. taula. **Garraioa eta biltegiatzea sektorearen BPGd-a- 2010-2015 aldia.**

Iturria: Eustat

19. grafikoa. Errepide bidezko eskualde barneko eta eskualde arteko garraioaren tipologia. 2014. urtea (%)

Iturria: Salgaien errepideko garraioari buruzko etengabeko inkesta. Sustapen Ministerioa

Elikagaiekin lotutako produktuen trenbide bidezko garraioari dagokionez, zerealak eta ongarriak soilik dira. Itsasoz, olio-landareen haziak eta beste lehengai batzuk inportatzen dira, eta ongarriak eta beste landare- eta animalia-produktu batzuk esportatzen dira. Aire bidezko garraioari dagokionez, landare- edo animalia-jatorriko produktuen inportazioa nabarmendu behar da, baina bide horretatik doazen kantitateak ez dira urtean 3.000 tonatik gorakoak³.

³Euskal Autonomia Erkidegoko garraioaren gaur egungo diagnostikoa. Euskadi.eus

6. TURISMOA

Eustaten datuen arabera, Euskal Autonomia erkidegoan 2015ean egindako gastu turistikoa 4.100 milioi eurokoa izan zen; hau da, % 5,9ko ekarpena egin zion BPGd-ari, duela bost urte baino ehuneko bost hamarren gehiago.

Gastu turistikoak izandako bilakaera ekonomiaren gastuak oro har izandakoa baino handiagoa da, eta, horregatik, turismoaren pisua gero eta handiagoa da Euskadiko ekonomian. 2015ean, gastu turistikoak % 4,5eko igoera izan zuen, ekonomiak oro har izandako igoera (% 3) baino handiagoa. 2015. urtean, gastu turistikoa bi noranzkoetan igo da; hots, bai turismo hartzailean (atzerriko turistek zein estatuko gainerako erkidegoetako turistek Euskal Autonomia Erkidegoan egiten duten gastua), bai gastu turistikoaren beste osagai batzuetan, baina handiagoa izan da lehenengoan. Horren ondorioz, turismo hartzaileak gastu osoan duen parte-hartzea handitu egin da beste urte batez, eta % 51,4koa da 2015ean, gastu turistikoaren beste osagai batzuen baina handiagoa. Hain zuzen ere, 2010 eta 2015 artean turismo-hartzaileak gastu turistikoari egin dion ekarpenak 4,1 puntu egin du gora.

16. taula. **Turismoak Euskadiko ekonomian urtean egiten duen ekarpena. Balio absolutua eta merkatu-prezioen araberako BPGd-aren % Eguneko prezioak. Milioi €. 2014. urtea (%)**

Iturria: Eustat. Turismoaren kontu satelitea. 2010. oinarria

Euskal Autonomia Erkidegoa gehiago da turismo igoerlea (EAEko herritarrak erkidegotik kanpo egiten dituzten bidaiak eta txangoak) turismo hartzailea baino (autonomia-erkidegoan bizi ez direnek erkidegoan egiten dituzten bidaiak eta txangoak), eta horrek 2.221 milioi euroko defizita eragin zuen 2015. urtean; hots, BPGd-aren % 3,2. Dena den, saldo negatibo hori murriztu egin da 2010-2014 aldian, turismo hartzaileak dinamismo handiagoa duelako, batetik, eta euskaldunek erkidegotik kanpo egiten duten gastua murriztu egin delako, bestetik.

Atzeritik datozen bisitari gehienak txangolariak dira. Atzerriko txangolariak muga gurutzatzen dute baina ez dute lurraldean igarotzen gaua; gehienetan produktu eta zerbitzu pertsonalak eskuratzeko gurutzatzen dute muga. Euskadiren kokapen geografikoa aproposa da horretarako, eta Donostialdea-Txingudi korridorean biltzen dira gehien bat. Hain zuzen ere, 2013. urtean beste herrialde batzuetako biztanleek Euskal Autonomia Erkidegora egin zituzten bisiten % 88,2 biltzen du turismo mota horrek. Gainerako % 11,8 turistak dira, hitzaren esanahi hertsian; hau da, bidaiari gutxienez gau bat bertan ematen duten bidaiariak. Kolektibo horrek urtean % 17,0 egin zuen gora 2010 eta 2013 artean; hots, txangozaleenak baino azkarrago, aldi horretan urtean % 4 handitu baitzen.

Turistek kontsumitzen dituzten ondasunen eta zerbitzuen ekoizpena jarduera-adar jakin batzuetan kontzentratzen da, turismoko bereizgarriak deritzenetan, hain zuzen. "Industria turistiko" horren barruan sartzen dira turisten ostatu- eta janari-beharra asetzen duten establezimenduak (hotelak, jatetxeak, tabernak, kafetegiak...); turistei garraioa ematen dietenak edo garraioa errazten dutenak (bidaiariari garraioa, modalitate guztietan; ibilgailuen alokairua; garraioarekin lotutako zerbitzuak...); entretenimendua ematen dieten zerbitzuak ekoizten dituztenak (jolas- eta kultura-jarduerak); eta zerbitzu guztiak eskuratzeko bitarteko-lanak egiten dituztenak (bidaia-agentziak).

TURISMO-ESKAITZA

2016. urtean, Euskadin 985 establezimendu turistiko hartzaile zeuden. % 5eko igoera da 2011ko zifrekiko. % 52 hotelak dira, % 47 landako ostatuak eta % 2 kanpinak.

Egunean 32.300 plaza inguru eskaintzen dira. Plazen % 88 hotel-establezimenduek eskaintzen dituzte (tipologia horrek % 4ko igoera izan du 2011. eta 2016. urteen artean), eta landako ostatuak eskaintzak, berriz, ia egonkor iraun du.

Hazkundera izan den arren, establezimendu horietan lan egiten duten langileen kopuruak % 7 egin du behera aipatutako aldi horretan.

OSTATU-GAUAK ETA OKUPAZIO-MAILA

2015eko balantzean, bidaiarien sarreretan % 8,8ko igoera izan zen, eta ostatu-gauetan, % 8,2koa. 2015. urtean bidaiarien 2.637.385 sarrera izan ziren, aurreko urtean baino 212.553 gehiago. Bidaiarien sarrerak % 6,8 egin du gora Araban; % 8,6, Gipuzkoan; eta % 9,5, Bizkaian.

2015. urtean 5.041.338 ostatu-gau egin ziren; hau da, aurreko urtean baino 383.833 gehiago. Ostatu-gauak % 4,9 igo ziren Araban; % 8,3, Bizkaian; eta % 9,4, Gipuzkoan.

Batez besteko egonaldiak zertxobait behera egin du: Euskal Autonomia Erkidegoan 1,92 egun izan ziren 2014an, eta 1,91 egun 2015ean. Plazen okupazio-mailak, berriz, gora egin du: % 46,4, 2014an, eta % 49,8, 2015ean.

EAEen nekazaritza-turismoko establezimenduetan egonaldiak 137.035 izan dira 2015ean, eta aurreko urtean baino % 8,9 gehiago. Ostatu-gauak, guztira, 356.476 dira, 2014an baino % 9,2 gehiago. Bidaiariaren batez besteko egonaldia ez da ia aldatu 2015. urtean: 2014. eta 2015. urteetan, bietan, batez besteko egonaldia 2,60 egunekoa izan zen. Plazen okupazio-mailak gora egin du: % 23,3koa izan zen 2014an, eta % 25,1ekoa, 2015ean.

LANDA-TURISMOA ETA TURISMO GASTRONOMIKOA

IBILTUR 2014 (Basquetour) dokumentuan adierazten denez, Euskadin turismoa egiteko arrazoi nagusia hiriko turismoa da (% 25), baina gastronomia eta ardoen turismoa dago bigarren lekuan (% 21).

20. grafikoa. **Turistek Euskadi bisitatzeko arrazoiak.**

Iturria: Ibiltur. Basquetour

Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkestaren arabera. Estatistikaren barruan ez dira kanpinak sartzen, baina 2012ko datuei erreparaturik, kanpinen eskaintza 23 establezimendukoa zen, eta Euskadiko Kanpinen Federazioko web-orriko informazioaren arabera, 2017an 20 establezimendu daude.

Azpimarratu behar da turismoa egiteko arrazoiak inoiz ez dela bakarrik. Horrenbestez, modu segmentatuan aztertzen badugu, ikusiko dugu kostako turismoa egitera etortzen direnentzat, gastronomiaz gozatzea arrazoi bat dela kasuen % 62an. Landa-turismoa gogoko dutenen artean, gastronomiaz gozatzea arrazoi bat da % 47rentzat; kultura gogoko dutenen artean, % 58rentzat; naturagatik edo touringa egiteko bisitatzen gaituztenen artean, % 52rentzat; eta hiriak bisitatzera datozenen artean, % 55rentzat. Eta, gainera, segmentu gehienetan lehen edo bigarren arrazoi nagusia da.

21. grafikoa. **Turistek Euskadi bisitatzeko arrazoiak.**

Iturria: Ibiltur. Basquetour

Horregatik, turistek Euskadin egiten dituzten jardueren artean, gastronomiarekin lotutakoak gehien egiten direnetakoak dira. Eta joera are nabarmenago da Donostia eta Arabako Errioxa bisitatzen dutenen artean.

Horrez gain, turistek egiten dituzten gastuen barruan, gastronomiarekin eta ardoekin lotutako arrazoiak direla-eta bisitatzen gaituztenek egiten dute eguneko batez besteko gastu handiena (eguneko 110 €).

Elikadurak turisten gastuaren % 41 biltzen du, ostatuan egiten duten gastuaren oso antzekoa. Eta produktu-erosketari dagokionez, gastronomiarekin lotutakoak gastuaren % 50 inguru dira, oro har.

22. grafikoa. **Gastuaren banaketa Euskadin, bidaiaren arrazoi nagusiaren arabera.**

Iturria: Ibiltur. Basquetour

23. grafikoa. **Erosketen banaketa, produktuka, bidaiaren arrazoi nagusiaren arabera.**

Iturria: Ibiltur. Basquetour

Jatetxe, kafetegi eta abarretan otorduren bat egiten duten bisitarien ehunekoak gora egin du etengabe, eta ia % 100ekoa izan zen 2014an. Pintxoen tabernez gain (aipatu behar da 2004tik bikoiztu egin direla turistak jatera joaten diren lekuen artean), 2014an bisitariak erdi eta erdi aukeratu dituzte eguneko menuko jatetxeak eta kartako jatetxeak, eta bisitatzen gaituzten % 57k erabiltzen dituzte.

24. grafikoa.- Bisitarien ehunekoa joaten diren establezimendu motaren arabera.

Iturria: Ibiltur. Basquetour

7. KONTSUMOA

Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak argitaratzen duen Elikagaien kontsumoari buruzko taulako datuek adierazten dutenez, 2015. urtean Euskadiko etxeen elikadura-gastua 3.540 milioi eurokoa izan zen; estatu osoko gastuaren % 5,3 da. Gastu horrek beheranzko joera du, 2014. urtean bezala, eta % 0,7ko jaitsiera izan du. Jaitsiera hori elikagaietan eta edarrietan izandako kontsumoa jaitsi delako gertatu da batez ere (% 2,7ko jaitsiera izan du). 2014-2015 aldian, EAEn elikagaien batez besteko prezioak % 2,1 egin zuen gora eta kiloko 2,68 €-koa da.

17. taula. **Etxeko kontsumoa, gastua eta elikagaien batez besteko prezioa EAEn. 2014. eta 2015. urteak**

Iturria: Elikagaien kontsumoari buruzko taula. Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa.

25. grafikoa. **Biztanle bakoitzeko elikagai-kontsumoak (kg) eta gastuak (€) Euskadiko etxeetan izan duten bilakaera. 2004-2015 aldia.**

EAEko biztanle bakoitzeko kontsumoa (hau da, pertsonako kontsumitutako elikagaien bolumena) 659,5 kg-koa izan zen 2015ean (2014an baino % 4 gutxiago). Biztanle bakoitzeko gastua (pertsonako batez besteko gastua) 1.771,6 €-koa izan zen, eta elikagaien kontsumoaren portaera bera izan zuzen, % 2,1 jaitsi baitzen aurreko urtearekiko.

Iturria: Elikagaien kontsumoari buruzko taula. Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa.

Bai 2014an, bai 2015ean, EAEko biztanle bakoitzeko gastu handiena "Gainerako elikagaiak" partidan izan zen (381 eta 388,4 €, hurrenez hurren), eta txikiena "Arrautzak" partidan (24,3 eta 21,4 €, hurrenez hurren) grafikoa ikus daitekeen bezala.

26. grafikoa. **EAEko biztanle bakoitzeko elikagai-kontsumoa (kg edo litrotan) eta gastua (€-tan). 2014. eta 2015. urteak.**

Iturria: Elikagaien kontsumoari buruzko taula. Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa.

2014. urtearekin alderatuta, EAEko **biztanle bakoitzeko kontsumoak** behera egin zuen elikagai guztietan, Gainerako elikagaiak partidan izan ezik. Jaitsiera handienak Arrantzako produktuak (-% 8,4), Barazki eta patata freskoak (-% 7,7) eta Olioia (-% 7,5) partidetan izan ziren.

Biztanle bakoitzeko gastuan ere jaitsierak izan ziren: -% 6,1 Arrantzako produktuetan eta -% 2,9 Barazki eta patata freskoetan. Eta, aldiz, Olio partidan egindako biztanle bakoitzeko gastuak % 10,6 egin zuen gora, olioaren prezioak gora egin zuelako.

2015ean, biztanle bakoitzeko gastu handiena Gainerako elikagaiak eta Haragia partidetan izan zen (guztizko biztanle bakoitzeko gastuaren % 22 eta % 21, hurrenez hurren). Arrantzako produktuak % 15 dira, eta Fruta eta fruitu lehorrak eta Esnea eta esnekiak % 11, bi-biak.

2015eko biztanle bakoitzeko kontsumoari dagokionez, Gainerako elikagaiak kontsumoaren % 25 da; Fruta eta fruitu lehorrak, % 19; Esnea eta esnekiak, % 18; eta Barazki eta patata freskoak, % 13.

27. grafikoa. **EAEko etxeko elikagaien biztanle bakoitzeko kontsumoaren (kg edo litrotan) eta gastuaren (€-tan) banaketa. 2015. urtea.**

Iturria: Elikagaien kontsumoari buruzko taula. Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa.

Produktu guztiek ez dute prezioen bilakaera berdina izan. Arrautzek, Esnekiek eta Ogiak izan dute jaitsiera handiena (% 3,4, % 2,4 eta % 0,4, hurrenez hurren). Eta, aldiz, Olio, Ardoak, Barazki eta patatek eta Frutek izan dute igoera handiena.

18. taula. **EAEko elikagai nagusien prezioak 2004., 2014. eta 2015. urteak.**

Iturria: Elikagaien kontsumoari buruzko taula. Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa.

Elikagaiak erosteko lekuari dagokionez, ohiturak aldatuz joan dira: estatuan gero eta azalera handiagoetan egiten dira, 2007tik 2015era arteko bilakaerari erreparatzen badiogu. Supermerkatuetan eta autozerbitzuetan erosten da elikagai-bolumen handiena. Eta Okindegia, Izoztuen denda, Azokak/azoka ibiltariak eta Ekonomatuak/Kooperatibak motako establezimenduetan izan ziren erosketa-jaitsiera handienak, grafikoa ikusten denez.

28. grafikoa. Estatuko elikagaien kontsumoa (mila kilotan), erosketa-lekuaren arabera. 2007. eta 2015. urteak

Iturria: Elikagaien kontsumoari buruzko taula. Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa.

Elikagaia erosteko ordaindutako batez besteko prezioari dagokionez, 2007 eta 2015 bitartean Okindegiak eta Discount establezimenduetan izan ziren igoera handienak (% 30,6 eta % 25,2, hurrenez hurren). Eta Ohiko denda, Ekonomatua/Kooperatiba eta Azoka ibiltariak motetan jaitsi zen gehien batez beste ordaindutako prezioa (% 9,2, % 1 eta % 0,7, hurrenez hurren).

ELIKADURA-SEKTOREAREN JOERAK 2017RAKO

Ondoren, elikadura-sektorearen 2017ko joerei buruzko ondorio nagusiak zerrendatuko ditugu:

- Alferrik galdutako elikagaien kopuruak behera egin du.
- Enpresen inplikazioa eskatzen da alferrik galdutako elikagaiak gero eta gutxiago izateko.
- Etiketen garrantziari buruzko gero eta adostasun handiagoa dago.
- Elikagaien jatorriak badu garrantzia.
- Elikadurak eta sukaldaritzak gero eta interes handiagoa pizten dute.
- Oliba-olioak, haragi zuriak, jogurtak, garagardoak eta ardoek (Cava barne) gero eta aintzatespen handiagoa dute.
- Arrain urdinak, azukrea, fruta-freskagarriak, patata frijituak, kafea, opilak eta graduazio handiko edari alkoholdunak gero eta okerrago ikusita daude.
- Edarien kontsumoak behera egin du, alkoholak eta azukreak gero eta fama txarragoa dutelako.
- Granjako produktuen kontsumoak gora egin du.
- Izen onena duten elikagaiak eta edariak dute kontsumo handiena, eta alderantziz.
- Askotariko elikagaiak jateko eta orekatu jateko ohitura gero eta handiagoa da.
- Otordu artean mokaduak jatea gero eta ohikoagoa da.
- Errezeta berriak maiz probatzeko ohiturak behera egin du.
- Janaria prestatzeko ohitura apaldu egin da, eta prestatuta erosten dira.
- Prestatzeko errazak eta azkarrak diren produktuak jateko ohiturak behera egin du.
- Sukaldeko tresnen erabilerak behera egin du.
- Baratze eta terrazetan fruta eta barazkiak landatzeko joerak behera egin du.
- Erosketan esperientziak bilatzea ohikoagoa da.

ETXETIK KANPOKO KONTSUMOA

Etxetik kanpoko kontsumoak etengabe egin du behera krisia hasi zenetik, baina eskura dauden azken datuek adierazten dute azken urtean suspertu egin dela. Nielsen 360^o txosteneko datuek adierazten dutenez, 2016. urtean bolumena % 6 handitu da, eta balioa, % 6,8. Eta Kantar txostenaren arabera, igoera hori otordu nagusietan gertatu da; hots, bazkarietan eta afarrietan.

Balioa kontuan hartuta, etxetik kanpo gehien kontsumitzen diren produktuak edari hotzak dira. Etxetik kanpoko kontsumoa % 64koa da, eta urtean 8.500 milioi eurokoa. Edari hotzen artean, garagardoak du merkatu-kuota handiena, eta % 37koa da. Haren atzetik daude edari destilatutako (% 20), eta ardoak eta freskagarriak (% 16 bi-biak).

30. grafikoa. **Etxean eta etxetik kanpo kontsumitutako elikagaien bolumena (kg) ehunekotan.**

Iturria: Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa.

Etetik kanpoko elikagai-kontsumoaren egitura etxeko kontsumoaren egituraren desberdina da: barazkiek, ogiak, haragiak eta itsaskiek pisu handiagoa dute etxetik kanpoko kontsumoan, eta frutak eta esnekiek, berriz, etxekoan.

Nielsen 360º txosteneko datuen arabera, taberna eta kafetegiek hartzen dute etxetik kanpoko kontsumoaren zatirik handiena (% 57), eta ondoren hotel eta jatetxeek, % 37. Gaueko kontsumoak % 5 hartzen du, eta sasoiko HORECA kanalak, % 1.

KONTSUMO-JOERAK ELIKADURAN

AZTI Tecnaliak (iturria: <http://www.AZTI.es/es/eatendencias-2016/>) datozen urteetan elikaduran eragingo duten mugimendu hauek planteatzen ditu. **'Elikadura iragankorra'**. Janariaren kontsumoak hiriko bizitza-eritmo berrietara egokitu beharko duela esan nahi du, elikagaiek edozein unetan eta edonon eskura izan beharko dutela, berehala asetzeko moduan eta kalitaterik eta osasungarritasunik galdu gabe. **'Elikadura-kontzientzia'**. Ingurumenaren aldetik jasagarriak diren eta ekoizpen-kateko mailetan pertsoneri edo animaliei tratatu txarrik eragin ez zaien produktu eta zerbitzuen aldeko gero eta apustu irmoagoa da.

Norberaren osasun-egoera zein den gero eta hobeto jakiteak beren osasun-egoera kudeatzera daramatza kontsumitzaileak eta dieta pertsonalizatu baten alde egitera, produktu osasuntsu eta beren behar jakinetara egokitutakoekin. **"Osasun pertsonalizatua"**ren aldeko apustu hori **"Nire neurria"** kontzeptuarekin osatzen da. Kontsumoa nork bere nortasuna adierazteko beste modu bat da, eta, beraz, nortasun hori indartzen laguntzen duten elikadura-produktuak eta -zerbitzuak eskatzen ditu publikoak.

Gaur egungo bizitza-eritmo bizkorrean, bide **"errazaren eta zentzuzkoa"**ren alde egiten dute pertsonak, eta denbora aurrezteko eta bizitza errazteko moduko soluzio malguak eta arrazoizkoak eskatzen dituzte. Eritmo bizkorreko eta globalizazioko gaur egungo testuinguruan, tokikoarekiko eta gertukoarekiko lehentasun handi bat sortzen ari da aldi berean, eta horrek **"Jatorriak axola du"**ela erakusten du.

Kontsumitzaileak, jateko orduan, ez dira produktu bat erostearekin konformatzen; une paregabe eta gogoangarri bat nahi dute: **"Elikadura-esperientzia"** bat. Ondo pasatzea, berriarekiko erakarpina eta egoera emozionalak bilatzea (zoriontasuna, lasaitasuna, urduritasuna...) elikaduraren unibertsoaren parte dira dagoeneko.

Bestetik, teknologia berriak elikaduraren inguruan parte hartzeko kultura bat sustatzen ari dira. Kontsumitzaileak ez dira janari-hartzaile soilak; **"Parte-hartzea"**ren bidez, produktu berrien zaporeei eta eskaerei buruz iritziak eman ditzakete, haietatik ikasi eta haiengan eragin. Kontsumitzaileen parte-hartzeak izan duen bultzadaren adibide bat da elkarlaneko kontsumoko plataformek sortu duten irabazia: 2015ean, 3.500 milioi dolar baino gehiagokoa izango da.

Elikaduran, **"Kontzientzia"**ren joerak, berriz, produktu, enpresa eta marka irekiago, zuzenago, enpatikoago, eskuzabalago eta baita dibertigarriagoen alde egitera eramaten ditu pertsonak. Bere buruarekin identifikatzeko produktuen bila aritzen dira kontsumitzaileak, eta elikagaien sektorearen eta pertsonen arteko harremana konfiantzan eta gardentasunean oinarrituta egotea nahi dute. Bere balio pertsonalekin bat datozen enpresekin identifikatzen da kontsumitzailea.

III. ERANSKINA

JOERA ETA ERRONKA GLOBALAK, FAO-REN ARABERA

1. TESTUINGURU GLOBALA FAO-REN ARABERA

Atal honetan FAOren “**Elikaduraren eta nekazaritzaren etorkizuna. Joerak eta erronkak**” dokumentuaren laburpena egiten da. Dokumentu horrek hurrengo hamarkadetan elikaduran eta nekazaritzan eragingo duten joera eta erronka global nagusiak aurkezten ditu.

Hau da FAOren helburua: **“goserik eta malnutriziorik ez duen mundu bat, non elikagaiak eta nekazaritzak pertsona guztien, eta, bereziki, pobreenen bizi-baldintzak hobetzeko aukera emango duen, ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren aldetik jasangarria izateko moduan”**.

Helburu hori lortzeko, erakunde horrek presaz landu beharreko 10 erronka zehaztu ditu; horretarako, munduan gertatzen ari diren joerak kontuan izan behar direla iritzita.

Munduko joerak

1. Hazkunde demografikoa, urbanizazioa eta zahartzea.
2. Munduko hazkunde ekonomikoa, inbertsioak, merkataritza eta elikagaien prezioa.
3. Natura-baliabideak lortzeko lehia handitzea.
4. Klima-aldaketa.
5. Nekazaritza-produktibitatea eta berrikuntza.
6. Mugaz gairik izurriteak eta gaixotasunak.
7. Gatazkak, krisiak eta hondamendi naturalak.
8. Pobrezia, desberdintasuna eta elikagaien segurtasunik eza.
9. Nutrizioa eta osasuna.
10. Egitura-aldaketak eta enplegua.
11. Migrazioak eta nekazaritzaren feminizazioa.
12. Elikadura-sistemen aldaketak.
13. Elikagaiak hondatzea eta alferrik galtzea.
14. Elikagai-segurtasunerako eta nutriziorako gobernantza.
15. Garapenerako finantzaketa.

Aurre egin beharreko 10 erronkak (FAO)

1. Nekazaritzaren produktibitatea modu jasangarrian hobetzea, eskari gero eta handiagoari erantzuteko.
2. Balio naturalen oinarri jasangarri bat bermatzea.
3. Klima-aldaketaren eta hondamendi naturalen intentsifikazioaren auziei heltzea.
4. Mugaz gairik izurriteak eta gaixotasunak prebenitzea.
5. Muturreko pobrezia desagerraraztea eta desberdintasuna murriztea.
6. Gosea eta malnutrizio mota guztiak desagerraraztea.
7. Landa-eremuetan diru-sarrerak lortzeko aukerak hobetzea, eta migrazioak sorrarazten dituzten arrazoiei aurre egitea.

8. Krisi luze, hondamendi eta gatazkekiko erresilientzia handitzea.
9. Elikadura-sistemak eraldatzea, eraginkorragoak, inklusiboagoak eta erresilienteagoak izan daitezen.
10. Gobernu-sistema koherente eta eraginkorra, naziokoa zein nazioartekoa.

1.1 MUNDUKO JOERAK

Ondoren elikaduran eta nekazaritzan eragiten duten joera global nagusiak aztertzen dira, baita zailtasunak ere —hots, zer zailtasuni aurre egin beharko zaien—.

1. joera. Hazkunde demografikoa, urbanizazioa eta zahartzea.

Munduko biztanleriaren hazkundera moteltzen ari da, baina Afrikan eta Asian biztanleria handitzen ari da. Biztanleria-dinamikek errotik aldatuko dute demografia datoen hamarkadetan. Aurreikuspenen arabera, 2050. urterako, munduko biztanleria hazi egingo da eta ia 9.700 milioi pertsonakoa izango da. Hazkunde hori, seguruenik, Afrikan eta Asiako hegoaldean bilduko da.

Enplegu-aukera nahikoa ez badago, biztanleriaren joera horrek emigrazio- eta urbanizazio-indizeak handitu ditzake, eta litekeena da gatazken kopurua ere handitzea.

Eta bien bitartean, azkar zahartzen ari den biztanleriara egokitu behar dute beste eskualde batzuek (diru-sarrera gutxiko herrialdeei ere eragiten dieten ezaugarria da).

2. joera. Munduko hazkunde ekonomikoa, inbertsioak, merkataritza eta elikagaien prezioa.

Hazkunde ekonomikoa aldatzeko eragiten ditu dietan, eta nekazaritzako eskaria bultzatzen du. Azken hamarkadetan hazkunde ekonomikoa handia izan da. Munduko BPGd-ak urtean % 2,6 egin du gora 1990etik 2014ra, diru-sarrera ertaineko eta gutxiko herrialdeek eraginda batez ere (urteko % 5,1 inguru igo zen haietan). Goraka datozen herrialdeetan izandako diru-sarreraren hazkunde handiaren eraginez, klase ertainak gora egin du munduan, eta, ondorioz, dieta-aldaketa bizkortzen ari da. Elikagaien eskaria aldatzen ari da, eta haragia eta esnekiak eta ekoizpen intentsiboko beste elikagai batzuk gero eta gehiago kontsumitzen dira. Eta horrek ondorio handiak ditu baliabide naturalen erabilera jasangarrian.

FAOk etorkizuneko nekazaritza-eskaintzari eta -eskariari dagokionez egindako azken proiektioek adierazten dutenez, munduan 2050era arte neurritzko hazkunde ekonomikoa egongo da, eta diru-sarreraren arteko tartea zertxobait murriztuko da diru-sarrera ertainak eta txikiak dituzten herrialdeen eta diru-sarrera handiak dituzten herrialdeen artean (ekonomia-konbergentzia).

Dena den, azpimarratu behar da etorkizuneko ibilbide ekonomikoa orok ziurgabetasun handia duela, eta elkarrekin lotutako zenbait faktoreren mende dagoela: ekoizleen eta kontsumitzaileen portaera; aldaketa teknologikoak; baliabideak eskura izatea eta produktibitatea; biztanleria-dinamikak; klima-aldaketa; eta abian jartzen diren politikak.

Diru-sarrera txikiko eta ertaineko herrialdeetan nekazaritza ez da hain intentsiboa kapitalean. Ekonomian egindako inbertsio-maila globalak (edo kapital finakoaren eraketa gordinak) gora egin du azken 25 urteetan. Hori gertatu da, bereziki, Ekialdeko Asian eta Ozeano Barean, Txinari esker: inbertsioak urtean % 15 inguru handitu dira, eta, diru-sarrera handiko herrialdeetan, berriz, % 2, batez beste, 1991. eta 2014. urteen artean. Aldi horretan, Txinan, BPGd-aren gaineko inbertsioen proportzioa % 30 baino gutxiago izatetik % 45 baino handiagoa izatera pasatu zen. Eta, aldiz, inbertsio mota hori % 22 eta % 27 artekoa izan zen diru-sarrera handiko herrialdeetan eta diru-sarrera txikiko eta ertaineko gainerako herrialdeetan.

Nekazaritza-inbertsioen joera zertxobait desberdina da. Gaur egun, diru-sarrera txikiko eta ertaineko herrialdeetan nekazaritzan diru-sarrera handikoetan adina inbertitzen dute ia, 190.000 milioi dolar, bi-bietan ere. Baina diru-sarrera handiko herrialdeetan nekazaritza askoz intentsiboagoa da kapitalean diru-sarrera txikiko eta ertaineko herrialdeetan baino. Diru-sarrera handiko herrialdeetan lau unitate kapital behar dira balio erantsiko unitate bat sortzeko, eta diru-sarrera txikiko eta ertaineko herrialdeetan, berriz, 1,5 unitate kapital.

2011. urtean maila altuena lortu ondoren, elikagaien prezioek asko egin dute behera. FAOren elikagaien prezioen indize erreala 1990eko eta 2000ko hamarkadetako baino altuagoa den arren, epe luzerako indizearen bilakaerak adierazten du beherazko joera dagoela 1960tik, oinarritzko produktuen arteko aldeak gorabehera.

Elikagaien prezioaren gorabeherak arreta handia piztu zuen elikagaien munduko 2007-2008 aldiko krisiak. Prezioek goreneko maila bat izan zuten 1970eko hamarkadan, eta 2000ko eta 2010eko hamarkadetako gorakadak aurreko hamarkadetako mailetakoa baino handiagoak izan ziren. Horregatik, azken hogeitazko urteetako prezioen hegakortasuna hirurogeita hamarrekoko hamarkadakoaren antzekoa da.

Elikagaien etorkizuneko prezioen maila bi aldagairen arabera izango da: hala, kontuan izan behar da, batetik, klima-aldaketaren eta baliabide mugatuen eraginez nola erantzuten dioten ekoizpen-sistemek gero eta handiagoa den eskaera horri, eta, bestetik, zer-nolako indarrez diharduen nekazaritza-produktuen merkataritzak egokitze-mekanismo moduan testuinguru aldakor horretan.

3. joera. Natura-baliabideak lortzeko lehia handitzea.

Nekazaritza-lurren hedadura handitzea da, oraindik, deforestazioaren arrazoi nagusia.

Nekazaritza-ekoizpena handitzea eta hazkunde ekonomikoa, askotan, natura-ingurunearen kontura lortu da. Lehen planeta estaltzen zuten basoen erdia desagertu egin da, eta lurpeko urak oso azkar ari dira agortzen. Biodibertsitateak ere kalte handia izan du. Erregai fosilak erretzearen ondorioz, berotegi-efektuko gasen milaka miloi tona isurtzen dira urtero atmosferara, eta mundua berotzen eta klima aldatzen ari da horren eraginez.

Azken 20 urteetan, nekazaritza-hedapena egonkortu egin da 4.900 milioi hektareatan, eta urtean galtzen den baso-hedaduraren galera % 50 moteldu da, eta urtean 3,3 milioi hektareakoa da (2010-2015). Baina zifra global horien azpian eskualde arteko alde handiak daude: eskualde tropikaletan eta subtropikaletan, urtean zazpi milioi hektarea baso galdu ziren 2000 eta 2010 artean, eta nekazaritzarako azalera, berriz, urtean sei milioi hektarea handitu zen aldi berean. Diru-sarrera txikiko herrialdeek izan zuten urteko baso-azaleraren galera garbi handiena, baita nekazaritza-azaleraren irabazi garbi handiena ere.

Elikagaiak eta energia ekoizteko baliabide naturalekiko lehia handitzen ari da, erregai fosilei alternatiba bioenergetikoak bilatzen ari zaizkien neurrian.

Gero eta gehiago erabiltzen dira zerealak, olio-haziak eta azukre-kanabera bioerregaiak ekoizteko, eta, halaber, gero eta gehiago erabiltzen da biomasa substantzia petrokimikoen ordez. Biomasa elikagaigintzarako eta elikagaiak ez diren beste gauza batzuetarako erabiltzeko lehia gero eta handiago horrek elikagaien, bazka-laboreen eta energiaren merkatuaren arteko mendekotasuna handitu du. Adibidez, munduan erabiltzen den bioenergiaren bi heren inguru elikagaiak prestatzeko eta berokuntzarako erabiltzen da, eta egurra eta beste biomasa bat errez lortzen da. Egur horren zati handi bat modu ez-jasangarrian ekoizten da eta eraginkortasun txikiz erretzen, eta horrek, batetik, kalte egiten dio biztanle pobreenen osasunari, eta, bestetik, ingurumena hondatzen du.

Nekazaritzak, industriak eta hiriguneek gero eta ur gehiago eskatzen dute, eta hori baliabide hidrikoak agortzen ari da.

Ur-baliabideen guztizko erauzketaren % 70 nekazaritzarako da. Industria, hiriak eta nekazaritza dira ur-horniduraren kontsumitzaile gorenak.

FAOren datuen arabera, munduko landa-biztanleriaren % 40 baino gehiago urik ez duten ibaien arroetan bizi da. Prezipitazio gutxiko Ekialde Hurbileko, Afrika iparraldeko eta Asia erdialdeko eremu askotan, eta Indian eta Txinan, ur-baliabideen zati handi bat nekazariak erabiltzen dute, eta ibaiak eta akuiferoak agortzen ari dira. Eremu horietako askotan, uraren % 80 eta % 90 artean nekazaritzarako erabiltzen da. Ur-eskasia dela eta, lur ureztatuen hedaduraren indizea asko moteltzen ari da. FAOren proiektioek erakusten dutenez, lur ureztatuen azalera globala motel haziko da, urtean % 0,24, diru-sarrera txikiko herrialdeetan, batez ere.

4. joera. Klima-aldaketa

Berotegi-efektuko gasen emisioen zati handi bat elikagaien sektoreak eta nekazaritzak sorrarazten dute.

Klima-aldaketari buruzko Gobernuarteko Taldeak (IPCC deritzo, ingeleseko siglengatik) argitaratutako azken ebaluazio-txostenean, 2014koan, adierazten da berotegi-efektuko gasen emisio antropogenikoen maila historiako handiena dela egun.

Azken 50 urteetan, nekazaritzatik, basogintzatik eta lurraren beste erabilera batzuetatik datozen (AFOLU deritzo, ingeleseko siglengatik) berotegi-efektuko gasen emisioak ia bikoiztu egin dira, eta, aurreikuspenen arabera, gora egiten jarraituko dute 2050era arte. Zebatespenen arabera, 2010ean, AFOLU sektorearen emisioak 10,6 gigatona karbono dioxido baliokidekoak izan ziren, gehienak lurraren erabileraren, abeltzaintzaren eta lurren eta nutrienteen kudeaketaren eraginez sortuak. Kalkulatzen da berotegi-efektuko gasen emisio globalen % 21 egiten dituela sektoreak. Baina biomasa bilduz, basoek atmosferako berotegi-efektuko gasak desagerrarazten dituzte eta klima-aldaketa arintzen dute.

Klima-aldaketak elikagaien ekoizpenean, elikagai-segurtasunean eta nutrizioan eragingo du.

Temperaturak gora egin ahala eta ur-horniduraren fidagarritasun txikitu ahala, arazo larriak izango ditu abeltzaintza txikiak, behe-latitudeetako larre-ekosistema idorretan eta erdiaridoetan bereziki.

Era berean, prezipitazioen aldakortasuna handituta eta lehortearen eta uholdeen maiztasuna areagotuta, laboreen errendimendua jaitsi egingo da seguruenik. Ingurune urtarrean ere eragingo du klima-aldaketak. Adibidez, aldaketak eragingo ditu itsasoko uraren azaleko tenperaturan, zirkulazio ozeanikoan, olatuetan eta ekaitz-sistemetan, gatz- eta oxigeno-kontzentrazioan eta azidifikazioan. Eta horrek guztiak eragina izango du arrantza-industrian.

Klima-aldaketak munduko elikagai-segurtasunean izango duen eragina ez da elikagaien horniduran soilik nabarituko, elikagaien kalitatean, eskuragarritasunean eta erabileran ere nabarituko da, bai eta elikagai-segurtasunaren egonkortasunean ere. Ekoizle txikiek lurraren, uraren, arrantzaren eta basogintzaren kudeaketa jasangarriko ohiturak hartzea funtsezkoa izango da klima-aldaketara egokitzeko eta munduko pobrezia eta gosea desagerrarazteko ahaleginetan aurrera egiteko. Dena den, horrelako ohiturak hartzea sustatzeko, hobekuntzak egin behar dira azpiegituretan, hedapenerako neurrietan, klimari buruzko informazioan, kreditua eskuratzeko aukeran eta gizarte-babesean.

Horrekin batera, garrantzitsua da nekazaritzaren eraginak murrizteko lan egitea, nekazaritza-garapeneko modu berriak sortu behar dira, elikagaien ekoizpena handitu eta aldi berean elikagai-unitate bakoitzeko berotegi-efektuko gasen isurpena murriztuko dutenak. Klima-aldaketara egokitzeko eta hura arintzeko ahaleginik egiten ez bada, nabarmen handituko da elikagaien segurtasun-eza.

5. joera. Nekazaritza-produktibitatea eta berrikuntza.

Nekazaritza-ekoizpenak handitu beharra du, baina errendimenduaren hobekuntza geldirik dago.

Nekazaritza-ekoizpena hirukoiztu egin zen 1969 eta 2015 artean, Iraultza Berdearen teknologiei esker (produktibitatea handitu egin baitzen), batetik, eta lurra, ura eta beste baliabide natural batzuk nekazaritzako gehiago erabiltzen hasi zirelako, bestetik. Aldi horretan, elikagaigintzak eta nekazaritzak industrializazio- eta globalizazio-prozesu sakon bat izan zuten. Elikagaien hornidura-kateak beldurgarri luzatu dira nekazaritza-ustategiaren eta gure mahaiaren distantzia fisikoa luzatzen joan ahala, eta elikagai prozesatu, ontziratatu eta prestatuen kontsumoak gora egin du komunitate guztietan, landa-eremu isolatuetan izan ezik.

FAOren kalkuluen arabera, 2050eko eskaria estaltzeko, nekazaritzak 2012. urtean ekoizten zuen elikagai, bazka-labore eta bioerregaien kantitatea % 50 handitu beharko du. Saharaz hegoaldeko Afrikan, nekazaritza-ekoizpenak bikoitza baino handiagoa izan beharko luke eskari-igoerari erantzuteko; munduko gainerako lekuetan, berriz, aurreikuspenen arabera, gaur egun baino heren bat gehiago ekoizti beharko litzateke (5.1 taula). Kalkulu horiek egiteko, kontuan hartu dira Nazio Batuen Erakundeak biztanleriari dagokionez egindako proiektzioak, 2050. urtean munduko biztanleria 9.700 milioikoa izango dela iragartzen dutenak.

Historikoki, konparagarriak diren aldietan, nekazaritza-ekoizpenean aurrerapen handiagoak lortu izan dira. Baina nekazaritza-eraginkortasunean hobekuntza orokorra izan den arren, errendimendu-hobekuntzak moteltzen ari dira, eta gerta liteke zaila izatea ekoizpenaren hazkunde-erritmoari eustea. Dena den, baliabideen kontserbaziorako jardunbideek, hala nola kontserbazio-nekazaritzak eta nekazaritza klimatikoki adimendunak, nekazaritza ekoizpena handitzeko metodo berriak ekartzen dituzte. Horrek adorea ematen du, aldi batez geldituta egon ondoren berriro piztu egin baita nekazaritza-ikerketak eta -garapena, eta inbertsio pribatua asko handitu da.

6. joera. Mugaz gaindiko izurriteak eta gaixotasunak.

Globalizazioarekin, gero eta ugariagoak dira mugaz gaindiko izurriteak eta gaixotasunak, eta mikrobioen aurkako sendagaiekiko erresistentzia handitzea arrisku handia da giza osasunerako.

Izugarri handitu dira mugaz gaindiko izurriteak eta gaixotasunak, bai landareenak, bai animalienak. Horrek arriskuan jartzen du eragindako eremuen elikagai-segurtasuna, eta ondorio handiak ditu ekonomian, gizartean eta ingurumenean. Landareen izurriteen eta gaixotasunen joerak aztertzen dituen azterketa batean adierazi dute izurrite bakoitzaren asetze-maila ia % 10ekoa dela Afrikan, % 20koa Asian eta % 60koa Ipar Amerikan.

Azken urteetako pandemien adibideak dira behien entzefalopatia espongiiformea (behi eroen sindromea), sukar aftosoa, hegazti-gripe oso patogenoa eta txerri gripea. Gaixotasun horiek gero eta eremu geografiko zabalagoetan agertzen dira, herrialdeen barruan eta herrialdeen artean mugitzen diren pertsonen, animalien, landareen eta nekazaritza-produktuen kopuruak handitu ahala eta ekoizpen-sistemak intentsiboagoak egin ahala. Klima-aldaketak ere handitu egin ditzake mugaz gaindiko arazo horiek eta animalien eta landareen izurriteen eta gaixotasunen banaketa aldatu. Eta oso zaila da horren ondorioak aurreikustea.

Animalien gaixotasunek giza osasunean izan dezaketen ondorioa areagotu egiten da bakterioek, parasitoek, birusek eta onddoek gero eta erresistentzia handiagoa dutelako mikrobioen aurkako sendagaiekiko (adibidea, antibiotikoak, antimikotikoak, birus kontrakoak, paludismoaren aurkakoak eta antihelmintikoak)

. Mikrobioen aurkako sendagaiekiko erresistentzia mundu osoan gertatzen ari da, eta gaixotasun infekzioso komunak tratatzeko ahalmenari eragin eta gaixotasun luzeak eta desgaitasunak sortzen ditu, eta, zenbaitetan, baita heriotza ere. Gaur egun, urtean 700.000 pertsona inguru hiltzen dira sendagaiekiko erresistenteak diren infekzioen eraginez.

7. joera. Gatazkak, krisiak eta hondamendi naturalak.

Gatazken kopuruak gora egin du berriro ere.

Azken hamarkadan, gatazken kopuruak gora egin du, eta horrek, jakina, elikagaien segurtasunik eza eta malnutrizioa handitzen du. Finantzaketa humanitarioaren % 80 inguru gatazka-eremuetara bideratzen da, eta gehienak denboran luze irauten duten gatazkek dira.

Gaur egun, munduko pobreen ia erdia ahultasuna eta gatazka ugariko estatuetan bizi da, eta 1990. urtean bosten bat inguru ziren. Gutxiagizko elikadura-maila handiena duten herrialdeak gatazka-egoeraren batean murgilduta daudenak izaten dira, edota bortizkeria-egoera batetik atera berri direnak. Gatazken ondorioz, laboreak, ganadua eta elikagai-erreserbak suntsitzen dira eta lapurretak izaten dira; pertsonak indar armatuetarako errekrutatzen direnez, gainera, eskulanaren iturri nagusietako bat agortuta geratzen da. Baina kezka are larriagoa da. Gatazkek, eskualde jakin bat kaltetzeaz gain, arazo globala ekarri dute, gerraren ondorioz pertsonak saldoka mugitzen baitira beste lurralde batzuetara. Hori gertatzen ari da, adibidez, Siriako Errepublika Arabiarreko ari den gerra zibilean.

Munduan gertatzen diren hondamendi naturalen kopurua eta intentsitatea ere handitzen ari da.

Hondamendi naturalen eragina handitu egin da azken 30 urteetan. Egoera hori agerian jartzen da fenomeno klimatologiko moduan (lehorteak), fenomeno hidrolologiko moduan (uholdeak) eta fenomeno meteorologiko moduan (ekaitzak). Klima eta nekazaritza estu-estu lotuta daudenez, fenomeno klimatikoak ugaritzea kezka-iturri handia da nekazaritza-sektorearentzat, pertsonen kalteberatasuna handitzen baitu eta haien elikagai-segurtasuna mehatxatzen. 2003. eta 2013. urteen artean, lehorteek inoizko suntsipenik handiena eragin zuten Saharaz hegoaldeko eta Ekialde Hurbileko lurretan. Uholde larriek arriskuan jarri zuten nekazaritza Asian eta Latinoamerikan eta Kariben (azken horretan, lehorteek eta ekaitzek ere kaltetu zuten nekazaritza, nahiz eta neurri txikiagoan izan).

Aurreikuspenen arabera, gero eta ohikoagoa izango da hondamendi naturalak eta gatazkek elkarrekin batera gertatzea. Muturreko fenomeno meteorologikoek presioa eragingo dute biztanleriarengan eta hura lekualdatzea bultzatuko dute, eta horrek gatazka-arriskua handituko du, bai eta munduko laguntza humanitaria emateko beharra ere. Klima-aldaketa, berez, ez dago bortizkeriarekin lotuta, baina egia da hondamendi naturalen eta ahultasun instituzional eta sozioekonomiko orokorraren konbinazioak eragindako kalteberatasunak gatazka-arriskua handitu dezakeela.

8. joera. Pobrezia, desberdintasuna eta elikagaien segurtasunik eza.

Muturreko pobrezia munduan behera egin duen arren, Saharaz hegoaldeko Afrikan biztanle gehiago dago muturreko pobrezia egoeran gaur egun, 1990eko hamarkadan baino.

Muturreko pobrezia behera egin du 1990etik. Baina, hala ere, munduan 700 milioi pertsonatik gora dago muturreko pobrezia egoeran, Saharaz hegoaldeko Afrikan eta Asia hegoaldean, batez ere. Pobrezia larrienean bizi diren 400 milioi pertsona baino gehiago daude gatazka-eremuetan, eta, beraz, pobrezia ikuspegi humanitariotik zein garapenektik heldu behar zaio.

Nekazaritzak pobrezia eta gosea arintzen du landa-eremuetan, baina ez da nahikoa.

Nekazaritza-politikek zeregin garrantzitsua dute pobrearen aldeko hazkunde ekonomikoan. Produktibitatea eta errentagarritasuna handitzen laguntzen dute zenbait modutan; adibidez, hedapenerako nekazaritza-zerbitzu eta aholkularitza eraginkorra emanez, balio-kateen arteko koordinazioa hobetuz, eta kateko katebegi ahulenek nekazaritza merkatuetan sartzearen etekinak lortzen dituztela bermatuz.

Baina pobrearen aldeko garapena nekazaritzatik harago doa. Orain arte, garapen ekonomikoko prozesuak, zentzu zabalenean, murriztu egin du nekazaritzan jarduten duten pertsonen kopurua, eta biztanleria urbanizatu egin da. Pobrezia behin betiko desagerrarazteko, landa-eremuei zein hiri-eremuei eragiten dieten ekintzak behar dira; adibidez: kalitateko hezkuntza eskuratu ahal izatea; dibertsifikazio ekonomikoa sustatzea landa-eremuetan nekazaritzakoak ez diren diru-sarrerak lortzeko; sektore ekonomiko guztietan enplegua sor dadin bultzatzea; pobreek aurrezteko eta inbertsioak egiteko aukerak handitzea; eta gizarte-babeseko sistema egokiak abian jartzea.

Diru-sarrera txikiko eta ertaineko herrialdeak diru-sarrera handiko herrialdeak harrapatzen ari al dira?

Azken 25 urteetan, diru-sarrera txikiko eta ertaineko herrialdeetan, biztanle bakoitzeko diru-sarrerak, kontsumoa eta kapital finkoaren eraketa gordina diru-sarrera handiko herrialdeek adierazle horietan izan dituzten emaitzetatik % 10 beherago egon dira. Joera horrek adierazten du ia ez dagoela konbergentziarik herrialdeen artean.

Konbergentzia moteleko eredu horiek hamarkada asko beharko lituzkete diru-sarreraren arteko alde handia desagerrarazteko. Diru-sarreretan herrialde-multzoen artean dauden alde izugarri horiek egoteak migrazio ekonomiko handiak sortzen jarraituko du, eta kontrolaezinak izan daitezke zailtasun-egoerek eragindako migrazioak eranstean bazaizkie. Txinak soilik izan du ibilbide desberdina: mendearen hasieratik, kapital finkoaren eraketa gordinak hazkunde handia izan du, eta adierazle hori diru-sarrera handiko herrialdeetan duen balioaren % 30era hurbildu da.

Beste alde batetik, biztanle bakoitzeko diru-sarrera gordinen arteko alde handia desberdintasuna areagotzen ari da aktiboen jabetzan — nabarmen polarizatutako alderdia, jada—. Oxfamen datuen arabera, 2016. urtean, zortzi pertsonen artean soilik munduko biztanle pobreenen % 50en aberastasunaren pareko aberastasuna metatuta zuten. Munduko Bankuak adierazten duenez, polarizazio hori are muturrekoagoa da Afrikan. Aktiboen jabetzan dauden desberdintasunek etorkizunean desberdintasunak eragin ditzakete diru-sarreretan, pobreek diru-sarrera duinak lortzeko, aurrezteko edo inbertitzeko aukerarik ez badute, batez ere.

Joera horiek bere horretan jarraitzen badute, ez da lortuko 2030erako gosea desagerrarazteko helburua.

Gutxiegiako elikadura murriztean aurrerapenak egin diren arren, 2014 eta 2016 artean, munduan 794 milioi pertsona inguruk gutxiegiako elikadura zuten. FAOren azkenengo aurreikuspenek adierazten dutenez (Zero Gose txostenean argitaratu dira), gaur egungo egoerak irauten badu, diru-sarrera txikiko eta ertaineko herrialdeetako 637 milioi pertsonak gutxiegiako elikadura izango dute 2030ean, gehienak Saharaz hegoaldeko herrialdeetan eta Asia ekialdean.

Elikagai-segurtasunean izaten ari diren hobekuntzek erosteko ahalmenean eragin ahala, bi bideko ikuspegi bat behar da, elkarrekin uztartzeko gizarte-babeseko inbertsioak eta pobreen aldeko jardueretan egiten diren inbertsioak. Horrela egiten bada, gutxiegiako elikadurari heltzeaz gain pobreek diru-sarrerak sortzeko aukera handiagoak izango dira.

9. joera. Nutrizioa eta osasuna.

Malnutrizioa munduko osasun-larrialdia da.

Malnutrizioaren karga hirukoitzak –desnutrizioa, mikronutrienteen falta, eta gehiegizko pisua eta obesitatea– munduko biztanleriaren zati handi bati eragiten dio. Munduan desnutrizioa jaisten ari dela ikustea pozgarria den arren, biztanleen % 11 gosez oheratzen da, eta mikronutrienteen gabeziak bi mila milioi biztanleri baino gehiagori eragiten die. Izan ere, Saharaz hegoaldeko eremu batzuetan, hazkuntza-atzerapenaren indizea ez da behar bezain azkar murrizten ari. Aldi berean, gora egiten ari dira gehiegizko pisuaren eta obesitatearen mailak, eta adin guztietako gizon eta emakumeei eragiten die, kaloria eta koipe askoko elikagaiak eta azukrea eta gatza erantsita duten jakiak behar baino gehiago jateagatik.

Azken hamarkadetan elikagai-horniduran izandako hazkundearekin, munduko nekazaritza-ekoizpena nahikoa da biztanleria osoaren behar dietetikoak estaltzeko.

Elikagaien multzoen arabera azterketa egiten badugu, ikusten da azken 50 urteetan biztanle bakoitzak eskura duen kaloria-kopuruak eta kontsumitutako elikagai-dibertsitateak gora egin duela, bai diru-sarrera handiko herrialdeetan, baita diru-sarrera txikiko eta ertaineko herrialdeetan ere. Baina diru-sarrera txikiko eta ertaineko herrialdeetan, batez besteko elikadura-energiaren hornidura diru-sarrera handiko herrialdeetako baino askoz txikiagoa da, nahiz eta aldea murrizten ari den pixkanaka. 1961. urtean, diru-sarrera txikiko eta ertaineko herrialdeetan, elikagai-energiaren hornidura diru-sarrera handiko herrialdeek zutenaren % 68 soilik zen, baina 2011n % 81era iritsi zen. 2050. urterako % 86 izatea espero da.

Baina elikagaiak eskura izateak ez du esan nahi, nahitaez, pertsona guztiak egoki elikatzen direnik. Lehenik eta behin, diru-sarreraren arteko alde handiak eta bizirik irauteko beste modu batzuk direla-eta, desberdintasun handiak daude elikagaiak eskuratzeko aukeran. Bigarrenik, etxe pobreenetan ez dute biltegiatzeko instalaziorik; ez dute janariak prestatzeko tresnarik eta edateko urik, ezta mediku- eta hezkuntza-zerbitzuak eskuratzeko aukerarik ere, eta, horrenbestez, ezin dute elikadura egokia izan. Horrez gain, trantsizio dietetiko elikagai nutritiboagoak (haragia, esnekiak, frutak eta barazkiak) errazago eskuratzen direlako gertatu da, baina horrek ez du esan nahi ezinbestez proportzio egokian jaten direnik. Joera horrek, eta elikagai prozesatuen kontsumoan izan den igoerak (azukre, gatz eta kontserbagarri gehiegi dituzte), kezka eragin du hain osasungarriak ez diren dietetara jo delako eta gehiegizko pisua eta desnutrizioa nagusi delako.

10. joera. Egitura-aldaketak eta enplegua.

Egitura-aldaketen erritmoa eta nekazaritza-erlaketako ereduak ez dira berdinak eskualde guztietan.

Egitura-aldaketen eraginez hazi da ekonomia; adibidez, nekazaritza-sektorearen garrantzia jaitsi delako edo zerbitzuen sektoreak eta industria-sektoreak hazi direlako. Herrialde eta eskualdeen artean aldeak diren arren, eraldaketaren ereduak antzekoak izan dira mundu osoan. Azken 50 urteetan, nekazaritzak BPGd-an duen ekarpen erlatiboak behera egin du ia leku guztietan.

Eta, gutxiago bada ere, nekazaritzako enpleguaren proportzioak ere behera egin du azken 20 urteetan. Eraldaketa ekonomikoak eta nekazaritza-sektorearen eraginkortasuna handitzeak landa-hiriak eta hirigune txikiak sortzea eragin du, eta landa-eremuen gizarte- eta ekonomia-garapenaren zati dira. Landa-eremuen eta hiri-eremuen arteko ekonomia-lotura handiek pobrezia murrizten ere lagundu dute, landaren eta hiriaren artean osasunari, gizarte-ongizateari eta bizibideei dagokienez zegoen tarte handia murriztuz, askotan. Dena den, kasu batzuetan eraldaketa-prozesu horiek oso motel gertatzen dira, eta garapeneko paradigma tradizionala zalantzan jartzen duten desabantailak ere badakartzate.

Lurren inbentariarik eta eskriturarik ez egoteak lurraren gaineko politika ez eraginkorrek dakartza, eta horrek segurtasunik eza dakar lurraren jabetzari dagokionez, eta inbertsioak eta produktibitatea mugatzen ditu. Eta nekazaritza komertzialak ustiatzen dituen azalera handietan ere izaten dira gatazkak, gardentasunik gabe egiten baitira askotan. Datuek erakusten dute ez diela emaitza onargarriak lortzen enplegu-sorkuntzari eta estaturako diru-sarrerak sortzeari dagokionez.

Beste kasu batzuetan, lanpostu-mugikortasunak eta pertsona gazteek sektorea jarraitzeko asmo gutxi izateak nekazarien batez besteko adinak gora egitea ekartzen du, eta, horrekin batera, errendimenduak gora ez egitea eta produktibitatea txikiagoa izatea. Horrez gain, sektoreko trantsizioa edonolakoa dela ere, baliabideen eta, bereziki, kapitalaren banaketan desberdintasun handiak egoteak emaitzak hain eraginkorrek ez izatea ekar dezake, eta, batzuetan, gizarte-tentsioak ere eragin ditzake.

Nekazaritzakoak ez diren enpresa txikiek enplegua sor dezakete, gazteentzako, batez ere, muga instituzionalak eta finantzarioak gaingaitzen badira.

Gaur egun, 10 eta 24 urte arteko inoiz baino gazte gehiago dago, eta diru-sarrera txikiko eta ertaineko herrialde batzuetan biztanleriaren herena ere badira; alabaina, enplegua lortzeko aurreikuspen eskasak dituzte eta diru-sarrerak sortzeko gurasoek baino potentzial txikiagoa. Zenbait kalkuluren arabera, munduan ikasketarik eta lanik gabeko 620 milioi gazte inguru daude. Hiri-eremuetako gazteek egoerarekin konforme ez daudela adierazi dute duela gutxi; Arabiar Udaberria deritzonean, adibidez. Landa-eremuko pertsona gehienek eta, bereziki, gazteek (oro har hirietakoek baino hezkuntza-maila txikiagoa izaten dute) enplegu egonkorra eta ordaindua izateko itxaropen okerragoak dituzte.

Landa-eremuan gazteentzako enplegua sortzeko lau ibilbide posible daude: familiako ustiapenean lanaldi osoz lan egitea; lanaldi partzialaz nekazaritzan lan egitea eta beste sektore bateko familia-enpresa batean egindako lanarekin uztartzea; nekazaritzan lan ordaindua egitea; eta lanaldi osoz nekazaritzaz kanpoko familia-enpresa batean lan egitea. Nekazaritzarekin loturarik ez duten familia-enpresa txikiek enplegu produktibo eta ordaindua izateko aukerak eman ditzakete, informalak izateak eta kapitalik ez izateak dakartzaten mugei aurre egiten bazaie. Azpiegituretan inbertsioak egiten badira, onurak izango dira garapenean eta pobrezia murrizketan, eta enpleguak sor daitezke nekazaritzan eta beste sektore batzuetan. Baina beharrezkoa da kontuz aztertzea zer inbertsio aukeratu eta lehenetsi behar diren.

11. joera. Migrazioak eta nekazaritzaren feminizazioa.

Pobrezia, klima-aldaketak, gatazkek eta baliabide naturalekiko lehiak zailtasun-egoerak eragindako migrazioak ugarituko dituela aurreikusten da.

Gatazkak, bortizkeria eta hondamendi naturalak migrazioen eta derrigortutako lekualdatzeen kausa berehalakoenetako batzuk dira. Dena den, migratzaile batzuk faktore sozioekonomikoengatik lekualdatzen dira, pobrezia, elikagaien segurtasunik eza, langabezia, gizarte-babesa lortzeko mugak, baliabide naturalak agortzea eta natura hondatzeak dakartzan eragin kaltegarriak direla-eta, besteak beste.

Helmugako herrialdeetan, nazioarteko migratzaileen proportzioa handitzen ari da, diru-sarrera handiko herrialdeetan, batez ere. Horrek gizarte-tentsioak eragiten ditu, askotan migratzaileak enplegurako lehiakide moduan ikusten baitira, eta mehatxua, soldata-mailei eusteko. Baina, ikusita diru-sarrera handiko herrialdeetako biztanleria zahartzen ari dela eta jaiotza-indizeak oso txikiak direla, migrazioak onurak ekar dakizkieke bai haiek jasotzen dituen herrialdeei, bai eta jatorriko herrialdeei ere.

Nekazaritzaren feminizazioak lan-karga handitzen die emakumeei, baina aukerak ere ekartzen dizkie.

Nekazaritzan teknologiek eskulana aurreztu eta sektoreko enplegua murrizten dute, eta gizon zein emakumeei beste alternatiba batzuk bilatu beharko dituzte. Dena den, seguruenik gizonen sektorea edo biziraupeneko nekazaritza erabat utziko duten arren, diru-sarrera txikiko herrialde askotan emakumeei landa-eremuetan bizitzen eta nekazaritzan lan egiten jarraitzen dute, eta, beraz, finkatzen ari da pobrezia feminizazioarako joera. Eginkizun horretan jardunda, emakumeei genero-aldea gainditu dezakete, baina, hori gertatzeko, zeresan handiagoa izan behar dute erabakiak hartzeko eta etxeko baliabideak kontrolatzeko orduan.

Elikatze-sistemetan izan diren aldaketek garrantzi handiagoa ematen diete ustiategi komertzialei, eta, elikagai prozesatuen kontsumoa handitzearekin batera, emakumeentzako ordaindutako enplegurako aukerak sortzen dira, familia-ustiategietatik kanpo. Baina ustiategi komertzialetan eta balio erantsi handiko hornidura-kateetako laketan lan egiten duten emakume gehienek eskulan handiko eta kualifikazio txikiko lanetan jarduten dute.

Emakumeei gero eta eginkizun handiagoak izanik nekazaritzan, egoera horrek emantzipaziora bultzatu ditzake, baldin eta zeresan handiagoa badute erabakiak hartzeko eta etxeko baliabideak kontrolatzeko orduan. Baina nabarmendu behar da egoera horrek lan-karga eta genero-desberdintasuna ere sustatu ditzakeela, diru-sarrera txikiko herrialdeetako azpiegiturak eta erakundeak ez baitaude behar bezala egokituta emakume langileari laguntza emateko.

12. joera. Elikadura-sistemen aldaketak.

Biztanleriaren hazkundeak nekazaritzako produktuen eskaria handitzen badu eta nekazaritza-jarduerak sustatzen ditu, eta urbanizazioak, berriz, erraz prozesatu, garraiatu, bildu eta banatzeko aukera ematen duten elikagaiak eskatzen ditu. Beraz, elikagaiak prozesatzea eta banatzea giltzarri bihurtu dira elikadura-sistemen transformazioan.

Elikagaien ekoizpenak eta banaketa-kanalak aldatzen ari dira.

Nekazaritzaren eta elikagaien ekoizpena, gero eta gehiago, hirietako eta hiri-aldrietako supermerkatuak hornitzera bideratzen da. 2001 eta 2014 artean, supermerkatuen bidez (hipermerkatuak, deskontu-dendak eta denda txikiak kontuan hartuta) banatutako elikagai prozesatuen proportzioa asko handitu zen diru-sarrera ertaineko herrialdeen artean, goiko mailan, % 40 baino gutxiago izatetik % 50era izatera pasa baitzen. Aldi horretan, 2001 eta 2014 artean, diru-sarrera handiko herrialdeetan, proportzioa % 72 inguru izatetik % 75era pasatu zen, eta diru-sarrera ertaineko herrialdeen artean, behekoen multzoan % 22tik, % 27ra.

Banaketa- eta salmenta-kanaletan izandako aldaketek eragin handia dute balio-katean. Supermerkatuek industrialki prozesatutako elikagaiak behar dituzte, eta horrek produktu estandarizatuak prozesatzeko planta automatizatu handiak egitea eskatzen du. Halakoek lehen sektoreko ekoizpena handitzea eta nekazaritza-lurak finkatzea eragiten du. Beraz, balio-kateen ezaugarria, gero eta gehiago, lehen sektoreko ekoizpeneko, prozesatzeko eta banaketako instalazioen koordinazio bertikala da –eta zenbaitetan integrazioa– eskatzen du, eskala handiko prozesatzearen automatizazioa, kapital- eta ezagutza-intentsitate handiagoa eta nekazaritzako elikagaien sektorea gero eta agente gutxiagoren eskuetan kontzentratzea.

Balio-kateek enplegu formalerako aukerak eskaintzen dituzten arren, zailagoa egiten dute nekazari txikien lana; izan ere, balio-kate integratuan parte hartzeko oztupoak dituzte: finantzaketa lortzeko, merkaturan sartzeko eta garraiatzeko zailtasunak, eta kalitatearekin lotutako arauak eragindakoak (kalitatea, trazabilitatea eta ziurtapena). Nekazari txiki asko lurrik gabeko egunsariko langile bihurtu dira, eta askok hirietara emigratu dute lan bila, eta horrek are gehiago bizkortu du urbanizazioa. Elikagaien balio-kate modernoek aztarna ekologiko handiagoa eragiten dute.

Berez jada urriak diren lurren eta baliabide hidrikoen gaineko presioa handitu ahala, nekazaritzako elikagaien sektoreak bere aztarna ekologikoa (berotegi-efektuko gasen emisioa, uraren erabilera, elikagaiak alferrik galtzea, eta zoruaren osasunean, ekosistema-zerbitzuetan eta biodibertsitatean dituen ondorioak) murrizteko modua bilatu behar du.

Elikadura-sistemak garatzeak ekoizpen intentsiboa eta hornidura-kate gero eta luzeagoak ekartzen ditu, eta, seguruenik, bai eta berotegi-efektuko gasen emisio handiagoak ere, dela ekoizpen-sargaiek eragindakoak (ongarriak, makinak, pestizidak, albaitaritze-produktuak eta garraioak, adibidez), dela ustiatzietatik kanpo egindako jardueren eragindakoak (garraioa, prozesatzea eta salmenta). Balio-kate globalek asko handitu dute distantzia luzeko garraioaren erabilera, lehen sektoreko ekoizpeneko puntuaren eta prozesatze-lekuaren eta kontsumo-lekuaren artekoa.

Ekoizpeneko lehenengo etapetan emisio txiki samarreko teknologien erabilerak konpentsatu egingo lituzke, zalantzarik gabe, balio-kate luze horren ondorengo etapetan sortutako emisioak. Bestela, berotegi-efektuko gasen emisio handiko teknologiak erabiltzen badira elikagaiak sortzeko eta gero jatorri-puntutik urrun dauden lekuetara garraiatzen badira, berotegi-efektuko gasen emisioak bikoiztu egingo dira. Adibidez, tokiko supermerkatuak hornitzen dituzten Kenyako nekazariak ohikoaren halako bi produktu kimiko erabiltzen dute ekoizpen-unitateko. Supermerkatuentzat ekoizteak ekoizpen-unitateko ongarri kimiko eta erregai fosil gehiago erabiltzea badakar, litekeena da berotegi-efektuko gasen emisioa handitzea ohiko balio-kateetatik balio-kate modernoetarako trantsizioa egiten denean.

13. joera. Elikagaiak hondatzea eta alferrik galtzea.

Munduan, ekoizten diren elikagaien heren bat inguru hondatzen edo alferrik galtzen da.

Gure elikadura-sistemen gabezien beste sintometako bat da ekoizten diren elikagaien herena inguru hondatzen edo alferrik galtzen dela balio-katearen punturen batean. Lehen sektoreko ekoizpenean zein prozesatze- eta kontsumo-etapetan gerta daiteke hori. Kalkuluen arabera, hondatutako edo alferrik galdutako elikagaietan dagoen energia munduan elikagaiak ekoiztean kontsumitzen den guztizko energiaren % 10 baino gehiago izango litzateke. Eta kantitate horri berotegi-efektuko gasen emisioek eragindako ingurumen-aztarna eta galdu egiten diren elikagaien ekoizpenean xahututako baliabide naturalak erantsi beharko litzaizkioke.

Ez da erraza zenbakitan jartzea elikagaiak hondatzeko eta alferrik galtzeko joeraren nondik norakoak, elikagaien hornidura-katean izaten ari diren aldaketengatik, eskualdeen artean alde handiak daudelako eta hainbat eragilek parte hartzen dutelako. Dena den, gero eta agerikoa denez elikagai kopuru handia hondatzen eta alferrik galtzen dela, ugaldu egin dira egoera horri aurre egiteko deiak, horien barruan hartuta segimendu-ahaleginak (elikagaien hondatzeen eta alferrik galtzearen indize globalaren bidez) eta kontzientziazio-ekintzak, tartean dauden eragileen jarreran aldaketak lortzeko.

14. joera. Elikagai-segurtasunerako eta nutriziorako gobernantza.

Duela bi hamarkada baino gehiagotik hona, 1990eko hamarkadatik hona, nazioarteko komunitateak "gobernu ona" sustatzeko lanean jarri du arreta; hau da, gardentasuna handitzea, parte-hartzea zabaltea eta gizarteratzea bermatzea erabakiak hartzeko prozesuetan, ustelkeria desagerraraztea eta instituzioen erreforma sustatzea. "Gobernu ona" izateko programetarako maileguen laguntzarekin, inbertsio handiak egin ziren finantza-kudeaketako eta administrazio publikoko arau berriak sustatzen. Arlo horietako aurrerapenak jarraipen-sistema eta adierazle espezifikoen bidez zaindu behar ziren.

Gobernu onaren muga handietako bat haren formalitatea zen, politika publikoen geldialdiari heltzea eta gobernu eraginkorra eragozten zuten gatazka politikoak konpontzea baitzuten, batez ere, helburu. Aldi berean, gobernuak gero eta gogo gutxiago zuten onura ukigarri gutxi ematen zituzten eta garapen-helburu garrantzitsuetarako arreta galtzea zekarrela uste zuten programetan inbertitzeko. Azkenik, azken hamarkadan,

agenda xume eta pragmatikora jo da oro har, zeinak ezaugarritzat baititu ikuspegi iraunkor, esperimental, erabakitzailea eta behetik gorakoa, hori guztia gobernu hobea lortzeko xedez.

Garapen Jasangarriko Helburuak lortzeko, gobernu-esparru berri bat behar da.

Eraginkorrak izateko, Garapen Jasangarriko Helburuak lortzeko ahaleginak kontuan izan behar dute gobernu-sistema arduratsu batek zer zeregin nagusi bete dezakeen, maila globalean zein nazioan, funtsezko garapen-helburuak lortzen. Hauek dira arrazoak: 1) ez dago ibilbide jasangarria duen herrialderik, eta bere kontura helburu guztiak lor ditzakeen helbururik ere ez dago; 2) helburu globalak "behetik gora" ikuspegitik lortu behar dira; 3) baliabide nazionalak zein elkarte pribatuenak mobilizatu behar dira; 4) politikak koherenteak izan behar dute, garapena gai konplexua delako eta eragile eta sektore guztiak tartean sartu behar dituelako; 5) Agenda 2030ek lankidetzari handiagoa sustatzen du, finantzaketa, inbertsioak, merkatuak eta teknologia eskuratzea errazteko, eta politikak eta gaitasunen garapena laguntzen du; eta 6) aurrerapenak neurtzeko adierazle-esparru globalak "elkarrekiko erantzukizuna" dakar.

15. joera. Garapenerako finantzaketa.

Garapenerako finantzaketaren panorama aldatzen ari da.

Garapenerako finantzaketa hazkunde ekonomikoa sustatzeko eta pobrezia murrizteko modurik eraginkorrena da. Panorama hori aldatzen ari da: asko handitu dira diru-sarrera txikiko eta ertaineko herrialdeetarako finantza-fluxuak, gero eta garrantzi handiagoa du finantzaketa pribatuak (bereziki, atzerriko inbertsio zuzena eta bonuak), eta baliabideen mobilizazioak maila nazionalean. Finantzaketa egokia Agenda 2030ek arrakasta izateko erronka nagusietako bat da. Sektore publikoa inbertitzailerik nagusietako bat ez den arren, eginkizun kritikoa izan dezake behar diren politikak eta araudi-esparrua ezarri. Finantzaketa-mekanismo berriak sortu dira, Klimarako Funtz Berdea, esaterako, eta horiek eragin biderkatzailea izan dezakete inbertsio publikoko eta pribatuko fluxuak lortzeko.

Garapenerako laguntza ofizialak finantzaketa-iturri garrantzitsuak dira, oraindik orain, diru-sarrera txikiko herrialdeentzat, estatu hauskorretzat eta gatazka-egoeran bizi diren estatuentzat. Beste alde batetik, diru-sarrera ertaineko herrialdeen finantzaketan, garapenerako laguntza ofizialen proportzioa nahiko txikia da, fluxu pribatuen mende baitaude nagusiki; esaterako, atzerriko inbertsio zuzenak eta bonuak. Baina, hala ere, herrialde multzo horrek garapenerako laguntza ofizialen % 40 jasotzen jarraitzen du. 2015 ondoko munduan, oso litekeena da ohiko garapenerako laguntza ofiziala eta baliabideen mobilizazio nazionala finantzaketa-iturri garrantzitsuak izaten jarraitzea diru-sarrera txikiko herrialdeen garapenean. Baina litekeena da ez izatea nahikoa Garapen Jasangarriko Helburuetan ezarritako helburuak lortzeko behar diren ahaleginak finantzatzeko.

1.2. AURRE EGIN BEHARREKO 10 ERRONKAK (FAO)

Hemen azpimarratutako joerek elikadurak eta nekazaritzak aurre egin beharreko erronka konkretuetara garamatzate, 2030erako gosea, elikagaien segurtasunik eza eta malnutrizioa desagerrarazteko aurre egin beharreko erronketara.

Identifikatutako erronka guztiak egokiak dira FAOren misioa betetzeko; hots, guztientzako elikagai-segurtasuna lortzeko, landako bizibideak hobetzeko, eta nekazaritza, arrantza, basogintza eta baliabide naturalak erresilienteagoak, produktiboagoak eta jasangarriagoak egiteko.

Guztiek ere ezaugarri komun bat dute: modu integral eta sistematikoan heldu behar zaie.

ELIKADURA-EGONKORTASUNERAKO ETA ELIKAGAIK ESKURA IZATEKO ERRONKAK

Nekazaritzaren produktibitatea modu jasangarrian hobetzea, eskari gero eta handiagoari erantzuteko. Hobekuntza handiak beharko dira baliabideen kontserbazioan eta erabileran, elikagaien eskariaren hazkundera estaltzeko 2050era arte (% 50ekoa izango dela aurreikusten da).

Balio naturalen oinarri jasangarri bat bermatzea. Azken urteetan eta etengabe izan den hedapenaren ondorioz, nekazaritza-lurrak eta baliabide hidrikoak agortzen ari dira. Nekazaritza-ekoizpenean izandako hazkunde orok baliabide naturalen kontserbazioan eta erabilera efizientean oinarritu behar du, batez ere.

Klima-aldaketaren eta hondamendi naturalen intentsifikazioaren auziei heltzea. Oso garrantzitsua da planetako baliabide naturalek munduko gero eta biztanleria handiagoari jaten emateko duten ahalmenari eustea, eta, aldi berean, nekazaritzaren ingurumen-aztarna eta aztarna klimatikoa murriztea, gaur egungo eta etorkizuneko belaunaldien ongizatea bermatzeko.

Mugaz gaindiko izurriteak eta gaixotasunak prebenitzea. Mugaz gaindiko izurriteak eta gaixotasunak kontrolatzea funtsezkoa da landare- eta animalia-ekoizpena sustatzeko, eta elikagaien kaltegabetsuna ziurtatzeko. Horretarako, nazioarteko koordinazio handiagoa beharko da, arriskuak ulertzeko eta ondoren izurrite eta gaixotasun horiek guztiak kontrolatu, prebenitu eta desagerrarazteko.

ELIKAGAIK ESKURATZEKO ETA ERABILTZEKO DAUDEN ZAILTASUNAK

Muturreko pobrezia desagerrarazi eta desberdintasunak murriztea. Munduan, pobreak diren eta gose dauden pertsona gehienak landa-eremuan bizi dira, eta ozta-ozta lortzen dute bizirik irautea nekazaritzatik, arrantzatik edo basogintzatik. Pobrearen aldeko hazkundera nekazaritza haratago doazen eta finantzaketa behar duten faktoreen mende dago: kalitateko hezkuntza eskuratu ahal izatea, dibertsifikazio ekonomikoa nekazaritzakoak ez diren eta diru-sarrerak sortzen dituzten jardueretara, enplegu-sorkuntzari laguntzea, eta gizarte-babeseko mekanismo egokiak.

Gosea eta malnutrizio mota guztiak desagerraraztea. Aurreikuspenen arabera, batez besteko biztanle bakoitzeko diru-sarrerak handitzeak ondorio positiboak izango ditu nutrizioan, animalia-produktuak eta koipe eta azukre askoko elikagaiak kontsumitzen dituzten pertsonen kopurua handitu ahala. Baina hirietako bizitzeko modu sedentarioekin lotuta, malnutrizio mota guztiek hazteko arriskua dute: gutxiagizko elikadura, mikronutrienteen gabezia, gehiegizko pisua eta obesitatea.

Krisi luze, hondamendi eta gatazkekiko erresilientzia handitzea. Erresilientzia- eta garapen-prozesuak beharko dira, arriskuak kontuan gehiago hartzen dituztenak eta inklusiboagoak eta ekitatiboak direnak, munduan gatazkak ugaritu ez daitezen.

Landa-eremuetan diru-sarrerak lortzeko aukerak hobetzea eta migrazioak sorrarazten dituzten arrazoiei aurre egitea. Migrazio-fluxuen kudeaketa eta landa-eremuetan diru-sarrerak sortzeko eta inbertsioak egiteko aukera hobetzeko, ezinbestekoa izango da ahalegin gehigarriak egitea, ziurtatzeko pertsona ahulenek merkatuen eta nekazaritza-inbertsioen onura jasotzen dutela, eta migrazioa sorrarazten duten arrazoiei aurre egiteko.

ERRONKA SISTEMIKOAK

Elikadura-sistemak eraldatzea, eraginkorragoak, inklusiboagoak eta erresilienteagoak izan daitezen. Elikadura-sistemetan gertatzen ari diren aldaketek kezka berriak sortzen dituzte eta erronka berriak dakartzate nutrizioan, elikagaien balio-kateen aztarna ekologikoan, eta ekoizle txikiak duten parte-hartzean.

Gobernu-sistema koherente eta eraginkorra, naziokoa zein nazioartekoa. Elikadurak eta nekazaritzak dituzten erronkak elkarri lotuta daude, Garapen Jasangarriko 2030 Agendak eta harekin lotutako akordio globalek adierazten duten bezala. Erronka horiei guztiei aurre egiteko, beharrezkoa da sektoreko espezifikoko ez diren politikak egitera mugatzen ez diren ikuspegi nazionalak eta nazioartekoak integratzea

. Eta iraganean egindako akatsik ez egiten ahalegindu beharko da, gobernantza-mekanismo, arau-sistema, jarraipen-esparru eta kontu emate eraginkorrak eragozten zituzten akatsak, hain zuzen ere.

